



ELKANO, EUSKALDUNAK ETA MUNDUAREN INGURUKO LEHEN ITZULIA

DANIEL ZULAIKA





Daniel Zulaika (Zarautz, 1951) Osakidetza medikua izan da. 1981ean bere doktore tesia irakurri zuen, medikuntzaren historiarekin lotutako gai bati buruz: *“Madinabeitia medikuaren bizitza eta obra”*; tesiak Oñatiko mediku Juan Madinabeitia aztertzen du, eta lana Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratu zuen.

Historia ikasketak egin zituen Nafarroako Unibertsitateko Arte Liberaletako Institutuan; *“Euskaldunak eta munduaren inguruko lehen itzulia”* izeneko gradu amaierako lana egin zuen eta 2018ko maiatzaren 2an irakurri zuen, gehienezko kalifikazioa lortuz.

ELKANO 500 Fundazioko Aholkularitza Batzordeko kidea da.

Argitatzailerak:

Mundubira 500 Elkano Fundazioa
Aldamar parkea 2
20808 Getaria
www.elkanofundazioa.eus
info@elkanofundazioa.eus

Lehen edizioa: 2019ko ekaina

Disenua eta maketazioa:

LEKU web-comunicación
www.leku.es

Inprimaketa eta kuadernaketa:

Michelena artes gráficas S.L.

ISBN: 978-84-09-12668-2

LG SS-702-2019

Itzultzailea:

Garbiñe Etxaniz

Guztiz debekatua dago liburu honen erreprodukzioa, osorik nahiz zatika, eta, gainera, debekatua dago edozein sistema informatikotan txertatzea; era berean, informazioa gorde edo berreskuratzeko beste edozein sistema ere debekatua dago, eta baita ere informazio hori edozein modutan edo bitarteko bidez berreskuratzea, izan elektronikoa, mekanikoa, fotokopia bidez, irarketa edo beste metodo batzuk erabiliz, aurrez Elkano 500 Fundazioaren idatzizko baimena izan gabe.

Lan hau, maitasun osoz eskaintzen diet
Conchiri,
Jon eta Daneli,
Ramonita eta Virginiari,
Pablo eta Ayalari,
txikienak, baina ez horregatik
garrantzia gutxiago dutenak.

Euskaldun unibertsalak

Munduari lehen itzulia egin zeneko bosgarren mendeurrena betetzerakoan, Daniel Zulaikaren obra honek agerian uzten ditu gertaera historiko haren garrantzia eta euskaldunen ekarpena, haien laguntza ezinbestekoa izan baitzen espediziorako. Mundu birak aldatu egin zuen munduaren, bere dimentsioen eta errealitate geografikoaren kontzeptzioa. Baina, gainera, ezagutzaren garaipena ekarri zuen superstizioaren gainetik; hainbat mito baztertu ziren, hala nola munduaren amaieran ur-jauzia zegoela, itsas muntstroak zeudela edo ezinezkoa zela ekuatorea zeharkatzea. Horrek guztiak gizadiaren pentsatzeko modua aldatu zuen.

Euskaldunen ekarpena erabakigarria izan zen alderdi askotan; hasteko, Juan Sebastian Elkano espedizioaren kapitaina izan zen Magallanes hil ondoren, eta berak hartu zuen Indikoaren ibilbidea hartzeko eta ekialdetik itzultzeko erabakia. Geta-riako itsasgizonari dagokio, beraz, iritsi izanaren meritua, Nao Victoria ontzian bizirik gelditzen ziren 18 lagunekin batera, bidaiaren lider eta egile nagusi bihurtuz. Bere anbizioari, ezbeharraren aurrean zuen indarrari, eta erabakiak hartzeko eta bere tripulazioa zuzentzeko zuen gaitasunari esker, mundu mailako lider bihurtu zen.

Baina euskaldunen ekarpena ez da hor amaitzen. Izena eman zuten berrehun eta berrogei gizonetatik hogeita hamaika Euskal Herrikoak ziren. Haien artean, bi gipuzkoar, Elkano bera eta Juan de Elo-

rriaga, aginteko ofizialak ziren Sanlúcar de Barramedatik atera ziren bost ontzietako bitan. Hain zuzen ere, ontzi horietako hiru Erandio, Lekeitio eta Ondarroan erosi ziren, Nao Victoria barne, eta ontzi hori izan zen zeharbidea amaitu zuen bakarra. Lotura ez da hemen amaitzen; izan ere, ontziratu ziren profesional kualifikatu askok (arotzak, istinkariak, etab.) Euskal Herriko ontzioletan ikasi zuten beraien lanbidea, garaiko ontziola aurreratuenen artean baitzeuden. Guztiak izan ziren hedadura globaleko gertakari historiko batzuen protagonista, eta Gipuzkoan eta Euskal Herrian oso agerikoa den espiritu onenaren isla izan ziren, hau da, oraina hobetzeko eta aldatzeko aurrera begiratzen duten ekintzaileen espiritua.


Elkanoren eta espedizioako bere lagunenginkizunaren islak, eta izandako errekonozimenduak, edo errekonozimenduezak, agerian uzten dute garrantzitsua dela ekintza heroiko horien kontaketa zabaltzea eta ezagutzera ematea. Horrela, “Elcano, los Vascos y la Primera Vuelta al Mundo” liburuak eginkizun hori betetzen du: gure historia hobeto ezagutzen laguntzea, eta bereziki azpimarratzea hogeita hamaika euskaldun unibertsalek gizadiari egindako ekarpen paregabea.

Denis Itxaso

Kultura eta Lankidetzako diputatua

| aurkibidea |

Hitzaurrea	6
Sarrera	8
Victoria naoaren etorrera	17
1. kapitulua. ESPEZIEN BILA	18
2. Kapitulua. ONTZIGINTZA BIZKAIAN ETA GIPUZKOAN	24
Burdinolak eta olagizonak	26
Ontzigintzaren bilakaera	27
Euskal ontziolak	29
Bikeztatzaileak eta uretzeko zurginak	30
Naoak eta karabelak	31
Arma fabrikatzaileak	34
3. Kapitulua. EUSKALDUNAK SEVILLAKO KONTRATAZIO ETXEAN	36
Euskaldunak Sevillan	37
Sevillako Kontratazio Etxea	39
Faktore, diruzain eta kontularia	40
Interes pribatuak Kontratazio Etxean	41
Etxeko ofizialak: López de Recalde, Ochandiano eta Ochoa de Isasaga	43
Lopez de Recalde eta Ochandianoren jarduerak espedizioan	47
4. kapitulua. ARMADAREN PRESTAKUNTZA	48
Nicolás de Artieta	50
Bost naoak	54
Armadaren prestatze-lanak	55
Arotzak, bikeztatzaileak, marinela eta peoiak	57
Maisuak eta kontramaisuak: Elkano, Elorriaga eta Acurio	60
Beste hornitzaile batzuk	61
Artilleria	62
5. kapitulua. EUSKAL ESPEDIZIOKIDEAK	64
Euskal espediziokideak	65
Banaketa kargu edo lanbidearen arabera	72
Maisuak	72
Kontramaisua	77
Marinela	80
Itsasmutilak	82
Mutilak (Morroiak)	85
Arotz eta bikeztatzaileak	87
Bizarginak (osasun-langileak)	91
Armagizonak	92
Kapitainordeak	92
Despentsariak	93



6. Kapitulua. BIDAIA, SEVILLATIK MOLUKETARA	96
Bizimodua naoetan	97
Munduaren inguruko lehen biraren etapak	100
Sanlucar-etik San Julian badiara	100
San Juliango matxinada eta Santiago naoa galtzea	101
San Julian eta Magallanes itsasartearen artean	103
San Antonio naoaren desertzioa eta Sevillara iristea (iritsiera)	104
Magallanes itsasartearen zeharkaldia	105
Ozeano Barearen zeharraldia	106
7. Kapitulua. ELKANOREN GARAIA, ITZULERA	110
Moluketan	111
Itzultzeko saiakera hutsala	111
Egoera berria eta bide berria	112
Trinidad naoaren amaiera	115
Indiako ozeanoaren zeharkaldia	116
Afrikako kostalde Atlantikoan gora	121
Etorrera	124
Elkanoren gutuna	126
8. Kapitulua. ITZULERAREN ONDOREN	128
Acurio, Zubileta, Arratia, Tolosa, Chindarza eta Elkano	129
Victoria naoaren amaiera	131
Elkanoren heriotza	131
Elkanoren testamentua	131
9. Kapitulua. JUAN SEBASTIAN ELKANO	134
Elkano eta Magallanes	137
Juan Sebastian Elkanoren ekarpena	139
Ondorioak	140
Bidaiaaren kronologia	142
Testuan txertatutako taulak	146
Erabilitako neurrien baliokidetasunak	148
Euskaldunen aurkibide onomastikoa	150
Oharrak	152
Erabilitako artxiboko dokumentuen zerrenda	174
Bibliografia	184
Dokumentu eranskina	194

| hitzaurrea |

Lehen zirkumnabigazioa historiako itsas balentria handiena da ziurrenik. Ekintza gogoangarri hari eskerrak bi itsasgizon eta ontzi baten izenak urrezko hizkiz pasa dira historiara: Fernando Magallanes eta Juan Sebastian Elkano kapitainak, eta Victoria naoa, Sanlucar de Barramedara iritsi zena 1522ko irailaren 6an, bertatik 1519ko irailaren 20an irten eta gero. Bidaia izugarri haren 500. mendeurrena dela eta, bidaia epiko hartako protagonistak goraiatzeko hainbat liburu agertu dira -eta agertuko dira-. Baina inoiz ez da ahaztu behar Magallanes eta Elkanorekin batera 230 gizon baino gehiago itsasoratu zirela, eta, normala den lez, bidaia beraiei eskerrak ere egin ahal izan zela. Francisco Lopez de Gomarak dioen bezala, bidaia hark Argonauten gorabeherak baino meritu gehiago zituen kantatua izateko.

Espedizioan parte hartu zuten euskaldunen kasuan dagoen hutsunea betetzera dator Daniel Zulaikaren liburu entretenigarri eta dokumentatua. Ez da lehenengo aldia Daniel Zulaikak Clioren esparruan oso modu egokian esku hartzen duena

bere mediku ikuspegitik, bera baita Juan Madinabeitia y Ortiz de Zarate medikuaren biografiaren egilea. Orain, historialari gisa, ikerketa lan handi bat egin eta dagokion bibliografia bildu ondoren, egilea XVI. mendeko urte-liburu eta dokumentuetan murgildu da Magallanes eta Elkanoren bidaian moduren batean edo bestean parte hartu zuten euskaldunen historia berreskuratzeko. Zulaikak ez du ahaleginik egin gabe utzi bere herrikideak armadaren prestaketa-lanetan egin zuten ekarpena azaltzeko garaian. Bere orrietan irakur daitezke Sevillako Kontratazio Etxeko ofizialen izenak, besteak beste Kontratazio Etxeko kontulari Juan Lopez de Recalde Gipuzkoarra, edo Domingo de Ochandiano diruzaina, jatorriz bizkaitarra. Eta ez ditu ahanzturan uzten naoak hornitzeko lanetan ibili zirenak: Nicolas de Artieta kapitaina, Lekeitiarra, Bizkaian kulebrinak, falkoiak, bonbardak, kainoi astunak eta baita hainbat armadura ere erosi zituen (koseleteak, kapazeteak, bular-oskolak, baleztak, eskopetak, eta abar); horietako batzuk Magallanesek berak erabiltzeko erosiak. Hornitze-lanetan ibili ziren baita

ere Juan eta Rodrigo de Garay, beste hainbat tresna erosteaz arduratu zirenak (haria, hiztupa, espartzua, eta abar); eta, azkenik, beste hainbat lagunek soldata truke lan egin zuten bikeztatzaile eta peoi gisa, Sevillatik irten aurreko hilabete gogorretan.

Armadaren prestakuntzan euskaldunek egindako ekarpena aztertu eta gero (kontuan hartu behar baita bost ontzietatik hiru Erandion, Ondarroan eta Lekeitio erosi zirela), bidaia hartan parte hartu zuten euskal itsasgizonen izenak aztertu ditu Zulaikak, eta zeharaldi luze hartan izan zuen patua argitzen du. Portzentajea beldurgarria da: itsasoratu ziren hogeita hamaika gizonetatik seik bakarrik lortu zuten munduaren inguruko itzulia egitea. Era ordenatuan eta pazientziaz, egileak nabigatzaile horietako bakoitzaren peripeziak kontatzen ditu, ontzi-maisuengandik hasi (Elkano) eta kontramaisu (Juan de Acurio), marinel, itsasmutil (Juan de Arratia; Pedro de Tolosa*) eta morroiekin jarraituz (Juan de Zubileta; Pedro de Chindarza*); bukatzeko, bizargin, armagizon, kapitainorde eta despentsarien

gorabeherak kontatzen ditu (bizirik iraun zutenak bakarrik izendatu ditut, izartxo batekin nabarmenduz Cabo Verden geratu ziren bi gizonak). Liburuaren amaieran bidaiaren deskribapen zehatza egiten da, eta azken gisa Elkano eta Magallanes kapitainen balioespen pertsonala egiten da.

Daniel Zulaikak prosa dotorean idatzi du oso ondo dokumentatutako liburu baliagarri hau. Gertakariak labur, motz azalduta egon arren, xehetasun garrantzitsu guztiak hortxe daude: zehaztasun kritikoa, argitasuna eta konkretutasuna dira bere bertute handienak. Nahiago nuke nire hitzek gai hauetako buruzko bere ikerketa oparoarekin jarraitzera animatuko balute.

Juan Gil

Sevillako Unibertsitateko Latindar
Filologiako Katedradun Emeritua.

| sarrera |

Munduaren inguruko lehen itzuliaren historiak, behin eta mila aldiz kontatua, balentria izugarria deskribatzen du. Portugalدارrek, andaluziarrek, gaztelarrek edo genoarrek harrotasunez aldarrikatzen dute abentura hartan izan zuten parte-hartzea; eta nik lerro hauekin hasten dudak kontakizunean, ildo nagusia euskaldunak izango dira, espedizioan parte hartu zutenak, antolakuntzan eta prestaketa-lanetan aritu zirenak, eta baita herria bera ere, kolektibo modura, komunitate modura, ordurako ibilia zuen historia zatia-rekin. Munduaren inguruko lehen itzuliari erreferentzia egiten dioten lanen zati handi bat Magallanes eta Elkanoren biografiak dira. Nolabait, pertsona ospetsu horiek itzali egiten dituzte gainontzekoak. Horregatik, beharrezkoa zen bestelako hurreratze bat egitea, gainontzeko protagonisten ekarpenari balioa emanez; izan ere, horien guztien ahalegin eta borondateari eskerrak lortu zen espedizioa lurraren mugetara iristea.

Istoria hau jatorrizko lana eta beharrezkoa da, orain arte ez baita egin lurraren inguruko lehen itzulian euskaldunek, garai hartako “bizkaitarrek”, izan zuten eginkizunaren berrikuste zehatz eta dokumentaturik. Euskaldunak dokumentu askotan ageri dira, baina modu grafikoan esatearren, oso modu

sakabanatuan. Ahalegin bateratzailea behar zen ontzigintza, Euskal Herria, Sevilla, Kontratazio Etxea, armadaren eraikuntza, munduaren inguruko bidaia, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskifaikideak, Juan Sebastian Elkano horien artean, eta horien patua elkartzeko. Lehen zirkumnabigazioaren historiografiaren une gako batean gaude. Hemendik gutxira munduaren inguruko lehen itzuliaren 500. urteurrena beteko da (1519-1522), eta efemeride hori aukera bikaina da kontakizun hau eta gertaera hari buruzko beste asko argitaratzeko.

Istoria orain mila urte hasi zen, beharrak bultzatuta Europa Iparraldeko jendearengandik ikasi baikenuen ontziak eraikitzen, itsasgizon, arotz eta olagizon bihurtu ginen, eta itsasora atera ginen. Prozesu luzea da, Guadalquivir ibaiertzean itsasoratzen dena, eta bertan aurkitzen ditugu euskaldunak Magallanes-Elkano espedizioaren prestaketa-lanetan, baina baita ere Gaztelako administraziooko lanpostu garrantzitsuetan, gertaera hartan modu aktiboan parte hartuz. Lan honek erakutsi nahi du XVI. mende hasieran Bizkaitarrak eta Gipuzkoarrak Sevillan egotea ez zela kasualitatea. Esperientzia handiko itsasgizonak ziren, itsasontzi bikainak eraikitzen zituzten, arotz eta bikeztatzaileek sona handia zuten,

artisansauak, merkatariaiek eta garraiolariaiek ziren, eta Sevillako Kontratazio Etxean eragin handia zuten.

Ezinbestekoa da Juan Sebastian Elkano aipatzea, bere irudiak gainontzekoak ez loutsotzeko ahalegina eginez, baina, aldi berean, Getariako maisuaren eginkizuna aldarrikatuz. Orokorrean, Elkano objektibotasunez tratatu dute biografo euskaldun eta espainiarrek, ez ordea atzerritar askok, munduaren inguruko itzulian Fernando de Magallanes bakarrik hartzen baitute kontuan.

Ontzigintzak Euskal Herrian izan zuen bilakaerari buruz azterketa bikainak daude, eta dagokion atalean hitz egingo dugu horiei buruz. Argitalpen horiek argi erakusten dute Europako Atlantiar kostaldean izandako eraldaketa erraldoia, eta berezko argiz nabarmendu ziren Iberiar herrialdeak, horien artean euskaldunak, kantabriarrak, portugaldarrak eta beste batzuk. Literatura ugaria da baita ere euskal itsasgizon, garraiolari eta merkatariek izan zuten protagonismoari buruz, eta, Behe Erdi Aroaz geroztik Europa iparraldearen eta Mediterraneoaren artean egin duten zubi lanaz. Euskaldunek Sevillaren konkistan eta, Afrika inguratuz, Kanarietara iritsi ziren lehenengo espedizioetan izan zuten parte-hartzea dokumentatua

dago. Marinel tradizioa handia da beraz, batik bat merkataritzak bultzatua, VX. mende amaieran eta XVI. mende hasieran izan ziren gertakarien aurretik.

Zirkumnabigazioari dagokionez, hori baita azken finean lanaren ardatza, gaiari buruzko dokumentu eta bibliografia oso ugaria da. Horregatik, Magallanes-Elkanoren espedizioan, zuzenean edo zeharka, parte hartu zuten euskaldunei erreferentzia egiten dieten lanak aukeratu ditut oinarrian. Prozesua erregearen eta Magallanesen arteko kontratuaren sinadurarekin hasi zen, 1518ko martxoan. Une hartatik aurrera, Sevillako Kontratazio Etxeak protagonismo ukaezina hartzen du Lopez de Recalde gipuzkoarrarekin eta Domingo de Ochandiano bizkaitarrarekin.

Hainbat espediziokidek idatzi zuten munduaren inguruko lehen itzuliri buruz: Antonio Pigafetta, Ginés de Mafra, Francisco Albo, Juan Sebastian Elkano, “genoarra” ezizenpean ezkutatzen zen pertsona Trinitateko maisua izan zitekeen, edo Leon Pancaldo, Trinitateko itsasgizona, eta azkenik, Portugaldar bat, Duarte Barbosa-ren adiskidea. Eguneroko horien hainbat argitalpenen artean, Miraguanoren¹ 2012ko bilduma erabili dut.

Kronikagile horien testigantzek, bakoitza bere estiloarekin, espedizio hartan gertatu zena erakusten digute. Batzuk oso koloretsuak dira, Pigafettarena esaterako, eta beste batzuk berriz, sintetikoak, Alborena adibidez. Pigafettak idatzitako egunerokoaren ezaugarrietako bat da Magallanesengatik sentitzen zuen miresmena eta bere alderdikeriarako joera. Magallanes da armada egituratzen duen bakarra, espedizioa zuzentzen duen bakarra, eta, bera hil ondoren, inor ez dago gizon haien agintean. Erabaki kolektiboak dira. Juan Sebastian Elkanori ez dio barkatzen Magallanesen aurkako matxinadan parte hartu izana, eta ez du behin bakarrik ere aipatzen bere egunerokoan, inoiz existitu ez balitz bezala. Eta ez da huseria gogoratzea Pigafettaren kronika dela bidaiari buruz idatzitako lanik garrantzitsu eta handiena; horrek, noski, eragina izan du ondorengo mendeetan Elkanok izan zuen eginkizuna ulertzeko moduan.

Zenbait kontakizun galdu egin dira, Elkano berarena esate baterako; Fernandez de Oviedoren arabera, Transilvanok 1522ko² urriaren 5ean idatzitako gutunaren eduki ia bera zuen Elkanoren kontakizunak. Juan Sebastianek, Leguizamoren aurrean egindako adierazpenean esan zuen eguneroko bat idatzi zuela eta horren zati bat berak bazuen ere, beste zatia Sámano³ idazkariari eman ziola. Dokumentu aparta izango litzateke, munduaren inguruko itzuliaren kontakizuna itsas bidaia amaitu zuen kapitainaren eskutik, baina artxibo guztietan

bila ibili arren, ez da aurkitu⁴. Orain urte batzuk, Mauricio Obregon kolonbiarrak Indietako Artxibo Nagusian aurkitu zuela esan zuen eta Bogotan argitaratu zuen, baina ez zen Elkanoren egunerokoa, Almazor⁵ erregeak egindako bake negoziazio batzuk baizik. Galdutako egunerokoa esku artean izan zuen Gonzalo Fernandez de Oviedo kronikagileak, eta bidaiari buruzko bere kontakizunean, hainbat ataletan laburtu zuen *Historia General y Natural de las Indias* delakoan. Egileak dio behin baino gehiagotan hitz egin zuela Elkanorekin⁶.

Espedizioan gertatutakoari buruzko Elkanoren testigantza pertsonala osatuko lukete Fernandez de Oviedo eta Transilvanoren kronikek, Elkanok erregeari idatzitako gutunak, Leguizamo alkatearen aurrean egindako adierazpenak eta beste hainbat ekarpenek. Elkanok Francisco Alboren kronikan parte hartu zuela ere esan da, kontakizunaren estilo zehatza dela eta⁷.


Enperadoreak Juan Sebastian Elkanori emandako barkamenaren errege zedulak bere bizitzaren inguruko datu interesgarriak⁸ erakusten ditu. Armada prestatzeko lanetan ari ziren bitartean izandako hainbat gertakariei buruzko Elkanoren testigantza bat ere ezagutzen da, 1519ko abuztuaren 9an eginen Magallanesen⁹ eskariz. Azkenik, Elkanoren testamentuak euskal kapitainari¹⁰ buruzko datu oso interesgarriak ditu, nahiz eta espedizioari buruzko erreferentzia zuzenik ez egin.

Maximiliano Transilvanok ez zuela espedizioan parte hartu esan dugu, baina lehen eskutik jaso zituen Elkanoren eta bere ki-deen¹¹ testigantzak. Magallanes-Elkanoren espedizioa Pedro Martir de Angleria¹²-ren *Décadas del Nuevo Mundo* delakoan ageri da, eta baita ere Gonzalo Fernández de Oviedo¹³-ren *Historia General y Natural de Las Indias* liburuko bigarren zatia- ren lehenengo liburukian. Hiru autore garaikideen lanak izango genituzke beraz.

Indietako Artxibo Nagusiko dokumentuak oinarritzko iturri primarioak dira, informazio oso baliotsua ematen digute espedizio-ko hainbat momenturi buruz eta espediziokide nahiz kronikagileen kontakizuna osatzen dute. Armada prestatu bitartean gertatutako hainbat egoeren berri ematen digute, batzuk gatazkatsuak, eta zenbait gizonen zeregina nabarmentzen da, beste batzuen artean Lope de Recalde, Etxeko kontularia, Domingo de Ochandiano, Nicolas de Artieta eta Juan de Huguibar. Hainbat gertaera garrantzitsuri buruz ere hitz egiten dute, hala nola San Antonio ontziaren etorrera Magallanes itsasartean desertatu eta gero, edo Victoria ontzia iritsi zen unea, munduaren inguruko bira eman eta gero.

XIX. mendetik gaur egun arte hainbat autorek bildu eta transkribatu dituzte dokumentu horiek. Istorio hau ezagutu nahi izan dutenentzat eta ezagutu nahi dutenentzat erreferentziazko hiru lan haundi daude:

Martin Fernandez de Navarrete¹⁴ itsasgizon eta historialari errioxarrarena, Jose Toribio Medina¹⁵ historialari eta bibliografo Txiletarrarena eta Filipinetako Tabako Konpainia Nagusiarena, Filipinak¹⁶ aipatzen dituzten Artxiboko dokumentuen bilketa zehatza egin baitzuen 1918 eta 1923 artean. Aipagarriak dira baita ere Sevillako Indietako Artxibo Nagusiko ofizial Vicente Llorens¹⁷-en lanak eta Pablo Pastells¹⁸ jesuitarenak.



1. Irudia. Martin Fernandez de Navarrete-ren (1765-1844) espedizioari buruzko liburuaren azala

Duela gutxi, 2019-2022 Sevilla Herri Ekimeneko Cristobal Bernalek munduaren inguruko lehen birari buruz Indietako Artxibo Nagusian dauden hainbat dokumenturen transliterazio bikaina argitaratu du bere web orrian¹⁹.


Autore horiek egindako bilketak, dokumentuen transliterazioak eta Interneten eskuragarri egoteak posible egiten du munduaren inguruko lehen birari buruzko informazio gehiena ikertzaileek erabili ahal izatea. Bilduma horietatik ez dugu erabili edo aipatu datu berririk ematen ez duen dokumenturik. Lan hau egiteko kontsultatu diren dokumentuen zerrenda ikus daiteke bukaeran.

XIX. mende amaieratik, munduaren inguruko lehen biraren historiografiak aurrekaririk gabeko garapena izan zuen. Ehunka lan dira bidaieri, protagonistei eta horien ondorio nahiz parte-hartzeari buruz hitz egiten dutenak. Eta beraz, horrelako ezaugarriak dituen lan bat osatu gabe geratuko litzateke gaiari buruzko idatzi eta kontakizunez gain, eguneraketak eta balorazioak egin dituzten XX. eta XXI. mendeko autoreen erreferentziarik gabe. Euskaldunen artean Jose de Arteche azpeitiarra nabarmendu behar da lehendabizi, Gipuzkoako Aldundiko artxibozain eta liburuzaina, eta Juan Sebastian Elkanoren²⁰ biografia klasiko baten egilea. Elkanoren irudia aztertzeke nahitaezko erreferentzia da Artecheren lana, eta nahiz eta orain

dela mende erdi idatzia izan, gaurkotasuna mantentzen du.

Autore atzerritarren artean, lehenengo aipatu beharrekoa Stefan Zweig austriarra da; *Magallanes, el hombre y su gesta* izeneko lana idatzi zuen, espedizioari²¹ buruzko klasiko bikaina. Bere lanaren ardatza, izenburutik ondoriozta daitekeen lez, Magallanes da.

Mairin Mitchel britainiarrak bi liburu idatzi ditu munduaren inguruko birari buruz, batetik *Elcano, the first circumnavigator*²², gaztelaniara itzuli gabe dagoena, eta bestetik, *La odisea de Acurio*, Elkanorekin²³ itsasoratu zen kontramaisu bermeotarrari buruzko istorio nobelatua.



2 Irudia. Jose Artechek Elkanori buruz idatzitako liburuaren azala eta egilearen argazkia

Victor Maria Solak Elkanori buruzko biografia zabala idatzi zuen, 1962an argitaratu zen eta Bizkaiko Aurrezki²⁴ kutxaren saria jaso zuen.

Ignacio Fernández Vial eta Covadonga Fernández Morentek Victoria naoari eta lehen zirkumnabigazioari²⁵ buruz oso ondo dokumentatutako lana argitaratu zuten 2001ean. Munduaren inguruko lehen itzulian sakondu nahi duen edonorentzat irakurri beharreko lana da, dokumentazio eta datu ugari eskaintzen baititu.

Carlos Barreda Aldamiz-Echevarria santurtziarrak 2001ean argitaratu zuen *Nova imago mundo* izeneko liburua, eta bertan munduaren inguruko lehenengo birari buruz hitz egiten du, itsasgizon²⁶ baten ikuspegitik kontatua.

Manuel Lucena Salmoral, Alcalako Unibertsitateko Amerikaren Historiako katedradunak Elkanori²⁷ buruzko biografia eguneratua argitaratu zuen 2003an. 2017an Jose Manuel Nuñez de la Fuentek *Diario de Magallanes*²⁸ liburua argitaratu zuen 2017an.

2003an Laurence Bergreen iparramerikarrak *Magallanes. Hasta los confines de la tierra* biografia argitaratu zuen.

Autore espainiar garaikideen artean berariazko pisua dute zenbait izenek. Jose Luis Comellas, Historia Moderna eta Garaikideko katedradun emeritua Sevillako Unibertsitatean, munduaren inguruko lehen

birari²⁹ buruzko libururik onenetakoa eta interesgarrienetakoa argitaratu zuen 2012an. Bere ezagutza sakon eta estilo arin batekin, abentura hari buruzko begirada desberdin bat eskaintzen du, eta gainera, zenbait alderdi berri nabarmentzen ditu, hala nola meteorologia, haizeak, ozeanografia eta astronomia.

Orain gutxi, 2016an, Madrilgo Ontzi Museoko Fundazioak “*Desvelando horizontes. La circunnavegación de Magallanes y Elcano*”³⁰, lan zabala argitaratu du, munduaren inguruko lehen birak izan zuen eraginaren eguneraketa.

Laurogeita hamargarren hamarraldi erdialdean interneta indarrez sartu zenetik, ikerketa historikoaren berri izateko modua aldatu da. Egun, munduaren inguruko lehen itzuliari buruzko dokumentazioaren zati handi bat sarean dago, ikertzaile guztientzat eskuragarri berehala, dohain eta etxetik mugitu gabe. Google Books eta Internet Archive dira horien erakusgarri. Zenbait argitalpen interneten bakarrik aurki daitezke gainera, adibidez, Javier Angel Almazanek lehenengo zirkumnabigazioari buruzko alderdi kliniko-sanitarioei buruz egin zuen doktore tesia³¹.

Internet bidez denbora errealean edo aurrez grabatuta eskuragarri ditugu hitzaldi, kongresu, bilera eta erreportajeak, mila kilometrotako distantziara eginak eta gertatu zena hobeto ulertzen laguntzen dutenak.

Era horretan ikusi eta entzun ditzakegu, besteak beste, Ignacio Gallup-Diazen “*Great Voyages: Ferdinand Magellan, Our one true guide: the first circumnavigation of the globe*” hitzaldia, Pennsylvaniako³² Unibertsitatean eman zuena 2013ko azaroaren 6an. Edo Manuel Romero Tallafigoren hitzaldia, *El testamento del navegante Juan Sebastián de Elcano*, 2015eko azaroaren 20an eman zuena Rotan (Cadiz)³³.

Begirada V. mendeurrenean jarrita, 2018an zehar kontaezinak izan dira argitalpenak, erakusketak, kongresuak eta ekitaldiak, eta baita ere gertakari hura gogoratze-ko abian jarri diren egitura eta erakundeak ere. Martxoaren 20tik 22ra Valladoliden ospatu zen “*V Centenario de la Primera Vuelta al Mundo*” nazioarteko kongresuak Magallanes-Elkano espedizioa gertakari berrienak eguneratzeko balio izan zuen.

2019. urtean zehar eta 2022ra arte, ekin-tza horiek guztiak bolumen handia hartuko dute, eta beraz, gertakari hartan sakonduko da, datu eta ikuspegi berriak ezagutuz. Horregatik, ikerketa lan hau jarraipena izateko helburuarekin idatzi da, eta beste azterlan batzuen abiapuntua izan nahi du, hemen zirriboratu baino egin ez diren alderdiak sakon azter daitezten.

Kontakizunaren hasieran Victoria naoa Sanlucar de Barramedara iristen da, hemezortzi gizon gose eta gaixo daramatzala, hiru urteko itsas bidaian munduaren inguruko lehen bira eman eta gero. “*Espeziaren bila*” kapituluak espedizio haien eta

Aurkikuntza Garaiaren zergatia ulertzen laguntzen digu: espezie preziatu haien bila joatea hain zuzen, horien balioak merezi baitzituen bidaia haietan egiten ziren inbertsioak. “*Ontzigintza Bizkaian eta Gipuzkoan*” kapituluak berriz, hainbat mendetan Euskal Herrian ontzigintzak izandako eraldaketa prozesua azaltzen du, teknologikoki oso aurreratuak ziren ontziak eraikitzea lortu zuten, Atlantiar ozeanoan nabigatzeko egokituak. Era berean, horrek eskatzen du burdinaren ustiaketa garatzea, burdinolak eraikitzea, basoetan lan egitea egur egokia prestatzeko, ibaiertzeko ontziolak eraikitzea, Atlantikoko eta Mediterraneoko aurrerapen teknikoak integratzea, eraikuntza teknikak hobetzea eta, bereziki, teknikari, arotz eta bikeztatzaile bikainak izatea, horiek baitira eraldaketa horren egileak.

Hirutik seira bitarteko kapituluek osatzen dute lanaren ardatza. “*Euskaldunak Sevillako Kontratazio Etxean*” kapituluak erakusten digu euskaldunek Sevillan izan zuten garrantzia; Amerikaren aurkikuntzarekin Indietako Itsasbidean Kontratazio Etxea kontrolatu zuten, eta presentzia handia izan zuten lehen zirkumnabigazioan. “*Armadaaren prestakuntza*” 1518ko uztailetik 1519ko abuztura ematen den prozesua da. Denbora horretan naoak erosi ziren, Kontratazio Etxeak erabaki garrantzitsuak hartu zituen eta espedizioa abian jarri zen hainbat arotz, bikeztatzaile, itsasgizon, maisu, kontramaisu, garraiolari eta Euskal Herritik zetorren materialaren hornitzaileen parte hartzearekin.

“*Euskal espediziokideak*” kapituluak espedizioan itsasoratu ziren 31 espediziokide euskaldunen berri zehatza ematen digu: nongoak ziren, nor ziren beraien gurasoak, emazteak, nongo herritarrak ziren, zenbat kobratu zuten, zer untzitan itsasoratu ziren, zer lanbide zuten, bidaian hil ote ziren eta zer arrazoiengatik, eta beraien patua. “*Bidaia, Sevillatik Moluketara*” kapituluak bidaia-
ren lehenengo zatia kontatzen du, arreta berezia jarritz euskal eskifaikideak parte hartzen duten gertaeretan. “*Elkanoren garaia, itzulera*” kapituluak garai guztietako itsas balentria handienetako bat deskribatzen du, Victoria naok Moluketatik Sevillara bakarrik egindako bidaia. Era guztietako nekeei aurre eginez, aurkako haize eta korronteekin, eskorbutoak eta goseak eragindako hilotz andana utziz, eta bost hilabeteen lurrik ukitu gabe, Victoria naoa, Elkanoren aginduetara, Sanlucar-era iritsi zen.

“*Itzulearen ondoren*” kapituluak labur deskribatzen du itzuli ziren espediziokideei buruz dakiguna. “*Juan Sebastian Elkano*” euskal kapitainari buruzko hausnarketa pertsonalagoa da, bere buruzagitzari eta itsaso nahiz gizonen ezagutzari buruz. “*Ondorioak*” kapituluak ixten du kontakizuna.

Eskertzetan nire lehenengo aipamena Rafael Escobedorentzat da, Nafarroako Unibertsitateko Arte Liberalen Institutuko historiako gradua lortzeko lan honen zuzendaria. Bere ilusio eta parte-hartze gogotsu eta eskuzabalagatik ez balitz, lan hau ez

litzateke izango dena. Egon daitezkeen akatsak nireak bakarrik dira.

Nire bigarren esker ona Pilar Latasarentzat da, Nafarroako Unibertsitateko Amerikaren Historiako irakaslea eta lan hau epaitu zuten epaimahaiko lehendakaria, lana berridaztera eraman nauten proposamen bikain eta egokia egiteagatik.

Donostiako Euskal Itsas Museoko zientzia zuzendari Xabier Alberdiri eskertu nahi diot lan hau hobetzeko eskaini didan denbora. Gure itsas historiari buruz duen jakinduria, munduaren inguruko lehen itzulia ematea ahalbidetu zuten itsasontzi haiek eraikitzeke moduari buruz eta mende haietako historiari buruz dituen ezagutzak laguntza handikoak izan dira niretzat. Euskal Itsas Museoa ere nabarmendu nahi dut, iragan hori ezagutzera emateko egiten duen lanagatik.

Alvaro Aragon, Euskal Herriko Unibertsitateko Erdi Aroko eta Aro Berriko Saileko irakasle agregatuak lanaren azterketa zehatza egin du, oso baliotsuak izan zaizkidan ekarpenak eginez, eta horregatik oso esker-tuta nago.

Aipamen berezia egin nahi diet ikertzailerei, urteetan zehar abentura horri buruzko dokumentazioa duten artxiboetan lan egin zutelako, bereziki Indietako Artxibo Nagusian, gertatu zena ezagutzeko aukera eman diguten materiala eta dokumentuak transkribatu, bildu eta ondoren iritsi garenon

eskura jartzeagatik. Horien artean daude Martin Fernandez de Navarrete, Jose Toribio Medina, Vicente Llorens, Pablo Pastells, Amando Melon, Filipinetako Tabakoen Konpainia Nagusia eta, berriki, Cristobal Bernal, Iniciativa Ciudadana Sevilla 2019-2022 ekimeneko kidea.

Esker oneko zorra dut baita ere istorio honekin maitemindu eta idatziz jarri zuten historialari, idazle eta nobelagile guztiekin, espedizioari buruzko hausnarketak eginez, pasio askorekin. Jose de Arceche, Jose Luis Comellas, Ignacio Fernández Vial, Covadonga Fernández Morente, Carlos Barreda Aldamiz-Echevarria, Juan Gil Fernández, Gabriel Sanchez Sorondo eta Manuel Lucena dira horietako batzuk. Beraien idatzietan aurkitu nuen azterlan honekin aurrera egiteko inspirazioa.

Lan hau ezin izango zatekeen argitaratu Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Elkano 500 Fundazioaren eta Kutxa Fundazioaren laguntzarik gabe. Hori dela eta, nire esker ona Ahaldun Nagusiorde eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteri eta Kiroletako Ahaldun Denis Itxasorentzat; Euskal Itsas Museoko zuzendari Raul Perez de Iratxetarentzat eta *Elkano 500 Fundazioko* zuzendari Ion Irurzunentzat.

Azkenik nire esker ona eman nahi diet Sevillako Indietako Artxibo Nagusiko profesionalei, Donostia, Getaria eta Zarauzko Udal Liburutegietakoei, Donostiako Koldo

Mitxelenari, Donostiako San Telmo Museoari, Donostiako Euskal Itsas Museoari, Madrilgo Untzi Museoari, Madrilgo Espainiako Liburutegi Nazionalari, Gasteizko Santxo Jakitunaren Fundazioari, Euskadiko Artxibo Historikoari eta Gasteizko EHUko Koldo Mitxelena Liburutegiari.

Guztiei nire esker onik zintzoena.

Zarautz, 2019ko ekaina

| victoria naoaren etorrera |

1522ko irailaren 6an ontzi korrokoil bat iritsi zen Sanlucar de Barramedara, Victoria ontzia zen, munduaren inguruko lehen bira eman eta gero bueltan zetorrena. Ontziaren txopan Juan Sebastian Elkano, 36 urteko getariarra, gizateriaren historiako une garrantzitsuenetako baten protagonista.

Ontziaren bizkarrean, Juan Acurio kontramaisua, 28 urteko Bermeotarra. Bere borondate eta irmotasunari eskerrak lortu zuen goseak jota, ahituta eta gaixorik zeuden hamazortzi gizon haien azken indarrak ateratzea portura iristeko.

Trapan, masta nagusiaren goiko puntan, kresalagatik begiak erreta eta hilabeteetako ahalegin izugarriak akituta, Juan de Arratia itsasmutil Bilbotarra, oraindik 18 urte bete gabe zituen.

Tripulazioaren artean, Juan de Zubileta gaztea, 12 urte zituela Barakaldoko Burtzeña jaioterritik irten zen Sevillara joateko. 13 urterekin Magallanes-Elkano espedizioan itsasoratu zen eta 16 urterekin itzuli zen lurraren mugetara bidaiatu eta gero, baina baita giza arimaren sakontasun ilunetara ere.

Iritsi bezain laster, Sevillako Kontratazio Etxeari berri eman zitzaion, espedizio haren antolatzailea baitzen. Berehala, Etxeko hiru ofizialeetako batek, Durangoko Domingo de Ochandiano diruzainak hain juxtu, hainbat agindu eman zituen. Lehendabizi txalupa bat erosteko agindu zuen, naoaren zerbi-

tzura jartzeko, izan ere, Victoria naoarena portugaldarren esku geratu zen Cabo Verden, hamahiru espediziokide preso hartu zituztenean. Erositako txalupa Martin de Goicoechearen *“difunto que Dios haya”* ontziarena zen, Guadalquivir ibaiako Horcadas inguruan galdu zena.

Bigarren agindua hamabost itsasgizon kontratatzea izan zen, guztiz nekatuta zegoen tripulazioari Guadalquivir ibaian gora egiten laguntzeko, Sevillara iritsi arte. Hainbat elikagai erosteko agindu zen: 75 ogi, 192 litro ardo, behi laurden bat eta meloiak, gizon haiek elikatzeko. Azkenik, erregearen eskribau Juan de Huguibari (jatorriz azpeitiarra dela uste da) agindu zitzaion Elkanoren ondoan geratzeko zaintza lanak egiten naoaren sarreran, eta ez uzteko inori sartzen, ezta ontzitik ezer ateratzen ere, ontziaren sotoan 24.000 kg. iltze baizeuden, balio handiko espeziea.

Egun batzuk geroago, Domingo de Ochandiano bera egin zen iltzearen kargu, eta baita ere arma eta ontziko beste hornidura batzuen. Juan Vizcainok zenbait ordainketa egin zituen, eta Domingo de Ibarrola itsasgizonak 544 marabedi jaso zituen Victorian egindako lanagatik.

Sarrerako lerro hauetan antzeman dezakegu ia munduaren inguruko lehen bira eman zuen espedizio hartan euskaldunek izan zuten garrantzia, Aurkikuntzen Garai-ko espedizioetan egitura, postu eta lanbide ia guztietan aurkitzen baititugu.

1. Kapitula

ESPEZIEN BILA

Munduaren inguruko lehen itzuliaz hitz egitean, lehendabizi, espedizioaren azken helburua, arrazoi nagusia aipatu behar da: ekialdeko espezieak bilatzea. Aintzinatik, espezieak, eta bereziki azafraia, kanela, iltzea, jengibrea, intxaur muskatua eta piperra ongarri bezala erabiltzen ziren elikagaiekin eta baita elikagaiak kontserbatzeko ere.

XV. mende amaieran dieta orain baino askoz ere murriztagoa zen. Irinekin egin-dako elikagaiak jaten ziren batez ere: garia, zekalea, garagarra, oloa eta artatxikia. Jatordu ohikoena barazki zopa argi bat

izaten zen, ogi zatiekin osatzen zena, eta oso gutxitan jaten zen haragi freskoa³⁴.

Erdi Aroan Ekialde Urbileko barazki eta fruta asko ezagutzen ziren Europan, besteak beste alberjiniak, orburuak, meloiak, abrikotak eta laranjak. Amerika aurkitu zenean, Europara iristen hasi ziren Mundu Berritik artoa, hainbat patata espezie, babarrunak eta indabak, tomateak eta espezie berriak, adibidez, piperra, banilla, kakaoa, txokolatea, tabakoa eta zenbait fruta, piña esate baterako. Produktu horiek ez ziren modu berdinean hedatu Europan, batzuetan oso azkar, artoa kasu, eta bestetan poliki, patata adibidez³⁵. Baina 1492a baino lehen ezezagunak ziren europarrentzat.

Ez zegoen hozkailurik eta elikagaiak ez ziren ondo mantentzen. Hori eragozteko, aberatsenek espezieak erabiltzen zituzten, eta gainera, elikagaiei zaporea ematen zieten, baina beste propietate asko ere egozten zitzaizkien. Alkimista askok beren formuletan erabiltzen zituzten. Gainera, ohikoa zen nobleek kondimentuak erabiltzea alkohol-dun edarietan, batez ere ardoan eta garagardoan³⁶.

Espezieak urrutiko irla mitikoetan sortzen ziren, Moluketan, egungo Indonesiako Errepublikan. Europako aberatsen mahaietara iristeko bidea zaila zen. Mendetan zehar bi bidetatik iritsi ziren gure kontinentera: lurrez, Asia Erdialdea zeharkatuz, edo itsasoz, Indiar ozeanotik; horregatik oso prezio altuak izaten zituzten.




3. Irudia- Espezieak eta Ekialde Urruneko beste produktu batzuk. Nabigazioaren pabiloia. Sevilla.

Turkiarrak iritsi zirenean eta 1453an otomandarrek Konstantinopla hartu zutenean, are zailagoa bihurtu zen produktu horiek mendebaldera ekartzea, eta orduan, espezien irletara iristeko bide berriak bilatzen saiatu ziren, batez ere itsasoz. Moluken bila, Cristobal Colonek Amerika aurkitu zuen 1492an.

Ahalegin horretan, 1488ko urtarrilean, Bartolome Diazek Esperantza Oneko lurmuturra igaro zuen lehenengo aldiz. 1498an Vasco de Gama Calicut-era iritsi zen, Indiako hego-mendebaldean. Itzulera oso zaila izan zen, montzoiaren aurka, eta itsasoratu ziren 255 eskifaikideetatik 60 bakarrik iritsi ziren bizirik Lisboara hurrengo urtean.

1502an Vasco de Gama Calicutera itzuli zen 20 gerra-ontziekin eta ia bi mila gizonekin, eremuan portugaldarren nagusitasuna ziurtatzeko. 1505ean Francisco de Almeida espedizio berri batean atera zen, Magallanesekin batera, eta Goa konkistatu zuten, Indian, eta baita Malaka ere, Malasian, estrategikoki kokatua dagoen Ekialdeko portu handia.

Behin Malakan egonda, portugaldarrek informazio zehatzagoa zuten ekialderago zeuden irla batzuetan, Moluketan hain juxtu, hazten ziren espezien jatorriari buruz, zenbait merkatarik Malaka hiriraino garraiatzen baizituzten. Eta horrela, 1511an, Francisco Serrao espezien irletara iritsi zen.



*4. Irudia- Portugal eta Gaztelakoen bidaiak
Magallanes-Elkano baino lehen*

Orduan, espezien merkataritza portugaldarren esku geratu zen eta Lisboa izugarritzko irabaziak ematen zituen negozio baten erdigunea bilakatu zen. Elkano Moluketara iritsi zenerako, portugaldarrek hamarraldi bat baino gehiago zeramaten espezieak itsasontzietan ekartzen.

Iltzea zen espezie horietako bat, eta gure istorioko protagonistetako bat ere bada, prezio handiena zuen espeziea zelako eta garraiatzerakoan toki gutxien behar zuena³⁷. Txinatarrek iltzea inportatzen zuten, eta propietate sendagarriak zituela esaten zuten. Elikagaiak gozatzeko ere erabiltzen zuten, eta hatsa eztitzeko. Europarrek iltzeari beste erabilera batzuk ere aurkitu zizkieten: begietan igurtziz gero ikusmena

hobetzen zuela uste zen, eta hauts bihurtuta kopetan emanez gero, kalentura eta hotzeria arintzen zituela uste zen. Janariari gehituta, maskuria estimulatzen zuela uste zen, eta kolona garbitzen zuela. Esnearekin hartuz gero sexu harremanak hobetzen zituela esaten zen. Miraritsua zen, balio handikoa eta zoragarria alderdi guztietan³⁸.

Magallanes-Elkano espedizioko kronikari Pigaffetak iltzea sortzen duen zuhaitza deskribatu zuen Moluketara iristean; zuhaitzaren garaiera eta lodiera nabarmendu zituen, eta bere hostoak erramu hostoaren antza zuela aipatu zuen, iltzeak adartxoan muturrean hazten zirela eta urtean bi aldiz biltzen zirela, gabonetan eta San Juanetan³⁹.

Espediziokideak Moluketara iritsi zirenean, iltze bahar bat, hau da, lau kintal (184 kg), bi dukaten saltzen zen (750 marabedi), iltze⁴⁰ kg. bakoitza lau marabedi⁴¹ beraz.



5. Irudia- Iltzea

Elkanok 524 kintal iltze ekarri zituen Victoria naon⁴² (24.000 kg. inguru), eta bere salmentatik 8.680.555 marabedi lortu ziren, iltze kg. bakoitza 362 marabediren truke saldu zen beraz. Espedizioko gastuen zenbatekoa 8.334.335 zen, eta horrenbestez, 346.220⁴³ marabediko irabaziak lortu ziren. Kontuan hartuta hori 102 tonako nao⁴⁴ batekin lortu zela, imajina dezakegu zenbateko irabaziak lortu ahalko ziren bost ontziak iltzez beteta itzuli balira, guztien artean 576 tona batzen baizituzten.

Espedizio haietatik onura ateratzen zutenak ez ziren erregea, administrazioa eta babesleak bakarrik, baita ere espediziokideak, bidaietan eramaten zituzten objektuak espeziengatik trukatzeko baimena izaten baitzuten. Itsasgizon batek espeziez betetako zakutxo bat ekartzea lortzen bazuen, iltzea edo intxaur muskatua adibidez, horien salmentatik lortutako irabaziekin etxetxo bat erosteko aukera izaten zuen. Baina kapitain batek helburu haundiagoak zituen Aurkikuntzen Garaian, ez bakarrik ospea eta aberastasunak, baita ere bere ondorengoei oinordetzan uzteko noblezia-tituluak eta beren agindupeko lurrak⁴⁵.

Itzultzea lortu zuten Magallanes-Elkano armadako espediziokide guztiak arazo ekonomikorik gabe bizi izan ziren bizitza osoan⁴⁶. Victoria naoa Sevillara iritsi zenean espediziokideek deklaratu zutena kontatu zen. Elkanok iltze eta altsumaz betetako zaku bat ekarri zuen, 6 arroa eta 15 libra

pisatu zituen (76 kg), eta baita iltze kaxa bat ere, hiru zakutan banatu ondoren 16 arroa eta libra bat (184 kg)⁴⁷ pisatu zuena.

Guztira 260 kg iltze ekarri zituela deklaratu zuen Elkanok, eta horren balioa 94.000 marabedi izan zitekeen gutxi gorabehera. Baina horrez gain, hainbat loreontzi zituen saskitxo bat entregatu zuen maziakin (intxaur muskatuaren azala), intxaur muskatu eta kanelarekin, sandalo makila handi batekin eta iltze adarkadura bat, palmaz estalia. Erregearentzako espezie desberdinen laginakin betetako kaxa txiki bat ere ekarri zuen, iltze, kanela eta beste gauza batzuekin⁴⁸.

Zirkumnabigazioa amaitu zuten gainontzeko euskaldunek ere espezieak ekarri zituztela deklaratu zuten. Juan de Acurio kontramaisuak adierazi zuen iltzez betetako zakutxo bat ekarri zuela, 2 arroa eta 5 librako pisuarekin (25,3 kg), baina dirudinez puskatua zegoen, eta bere balioa 9.158 marabedi zen. Juan de Arratiak 13 libra (6 kg) pisatzen zituen zakutxo bat ekarri zuen, iltzeekin beteta, 2.172 marabediko balioa zuena. Juan de Zubiletak 10 librako (4,6 kg) poltsa bat zeraman, 1.692 marabediko balioa zuena⁴⁹.

Halere, oso litekeena da ekarritako kopuruak handiagoak izatea. Badakigu, Magallanes-Elkano armadak, Moluketatik irteteko egindako lehenengo saiakeran, 1521eko abenduaren 18an, 1.200 kintal (55.200 kg) kargatu zituela Trinidad naotan erregearentzat, eta 200 (9.200 kg) espedi-

ziokideentzat; Victoria ontzian 800 kintal (36.800 kg) kargatu ziren erregearentzat, eta 200 (9.200 kg) espediziokideentzat, nahiz eta gero zamaren zati bat kendu egin zen⁵⁰.

Espediziokideek onura osagarri bat lor zezaketen “kintalada” eskubideari eskerrak. Ordaintzeko modu bat zen, eta eskifaikide bakoitzari eskubidea ematen zion ontzian espazio bat izateko merkantziak trukatzeko, espeziengatik adibidez, espazio horietan ekartzen zituztenak itzuleran. Merkantzia horiek ez zuten pleit-a ordaintzen, baina bai %5eko zerga (“*una cuarta e veintena*”) erregeari.

Kintalada horiek eskifaikideen ordainsariaren zati garrantzitsu bat izan ziren ozeano Barera egindako espedizioetan. Carlos I.ak Magallanesi emandako jarraibideetan zehaztua zegoen espedizionario bakoitzak ekar zezakeen kopurua, lanbide-kategoriaren arabera. Kapitain bati 40 kintalada zegozkion, maisu bati 14, kontramaisu bati 10, despentsariei 3, arotz eta bikeztatzailei 2,5, itsasgizonei 2, itsasmutilei 1,5 eta mutilei 3 arroa⁵¹. Itzultzean, Elkanok 114.707 marabedi kobratu zituen maisu eta kapitain soldatari zegozkionak, eta 508.720 marabedi kintaladengatik⁵². Pedro de Tolosa gipuzkoarrari 1523an ordaindutako soldata dela eta, despentsaria izateagatik kintaladan abantaila izan zuela adierazten da⁵³.

Gaztelako administrazioak ondo eza gutzen zuen espezien balioa, eta horregatik berak bakarrik babestu nahi izan zuen



6. Irudia- Carlos I.a erregeak Elkanori emandako arma ezkutua eta bere sinadu

espedizioa, izan ere espedizioaren antolaketan arriska zitekeena gutxi zen lor zitezkeen onurekin alderatuta⁵⁴. Baina diru-funtsik ez zegoenez, 1519ko apirilaren 6an Cristobal de Haro merkatari burgostarrari baimena eman zitzaion enpresa 2.000 dukatekin (750.000 marabedi)⁵⁵ finantzatzeko, eta gainera, kopuru hori 1.880.126 marabedira igo zen geroago (espedizioaren kostu osoaren %22,5a)⁵⁶. Horren eta beste zenbait inbertsioaren ordainetan, Harok Victoria ontziak ekarritako iltze kargamentu guztia jaso zuen⁵⁷.

Espeziei ematen zitzaien garrantzia benetan handia zen, eta horren adierazgarri da espediziotik itzultzean erregeak Elkanori emandako ezkutuan, *Primus circundedisti me* goiburuarekin batera ageri diren bi kanela zotzak gurutze moduan jarriak, eta hamabi iltzeak.

2. Kapitulua

ONTZIGINTZA BIZKAIAIAN ETA GIPUZKOAN

Behe Erdi Aroan, merkataritza izan zen ontzi eraikuntzaren eta garapenaren eragile Euskal Herrian. Merkataritza harremanak ezartzen dira Ingalaterra, Normandia, Flandria, Hansa, Portugal eta Andaluziarekin, Mediterraneora iritsiz⁵⁸. Garai horretan eta aurreko mendeetan euskal garraiolari, merkataria eta marinelek zuten sendotasunaren berri ematen digu horrek.

XV. eta XVI. mendeen arteko trantsizio unea, Erdi Aroaren eta Aro Garaikidearen arteko trantsizioa alegia, nabigazioaren urrezko aroa da Gipuzkoa eta Bizkaiarentzat. Eta hori guztia biztanleriari dago-kionez txikia den herrialde batean gertatu zen. XVI. mendea hastean, hiru lurralde euskaldunetan biztanleria antzekoa zen, 60-70.000 biztanle inguru bizi zen bakoitzean, eta beraz, guztira, 180-210.000 biztanle ziren⁵⁹. Halere, biztanleria dentsitatea Gipuzkoan eta Bizkaian %50 handiagoa zen Araban edo Gaztelan baino⁶⁰.

Garai hartan Gipuzkoan eta Bizkaian ontzi bikainak eraikitzen ziren eta bertako itsasgizonek ospe ezaguna zuten⁶¹. Erdi Aroan ontzigintzan egin ziren aurrerakuntzak dira egoera horren jatorria eta aurrerariak. Garapen horren azken arrazoia lurraldearen txirotasuna izan zen, Artechek dioen bezala eta beste hainbat autorek berretsi duten lez⁶²:

“Beharra da, batez ere, nabigatzera eramaten duena. Guk ezagutzen dugun herrialdea orain mende batzuetako herrialdearen oso bestelakoa da, hein handi batean baso iraganezinez estalia, nekazaritza eta artzaintzarentzako ingurune eskasekin”⁶³.

Ideia horri heltzen dio Caro Barojak ere, Gipuzkoa eta Bizkaiak kalitate handiko egurra eta burdina zituztela nabarmenduz, eta horrek itsasora begira jarri zituen:

“herrialdearen txikitasun edo estutasuna, burdinan aberatsa izatea, garai bateko basoen oparotasuna eta bere egoera geografikoa dela medio, Erdi Aroko une jakin batetik Aro Garaikidera arte, euskaldunak ur handitako arrantzale eta olagizon nabarmenak izan dira, eta baita ere itsasgizonak, egurrezko itsasontzi egileak eta industrialariak orokorrean. Itsasoak, basoak eta burdinak modu erabakigarrian baldintzatu zuten euskal bizimodua”⁶⁴.

Burdinolak eta olagizonak

Burdinaren ustiaketa ohiko bizimodua izan da Euskal herriko biztanleentzat. Jarduera ekonomiko horren garapenerako elementu erabakitzaileak izan ziren ikatz begetala ekoizteko burdin eta egur ugari izatea eta eskulana ere ugaria izatea⁶⁵. Metalurgiaren sektoreko bezero garrantzitsuenetako bat, XV. mendeaz geroztik behintzat, ontzigitzaren industria izan zen, eta hiru elementu mota eskatzen zituzten gehienbat: artilleria eta munizioak, iltzeak eta aingurak⁶⁶. Euskal siderurgiaren historia nabigazioarekin batera doa nolabait.

Gipuzkoako eta Bizkaiko burdinolen ekoizpena Europa kontinente osoan lortutako burdinaren %10 eta %15 artekoa zen, eta mineralaren hornitzaile nagusiak Somorrostroko meategiak ziren⁶⁷. Gipuzkoan bakarrik, XVI. mende hasieran 110 burdi-



7. Irudia- Mirandaola burdinola
Legazpin (Gipuzkoa)



8. Irudia- Victoria naoko ainguraren erreplika⁷⁴

nola zeuden, urtean batez beste 1.250 kintal ematen zituztenak⁶⁸. Bizimodua bertatik ateratzen zuen biztanleriaren %20ak gutxienez, zuzenean edo zeharka bazen ere⁶⁹. Ekoizitakoaren zati handi bat esportatu egiten zen, eta gainontzekoa ontzigitza industriako edo armen industriako ezinbesteko elementuak eraikitzeke erabiltzen zen⁷⁰.

Iltzeak eta burdina siderurgia-eskulana-
ren zati oso garrantzitsua izan ziren. Bilbo ainguren ekoizpenean nabarmendu zen⁷¹. Ez da hutsala gogoraraztea 200 eta 400 tona arteko itsasontzientzako aingura handien pisua 500 eta 700 kg. artekoa izan zitekeela⁷². Esan genezake salgai horiek eta armak ekoizteko erabiltzen zela berehala esportatzen ez zen burdin komertzial gehiena⁷³.

Ontzigintzaren bilakaera

Kantauriar isurialdeko ontzien sustrai eskandinaviarra ukazina da; ontzigintzako tekniken transmisioa XI. eta XII. mendeetan gertatu zen merkataritza normandiarrekin izandako harreman komertzial eta sozialen bidez, azken horiek Baionara joaten baitziren Frantzia eta Ingalaterrako kostatik⁷⁵. Horregatik, mende horietan euskal naoek nordikoen antz handia zuten eta arraunen bidez mugiarazten zituzten, nahiz eta haizeak aldekoak zirenean, masta eta oihalak ere erabiltzen zituzten. Masteria finkorik ez zutenez, ez zuten ontzigainik, arraun-lema zuten⁷⁶ eta branka zein txopa berdinak ziren⁷⁷.

XIII. mendean Kantauriar isurialdeko itsasontziak aldatzen joan ziren, arraunak edo oihalak erabiliz baldintza meteorologikoen arabera. Mende horretako beste berrikuntza handia belauntzia izan zen, haizearen indarrarekin bakarrik mugitzen zena, eta horixe izan zen garai hartako gainontzeko eraldaketak baldintzatu zituen faktorea⁷⁸. Oihal bidezko nabigazioak zenbait arazo ekarri zituen eta horiei irtenbidea aurkitu behar izan zitzaizen, bereziki kabotajeiko nabigaziotik (itsasbazterretik lurra bistatik galdu gabe) itsas zabaleko nabigaziora pasa nahi zenean, batez ere haizearen norabidearen aurka egiten zenean.



9. Irudia- XI. eta XII. mendeetako euskal naoak nordikoen antzekoak ziren

Haizearen norabidearen aurka nabigatzeko esan nahi du ontzia haizebetik⁷⁹ eskoratzen dela, horrek ontzia urez betetzeko duen arriskuarekin. Irtenbide bat emateko, ontzia iragazgaitza egin zen, gainaldea eraikiz. Masteria finkoa bihurtu zen arraunak erabiltzeko beharrik ez zegoelako. Arraun-lema ez zen egokia oihalekin nabigatzeko, eta beraz, korasta lema erabiltzen hasi zen, txopan jarriaz, eta aldi berean, arrazoi horregatik itsasontzietako txopak zuzena izan behar zuen. Azkenik, ontzien eta ontzigainaren tamaina handitzean, superegiturak eraiki ahal izan ziren, branka eta txopako gazteluak deituak⁸⁰.

Bilakaera horren ondorioz, XIV. mendeko ontziak XIII. mendeko ontzien desberdinak ziren. Oihalarekin bakarrik nabigatzeko itsasontziak eraiki ziren, tamainaz handiagoak, arraunen erabilera erabat baztertu zen eta korasta lema finkoa zen⁸¹. Horrek guztiak zenbait eraldaketa ahalbidetu eta bultzatu zituen eta horrela sortu ziren XV. mendeko itsasontzi handiak. Era horretan, XV. mendeko euskal flota Europako garrantzitsuenetako bat bilakatu zen bolumenari eta ezaugarri teknikoari dagokionez⁸². Garapen horri eskerrak euskaldunek protagonismo handia izan zuten ozeanoen zabalkundean.

Indietarako itsasbidea Kantauriar isurialdeko ontziekin hornitu zen batik bat, horiek partikular eta autoritateen gogokenak izateaz gain, Espainiako administrazioaren gustukoak ere baziren, eta XVI. mendean zehar Indietako itsasbidean parte hartzea debekatu zieten Kantauriar isurialdean eraikiak izan ez ziren itsasontziei⁸³. Eta beraz, 1534ko eta 1593ko errege zeduletan erabaki zen Indietako trafikorako erregistrorik ez ematea Andaluziako ontzioetan eraikitako itsasontziei, soilik Kantauriar isurialdean eraikitakoei⁸⁴. Chaunuk esan bezala, 1520 eta 1580 urteen artean Sevilla eta Amerika artean nabigatu zuten itsasontzien ehuneko handi bat Kantauriar isurialdean eraiki ziren, batez ere Euskal Herrian⁸⁵.

Casadok nabarmentzen du Sevilla zela itsas merkataritza gunea, monopolioa zuela

Amerikar merkataritzan eta etengabe irte-ten ziren espedizioetarako ontziak bertan prestatu eta armatzen zirela, baina arau ofizialak zirela eta, ontziak ezin zituzten bertan eraiki. Bazen horretarako arrazoi bat: itsasontzien kroskoek gai izan behar zuten denboran “broma” moluskuaren eraso jasateko⁸⁶. Neurri horiek justifikatzen zituen iparreko basoetatik zetorren egurra hegoaldekoa baino gogorragoa eta iraunkorragoa izatea kanpoko baldintzei aurre egiteko, eta hegoaldeko egurra ez izatea hain egokia ontzien zenbait zati eraikitzeko⁸⁷.

Beste hainbat arrazoi tekniko ere badaude, hala nola Kantauriar isurialdeko eraikitzaileen esperientzia, eta bereziki Euskal Herriko portuetakoa, bertan askoz garatuagoak baizeuden industria metalurgikoa, burdinolak eta, orokorrean, ontzigintza industriarentzat lan egiten zuten tailer txikiak eta hornitzaileak⁸⁸.

Laburbilduz, kantauriar kostaldean eta, bereziki, Euskal Herrian, ematen ziren baldintza egokienak ontzigintzarako: egur onak, burdinolak, artisau trebeak, esperientzia, zama-ontziak eta biztanleen marinel bokazioa⁸⁹.

Itsasontzien eraikuntza-industria berri-tzailea eta abangoardiakoa izan zen Kantauri ekialdean Erdi Aroko azken mendeetatik aurrera. Kosta horietako gizonak izan ziren ondoen bertakotu zituztenak kontinenteko bi ontzigintza tradizio handien elementu



- Hiru masta, oihal laukiak eta hiruko formakoak.
- Ontzīgaina eta soto iragazgaitza.
- Branka eta txopako gazteluak.
- Korastako lema.



- Oihal karratua eta arraunak.
- Branka eta txopa simetrikoak.
- Arraun-lema.

10. Irudia- Euskal naoen bilakaera
Erdi Aroan

eraginkorrenak: Mediterraneokoa eta atlantiarra. Dirudienez beraiek garatu zuten oihal bidezko propulsiio-sistema, eta horri eskerrak ozeanoetara zabaldu ziren. Oihal laukizuzeneko masta bakarraren ordeztu hiru erabili zituzten, eta mesanako mastan hiruki formako latindar oihalak erabili zituzten lema indartzeko biretan eta maniobra azkartzeko⁹⁰.

Euskal ontziolak

XII. eta XIII. mendeetan Gipuzkoa kostaldeko portu guztietan zeuden ontziolak. Dauzkagun dauten arabera, XVI. mendeko azken heren arte, itsasontzi gehien Zumaia, Deba eta Mutrikuko⁹¹ ontzioletan eraikitzen ziren Gipuzkoan. Zumaian hamaika ontziola izan ziren gutxienez, Deban bakarraz zegoen eta Mutrikun bi zeuden. Materialak erraz garraiatzeko moduko tokietan eraiki ziren, eraikuntzarako beharrezko baldintzak betetzen zituztenak, lurzoru laua eta sendoa zutenak egurra gordetzeko eta ontziak eraikitzeko, eta, gainera, ontziak uretaratzeko nolabaiteko segurtasuna bermatzen zuen tokia izan behar zuen.

1590. urtetik aurrera eta ondorengo mendeetan, Pasaia eta Oria ibaiertza izan ziren ezbaierik gabe itsasontzien eraikuntza gune nagusiak Gipuzkoan⁹². Lantegi horiez gain, lurraldeko beste toki batzuetan ere izan ziren ontziolak, hala nola Hondarribian, Irunen, Donostian eta Zarautzen. Gehienetan ontziolak behin behineko instalazioak izaten ziren eta eskarien arabera prestatzen eta kentzen ziren.

Bizkaian, XIII. mendeaz geroztik, ontzigintza garapeneko bi polo nabarmentzen dira kostaldean: Nerbioi ibaiertzak eta portu handienetakoak (Lekeitio, Bermeo eta Ondarroa). XIV. mendean, jaurreriko ontzi-paisaia, itsasontziak eraikitzeko hainbat gune daude. XIV. mendean Nerbioi

ibaiaren ikuspegia marinel herrien antzekoa da. Eraikuntza-jarduerak daude Ibaizabal, Ibeni, Ibarras, Zorroza eta Uribarrin⁹³.

XV. mendean Bilbon egoera aldatu egin zen. Gaur egungo San Anton zubitik Portugaletera arte harmaila, hondartza eta lantegi ilara bat zegoen. Orduz geroztik, Bilbo izan zen Bizkaiko ontzi eraikuntzaren gunea. Ontziolak behin behinekoak izan arren, aipa daitezke Ripa, San Mames, Zorrotza, Asua eta Abandoko ontziolak, eta guzti horietan handiena Zorrotzakoa zen⁹⁴.

Euskaldunen nabigatzaile ospeari buruz, XV. mendean Fernando del Pulgar-ek honela zioen, eta Nebrijak ia hitzez hitz errepikatzen du:

“los que moraban en aquel Condado de Vizcaya y en la provincia de Guipúzcoa son gente sabida en el arte de navegar y esforzados en las batallas marítimas e tenían naves e aparejos para ellos y en estas tres cosas que eran las principales para las guerras de la mar eran más instruidos que ninguna otra nación del mundo”⁹⁵.

Bikeztatzaileak eta urertzeko zurginak

Arotzak eta bikeztatzaileak ezinbesteko bi lanbide ziren itsasontziak eraikitzeko eta mantenu-lanetarako; langile gaituak ziren eta ondo ordaintzen zitzairen. Euskal langile horiei buruz hau zioen Escalantek 1575. urtean:

“No se puede negar que los mejores maestros y aderezados de madera, clavazón, brea y cáñamo que hay para esta fábrica de navíos es en Vizcaya y sus contornos, y en lo más general allí le dan a la mejor traza, cuenta y medida que puedan tener para mejor y con menos riesgo y peligro para poder navegar”⁹⁶.



11. Irudia- Bikeztatzailea bere lana egiten lehorreratutako itsasontzi batean

Ibaiertzeko arotzek itsasontzi bat erakitzeke behar ziren egurrezko piezak egiten zituzten. Gehienetan ontzioetan lan egiten zuten maisu baten aginduetara, eta itsasontziaren eraikuntza amaitu arteko kontratua izaten zuten. Itsasontzietan ere ontziratzen ziren mantentze-lanez arduratzeko.

Bikeztatzaileen taldea arotzena baino txikiagoa izan ohi zen, nahiz eta, askotan, lanbide hori ibaiertzeko arotz-lanei lotua egon. Egurren junturak itzupa eta brearekin ixten zituzten urik ez sartzeko. Prozesua nahikoa bakuna zen eta bi fasetan egiten zen; lehendabizikoan, azpiko, alboetako eta ontzigaineko egurren junturak itzuparekin betetzen ziren mazoarekin eta helburu horrekin erabiltzen ziren gainontzeko tresnekin (zeioak, mailuak, aizkorak eta ginbaletak) indarra eginez. Ondoren, bikeztatzaileak brea berotzen zuen eta jarraian geruza lodi bat jartzen zuen itsasontziko kroskoan, ontzigain eta masterdietan⁹⁷. Itsasontziek aldizkako mantentze-lanak behar izaten zituztenez, arotzak bezalaxe zenbait bikeztatzaile ere itsasontzian itsasoratzen ziren ontzia egoera onean mantentzeko itsas bidaiak irauten zuen denboran.

Naoak eta karabelak

XV. mendeko bigarren hamarralditik aurrera, espedizio portugaldarrak hasten diren garaia hain zuzen, nabigazioa hizki handiz egin ahal izateko beharrezko baldintza tekniko guztiak zeuden ia. Alderdi teknologikoari dagokionez, naoen diseinua asko hobetu zen, eta 1420-1440 urte inguruan, bolinara, haizearen norabidearen aurka, nabigatzeko nahikoa gaitasun zuten, itsasoz bestaldeko itsas bidaiak egiteko prest zeuden.

XV. mendean, Iberiar penintsulako Atlantiar kostaldeko marinelek ikasia zuten Mediterraneoko tradizioa eta prozedura eskandinaviarra bateratzen: alde batetik iparrorratza, itsasbide zehatzak eta datu taulak erabiltzen zituzten, eta bestetik kostatik gertuko urak etengabe aztertzen zituzten. Itsas zabalean nabigatzeak ez zien beldurrik ematen helburura iristeko itsasbidea ezagutzen zutenean eta, gutxi gorabehera, itsas bidaiak zenbat iraungo zuen zekitenean. Ozeano ezezagunetan zehar orientatzeko beharra izan zutenean sortu zen arazoa, beste era bateko ezagutza eta praktikak behar baizituzten.

XV. mende erdialdea baino lehen, portugaldarrek, Afrika mendebaldeko esplorazioetan lortutako esperientziari eskerrak, itsas zabaleko nabigaziora eramane zituen

behin betiko urratsa eman zuten, kalkuletan oinarritutako nabigaziora alegia, “a la estima”⁹⁸ bezala ezagutzen zena. Eta, portugaldarrak bezala, Kantauri isurialdeko itsasontziak ozeanoetara ireki ziren.

Nao eta karabelen aurrekariak kokak eta karrakak ziren. Kokak XV. mendeko berrikuntza handia dira. Toskanako Giovanni Villani kronikagilearen arabera, euskaldunek itsasontzi mota hori erabili zuten Mediterraneoan 1304. urtean, beraiek “koka” izenarekin ezagutzen zutena. Baionako katedraleko gangetako baten giltzarria apaintzen duen irudia koka bat da, eta korasta lemadun itsasontzi baten lehenengo irudietako bat⁹⁹.




12. Irudia. Baionako katedraleko gangetako baten giltzarria apaintzen duen koka baten irudia.

Karabela eta naoek funtsezko zeregina izan zuen Aurkikuntzen Aroan. Garai hartako ontziez hitz egitean aurkitzen dugun lehen arazoa terminologia da. Oso maiz, itsasontzi berari nao, galeoi, karraka edo karabela esaten zaio. Horiek eraikitzeke planoen edo prezioen berririk ez dugunez, zaila da egoera argitzea.

Karabela izango litzateke portugaldarrek Afrikako esplorazioetarako diseinututako itsasontzi mota berria. Itsasontzi txikiak ziren, gehienetan 80-100 tona baino gutxiagokoak, maniobratzeko errazak eta ezaugarri nagusia hiruki formako oihala zen, latindar oihala, arabiar itsasontzietan oinarritua. Ordura arte, itsasontzi europarrak, hala nola galerak, arraun edo oihal finkoekin mugitzen ziren. Ezaugarri horiekin eta sakonera txikiari eskerrak, karabela portugaldarrak zeharkako haizearekin nabiga zezaketen, baita aurrez aurreko haizearekin ere, gai baitziren 30 graduko norabidea mantentzeko haizearen noranzkoarekiko¹⁰⁰. Erabiltzeko errazak ziren oihalei esker, karabelak marinel itsasontziak ziren, eta horregatik, esplorazioetarako itsasontzi gogoenak bihurtu ziren¹⁰¹.

Garaiko marrazkietatik antzeman daiteke karabelek hogeita eta hogeita hamar metro luze eta sei eta hamar metro zabal neurtzen zutela eta metro bat edo bi urperatzen ziren; Karel baxukoak ziren eta hogeita hamar eta hirurogeita hamar tona artean eramaten zituzten. Naoak baino lerdin eta arinagoak



13. Irudia- Santa Maria naoko tolda eta toldilla

ziren beraz, eta portuan nahiz Itsaso barean, arraunarekin maniobra zezaketen¹⁰². XVI. mende hasieran karabela erabiltzeari utzi zitzaion, baina ezin da Atlantiar ozeanoko esplorazioen hasiera ulertu itsasontzi mota hori gabe.

Naoak berriz, zama azalera handitzeko beharrari erantzuten dio, merkantzia eta elikagai gehiago garraiatu ahal izateko. Horregatik, karabela baino handiagoa zela pentsa dezakegu; gehienetan 100 tonatik gora izango zituen, bi gaztelu, forma borobilduagoa, albo garaia eta oihal karratuak. Naoen eta karabelen arteko desberdintasun nagusia superegituran egongo litzateke: karabelak ontzigain bakarra du, eta naoak berriz, txopatik masta nagusiaren ingurura arte doan bigarren ontzigain edo tolda. Bigarren ontzigain horren azpian tripulazioarentzako ganbera bat dago. Toldaren gainean dago

kapitainaren, pilotuen eta maisuen ganbera dituen ontzigaina. Superegitura horiek bere edukiera handitzen dute, baina karabela ari-nak baino ezegonkorragoa eta erabiltzeko zailagoa bihurtzen dute¹⁰³.

Naoek hiru masta mardul zituzten, trinket-a, nagusia eta mesana, eta oihalei eusten zieten belazurrunez zeharkatzen zituzten. Orokorrean, naoak karabelak baino oihal gehiago zituen, eta bela azalera handiagoa izateak pisua orekatzen zuen. Oihal handi horiek altxatu, jaitsi eta mugitzeko, belazurrunez batera, ahalegin handia egin behar zen, eta horregatik tripulazio handia behar zen. Naoak, karabelak baino geldoagoak izan arren, XV. mendetik XVI. mendeko lehen erdira arte erabili ziren, eta orduan, galeoiak erabiltzen hasi ziren funtzio militarretarako.



14. Irudia- Victoria naoaren kopia

XVI. mende erdialdeko naoa nolakoa zen jakiteko informazio baliotsua dugu gaur egun aurkikuntza bikain bati eskerrak: San Juan naoarean ontzi-hondakinak. Pasaiaiko baleontzi euskalduna, mila olio upel baino gehiago zeramatzala hondoratu zen ekaitz baten ondorioz Red Bay-ko portuan, Labrador-en (Kanada), 1565 urte amaieran. XVI. mendeko hondoratze baten hondakinak hain egoera onean aurkitzea ezohikoa da. Aurkikuntza horren ondoren, garai hartako kantauriar isurialdeko ontzigintzaren historia berriro idatzi behar izan da. Ontzia aztertu duten Parks Canadako ikertzaileen arabera, naoak 200 tona inguru zituen, hiru ontzigain eta hiru masta. 22 m. luze zituen, 7,56 m.-ko erruna eta 4,01 m.-ko eskora¹⁰⁴. Gaur egun San Juan naoarean erreplika egiten ari dira Pasaiaiko Albaola ontzian.



15. Irudia- San Juan naoarean eraikuntza Pasaiaiko Albaola ontzian

Arma fabrikatzaileak

Euskal Herrian eraikitako suzko armen inguruko lehenengo albisteak XV. mende amaiera eta XVI. mende hasierakoak dira. Lehenengo erreferentzia horiek Gaztelako administrazioak egindako eskari edo enkarguak dira, bere kanpaina militarretarako edo itsasoz bestaldeko lurraldeetako soldadu-taldeak hornitzeko. Espingarda, eskopeta eta arkabuzak, guztiak suzko arma eramangarriak, kontratuetan agertzen hasi ziren arma zuriekin edo artilleria-piezekin batera, hala nola bonbardak, falkoneteak eta zerbatanak¹⁰⁵.

Euskal Herriko arma industriak, bai arma zuriak ekoizten zituenak eta baita suzko armak egiten zituenak ere, antolakuntza eta ekoizpen maila garrantzitsuak lortu zituen, bereziki XVI. mendetik aurrera. Gune garrantzitsu gutxi batzuetan pilatua zegoen. Arkabuza, eskopeta eta mosketea bezalako suzko arma eramangarrien ekoizpena Gipuzkoako Soraluze ingurunean (Eibar, Elgoibar, Ermua, Bergara eta Arrasate)¹⁰⁶ garatu zen bereziki; lantza eta piken ekoizpena berriz, Bizkaiko Elorrión garatu zen gehienbat, nahiz eta Elgetan eta Oñatin egiten zirela dioten erreferentziak ere badauden.

Beste arma zuri batzuen ekoizpenak garrantzia zuen Bizkaiko Durangon eta



16. Irudia- Armadurak, suzko arma eramangarriak
eta arma zuriak

Bilbon, eta Gipuzkoako Arrasaten eta Tolosan besteak beste. XVI. mendean zehar Gipuzkoako arma guneak beren ekoizpena handitzen hasi ziren Bizkaiko ekoizleen kaltetan, eta ondorioz, pikak egiten zituztenak izan ezik, gainbehera etorri ziren pixkanaka¹⁰⁷.

Arma-ekoizpena Deba bailara inguruan egoteak zenbait abantaila eskaintzen zituen, oso erraza baitzen lehengaietara iristea, hala nola ura, egurra eta kalitatezko burdina. Beste udalerri batzuetako jarduerak ere erregetzarentzako arma ekoizpenari lotuta garatu ziren, nahiz eta zeharka izan. Horietao batzuk basoak ustiatzen jardun zuten, ez bakarrik egur-ikatz hornitzeko, izan ere intxaurrendoa landatu zituzten kulata eta polbora ontziak egiteko, eta baita ere lizarrak, pikak egiteko; beste batzuk berriz, garraio-zerbitzua eskaintzen zuten, esate baterako Aretxabaletak, Eskoriatzak eta Leintz-Gatzagak. Gehienetan armak Altzolako ibai portutik (Elgoibar) garraia-

tzen ziren, bertatik ontzi txikietan eramaten zituzten Debako portura, eta han zain izaten ziren zegokion tokira eramango zituzten ontziak¹⁰⁸.

XVI. mendeko bigarren erdialdean jasotako datuen arabera, uste da garai hartan laurehun mila arma inguru ekoitzi zirela, merkatu pribaturako zirenak kontuan hartu gabe¹⁰⁹. Mundu Berriaren aurkitzaileek erabilitako pika, arkabuz, moskete, koraza eta kasko gehienak Euskal Herriko ibar estuetan egin ziren.

3. Kapitulu

EUSKALDUNAK SEVILLAKO KONTRATAZIO ETXEAN

Euskaldunak Sevillan

Andaluzia interes gune handia izan zen euskal marinelerentzat XIII. mendean geroztik; merkataritza- eta itsas-jarduerak garatu zituzten bertan, zerealekin hornitzen ziren eta operazio militar askotan parte hartu zuten. Ondoren, mendeetan, beren parte-hartzea nabarmen handitzen joan zen. Euskaldunen presentzia handia zen, jatorrizko portuetan edo tokian bertan kontratatzen zituztelako, eta merkataritza-jarduerak txandakatu edo konbinatzen zituzten (garraioa, merkataritza, arrantza), batzuetan jardura militarrekin estaliz eta nahastuz¹¹⁰.

Kantauriko portuetatik esportatzen zen Gaztelako artilea, eta merkantziak ekartzen ziren Flandes, Frantzia, Ingalaterra, Italia eta Hansatik. Andaluzia, Bretaña eta Italiatik garia ekartzen zen, Kantauriko hiribilduetan gutxi baizegoen, eta euskal burdinoletako burdina esportatzen zen Europa osora¹¹¹.

1248an Sevilla konkistatu zenetik, euskal marinelek etengabeko harremana izan zuten hiriarekin¹¹². XV. mendearen bigarren erdialdean, Sevillako kabiloak behin baino gehiagotan kontratatu zituen euskal marineler eta merkataria hirirako alea erosteko. Badakigu euskal marinelen kolonia handi xamarra bizi zela Sevillako hainbat lekutan, besteak beste Castellanos auzoan, la Mar

auzoan, Santa Maria la Mayor eta Castro kaleen arteko auzunean¹¹³. Juan de Arrieta Sevillan bizi zen euskal ostalaria izan zen, eta bere ostatuan hartzen zituen Indietarako Itsasbidean parte hartu nahi zuten guztiak. 1520. urte aldera, Arrietak hiru erreal kobratzen zituen (102 marb) ohea eta eguneroko jatorduengatik¹¹⁴.

Hainbat arrazoik azaltzen dute euskaldunen presentzia, baina bi arrazoi nagusienetakoak izan ziren Sevillako portuaren jardura handia eta Koroak nahiz hiriak ematen zien babesak. 1475. urtetik, Gaztelako itsas armadak Afrikako kostaldean egin zituen itsas bidaietan parte hartu zuten marineler euskaldunek¹¹⁵.

Sevillaren konkistan parte hartu zuten Kantauriko itsasgizonei Fernando III.ak pribilegio bat eman zien 1520ko ekainaren 15ean: itsas alkatea izateko berariazko eskumena eman zien; alkateak eskubidea izango zuen itsasoko gaietan epaitzeko, eta epaia apelatu ahal izango zuten “itsasoko foruan jakitunak ziren” sei gizon onez osatutako kontseiluaren aurrean. Koroaren hegoaldeko itsas eskumen berezi hori iparraldean existitzen zen eskumen baten oihartzuna baino ez zen izan¹¹⁶.

XV. mendean euskaldunek ez zuten komunitate baten antzeko ezer osatu Sevillan. Kopuruz ez ziren asko, nahiz eta, pixkanaka, Sevillan zeuden euskaldunak geroz eta gehiago izan (mende hasieran Sevillako biztanleriaren %1a ziren, eta XV. mende

amaieran eta XVI. mende hasieran berriz, %3a). Baina inoiz ez zuten batzuen eta besteen arteko lotura mekanismorik artikulatu, ez zuten ordezkariarik aukeratu, eta ez zuten berezko kofradiairik izan 1540. urtera arte. Gipuzkoako eta Bizkaiko merkatarien artean bakarrik antzematen da lotura hori, batez ere beren merkataritza-jarduera eta Sevillan igarotzen duten denbora handitzen denean¹¹⁷.

Mundu Berriaren aurkikuntzarekin euskaldunak enpresa amerikarrean hasi ziren lanean. Colonen lehenengo bidaiari, laurogeita zazpi eskifaikideetatik gutxienez zortzi euskaldunak ziren. XVI. mende amaieran, zazpi mila eta bederatzia mila artean ziren,

urtero, Indietara bidaiatzen zuten konboietan parte hartzen zuten marinelak, eta horietatik erdia baino gehiago euskaldunak ziren¹¹⁸.

XV. mende amaieran, 80. hamarraldiko azken urteetan eta 90eko hamarraldian, euskal merkatariek Sevillan espazio ekonomiko propioa izatea lortu zuten, bereziki burdinaren salmentan oinarritua¹¹⁹. XVI. mende hasieran, Atlantikoak Mediterraneoeko espazioa ordezkatu zuenean, Sevillak 40.000 biztanle zituen eta Euskal Herriko 69 enpresa merkataritzan ziharduten bertan; horrez gain, hiriarekin merkataritza harremanak zituzten, baita ere, Genoako¹²⁰ 437 enpresek, Andaluziako 328ik, Burgos-



17 Irudia.- Sevilla XVI. mendean, Alonso Sanchez Coellorena izan daitekeen mihise batean. Amerikako museoa, Madril.

ko 72ik, Ingalaterrako 57ik, Florentziako 20ik, Valentziako 15ek eta Veneziako¹²¹ 10 enpresek. Baina euskaldunak, merkatari eta artisau trebeak izateaz gain, Gaztelako administrazioan bertan sartu ziren¹²².

Sevillako Kontratazio Etxea


Magallanes-Elkanoren espedizioari buruz dugun dokumentazioan, euskaldun bati buruzko lehenengo erreferentziak ez dira marinel bati buruzkoak, Sevillako Kontratazio Etxeko ofizial bati buruzkoak baizik, Juan Lopez de Recalde kontularia hain zuzen, azkoitiarra (Gipuzkoa).

Magallanesek 1518ko martxoaren 2an erregearekin izan zuen bilera eta gero, eta martxoaren 22ko hitzarmenen¹²³ ondoren, Magallanesi agindu zitzaion Sevillako Kontratazio Etxera joateko bost naok hornitzeko. Kontratazio Etxeko ofizial Juan Lopez de Recalde kontulariari eta Sancho de Matienzo diruzainari ez zitzaaien batere ondo iruditu hitzarmenak Magallanesekin egitea beraiekin kontsultatu gabe. Izan ere, 1518ko martxoaren 23ko gutun batean, Carlos I.ak Magallanesekin sinatutako kontratuaren berri eman zien, eta jakinarazi zien kantzilerrak eta Fonseca gotzainak sinatutako oroitza-txostena jasoko zutela, bete beharreko aginduekin¹²⁴. 1518ko api-

rilean Recaldek eta Matienzok erregeari idatzi zioten beraien kexa adierazteko eta esateko Etxeak berak bazituela esperientzia handiko kapitain eta pilotuak, eginkizun hura betetzeko gai zirenak Magallanes edo beste edonorekin hitzarmenik egin beharrik gabe.

Erregeak 1518ko apirilaren 18an idatzitako erantzunean eta 1518ko maiatzaren 21eko data duten bi gutunetan, Matienzo eta Lopez de Recaldek bidalitako gutunak jaso dituela jakinarazten du, barkamena eskatu eta azaltzen die gauzak horrela egin direla, ez beraiekiko edo instituzioarekiko konfiantza faltagatik, baizik eta erregearen eginbehar ugariengatik eta denbora faltagatik, eta Magallanesen eginkizunari babesa emateko eskatzen die¹²⁵.

Zer zen Sevillako Kontratazio Etxea eta zer eginkizun bete zuten Magallanes-Elkano espedizioan instituzio horretan zebiltzan



18. Irudia- Nabigatzaileen Ama Birjinaren kapera, Kontratazio Etxea, Sevillako Alkazarra

euskaldunek? Mundu Berria aurkitu zenetik, Indiekin lotura zuten gai guztiez Burgosko gotzain Juan Rodriguez Fonseca arduratu zen, benetako “Indietako ministroa”. Baina merkataritza eta lurralde berrietara egiten ziren espedizioak geroz eta konplexuagoak bihurtzen ari ziren, eta horrek Sevillako Kontratazio Etxea sortzea ekarri zuen 1503an.

1503, 1510 eta 1511¹²⁶ urteetan argitaratutako Ordenantzek arautzen zuten Etxea. Lehendabizikoetan bere funtzio nagusia nabarmentzen da, biltegi moduko bat izatea Indietara eraman beharreko salgai guztiak eta Indietatik Espainiara bidaltzen zirenak jasotzeko; Ikuspegi fiskaletik kontrol egokia egin ahal izateko aduana moduko bat, Sevillako Etxeari esleitu baizitzaion merkataritza-

tzaren monopolioa. Merkataritza eta zerga arloko helburu bikoitz hori nabarmentzen da lehenengo etapa horretan¹²⁷.

1510eko ordenantzek, Ochoa de Isasaga gipuzkoarrak idatziak, aldaketa garrantzitsua ekarri zuten. Etxea ez zen ia merkataritza etxe soila eta baimena eman zitzaion kontratazioari, nabigazioari eta Indietara bidaiatzen zuten pertsonen buruzko jurisdikzio berezi propioa garatzeko¹²⁸. Eta beraz, instituzioaren funtsezko eskumenetako bat judiziala izan zen, merkataritza jardueren arloan sortutako gatazken inguruko ulermena zuen auzitegia baitzen. Etxeak itsas trafikoko merkantziak ikuskatu eta erregistratzen zituen. Eskumen hori estrategikoa zen, Ogasunari eragiten baitzion. XVI. eta XVII. mende bitarteko zenbait garaitan, 270.000 kg. zilar eta 40.000 kg urre jasotzera heldu ziren urtero Amerikatik¹²⁹.

Etxeak funtzio asko betetzen zituen aldi berean: itsas merkataritza ganbera eta kontsulta zein informazio bulegoa, aduana, postetxea, almirantegoa, itsas eskola, azterketa geografikoetarako gunea, biltegia eta merkatua¹³⁰.



19. Irudia.- Zilarrezko lingoteekin betetako Kutxa, Indietatik ekarria

Faktore, diruzain eta kontularia

Faktoreak, diruzainak eta kontulariak zuzentzen zuten instituzioa eta Etxeko ofizialak deitzen zitzairen. Hasieratik, Etxeko pertsonaia gakoa Sancho Ortiz de Matienzo burgostarra izan zen.

Edozein erabaki liburuan jasota uzten zen, eta nahiz eta kontulariaren eskumena izan, hiru ofizialek sinatu behar zuten, eta kudeaketa bakoitzak irizpide nahiz proiektu errealek finkatzen zituela ziurtatzea ere beraien ardura zen. Diruzainak egiten zituen igorpenak, baina dukat bakar bat erabiltzeko aginpiderik ez zuen beste bi ofizialek sinatu ezean¹³¹. 1509an diruzainak (Matienzo) 120.000 marabedi irabazten zituen urtean, faktoreak (Isasaga), 100.000, eta kontulariak (Lopez de Recalde), 80.000¹³².

Instituzio garrantzitsu horretako ofizialek botere ia mugagabea zuten, beraien baitan baizegoen merkataritza harremanak onak izatea aurkitutako lurraldeekin eta aurkitzeke zeudenekin. Eta horri gehitzen badiogu instituzioaren lehenengo urteetan erregetzaren kontrolik ez zela ia, ez da zentzugabea pentsatzea ofizialek gehiegikeriak egin zituztela, edo, gutxienez, nahikoa erraztasunarekin egin zitzaizketela¹³³. Kargua bete zezaketen hil arte.

Interes pribatuak Kontratazio Etxean

Sevillako Kontratazio Etxeko XVI. mende hasierako jarduerak eta funtzionamendua aztertuz gero XXI. mendeko gure pentsamoldearekin, instituzioaren irudi desitxuratua edo, gutxienez, zehaztasunik gabea izan dezakegu. Zalantzarik gabe, hainbat gertakariengatik esan liteke Indietako negozioa interes partikularrengatik hipotekatua zegoela. Baina, kontuan hartu behar dira, baita ere, testuingurua eta zer egoeratan gertatzen den. Gaztelako administrazioa mundu feudal batetik zetorren eta estatu bilakatzen ari zen, horregatik ez zuen administrazio egitura finkorik, ez eta baliabiderik ere. Horregatik guztiagatik finantzazioaren zati bat, armadena adibidez, ekimen pribatuan bilatu behar izaten zen, funts ekonomikoak zituen baitzen. Egia da Gaztelak artilek eta burdinatik eratorritako zergak zituela besteak beste, baina Amerikako aberastasunei esker lortu zen administrazio sendo eta estatu modernoaren sortzea.

Testuinguru zehatz horretan, Indietako negozioa aurrera eramateko Portugalek baino esperientzia eta gaitasun finantzario gutxiago zuenez, 1503an, Indietako merkataritza jarduerak partikularren esku uzten zituen proiektu baten alde egin zen, eta ondorioz, Kontratazio Etxea kontrol erakundea bilakatu zen, eta ez merkataritza aritzeko erakundea¹³⁴.

Eta beraz, Kontratazio Etxea egitura arazo handiekin sortu zen, eta aldi berean, horrek etengabeko gatazkak sortu zituen interes ekonomiko publiko nahiz pribatuen artean¹³⁵. Indietara garraiatzen ziren merkantziak eta beste artikulak batzuk geroz eta gehiago ziren merkatarik pribatuenak, eta horrenbestez, Etxeak hasiera batean betetzen zuen biltegi funtzioa jatorrian zuen zentzua galtzen joan zen¹³⁶.

Kapital pribatua Indietako negozioan hartzen ari zen garrantzia ukaezina zen. 1503an monarkiak kapitalista pribatu bat izendatu zuen Etxeko faktore, Francisco Pinelo hain zuzen, eta horrek esan nahi zuen instituzioaren independentzia hipotekatua geratzen zela neurri handi batean. Merkataritzako kapital pribatuak hasiera hasierak baldintzatu zuen Etxea eta sortu ziren kontraesan handiak laster azaleratu ziren. Kontua da Pinelo ez zela izan Etxean sartu zen merkatarik eta ontzi jabe bakarra¹³⁷.

Bertako ofizialak merkataritzan parte hartzea baino gauza gehiago zeuden. Ustelkeria kasu nahikoa zabaldua baino konplikatuagoa zen han gertatzen zena. Ez zen hori bakarrik. Egiaz, gaiak dimentsio sakonagoa zuen: instituzioa interes-talka disolbaezin batean murgilduta sortu zen. Teknikoez eta merkataritzan adituak ziren pertsonak gain, Koroa, merkatarik eta finantzarioak sartzen hasi ziren Kontratazio Etxean, eta beraz esan daiteke instituzioa hasieratik izan zela, bai merkataritza arloan

eta baita zerga arloan ere, porrotera kondenatutako proiektua, gerora gertakariak baieztatzen duten eran¹³⁸.

Errege-ofizialek beste batzuei beste-errendu zieten beren karguagatik zegokien boterearen zati bat. Trukean dirua, mesede pertsonalak eta bestela lortu ezin zezaketen aintzatespena lortu zituzten. Bere eskumeneko eremu ekonomikoan modu pribatuan aritzeko debeku zorrotza izan arren, bai epaile ofizialek eta baita Kontratazio Etxeko gainontzeko funtzionarioek ere negozio klandestinoetan parte hartu zuten, bereziki XVI. mendean¹³⁹.

Etxeko ofizialen merkataritza jarduerak gatazkak sortu zituzten beste merkatarik batzuekin, eta egoera haren ondorioak ez zetozen bat monarkiaren interesak zaintzearekin¹⁴⁰. 1503tik 1522ra luzatu zen 19 urteko tarte baten ondoren, administrazioak ez zuen onartu nahi zenbait ofizialen handinahiak¹⁴¹ arriskuan jartzea monarkiaren instituzio estrategiko baten kontuak eta irabaziak. Hori dela eta, 1522an ofizialek Indiekin merkataritza jarduerak izatea debekatu zuen erregeak¹⁴².

Etxeko ofizialak:

López de Recalde,
Ochandiano eta
Ochoa de Isasaga

1503an Sevillako Kontratazio Etxea sortu zenean, hiru ofizial arduradun izendatu ziren: Sancho Ortiz de Matienzo diruzaina zen eta karguan egon zen hil zen arte, 1521ean; Francisco Pinelo faktorea zen, eta eginbehar horretan aritu zen hil zen arte,

1509an; eta Jimeno de Briviesca kontugilea zen, eta karguan gon zen hil arte, 1507an.

Lehen esan dugun lez, Kontratazio Etxeko benetako gizon indartsua Sancho Ortiz de Matienzo izan zen, 1521eko abenduaren 8an hil zen arte; 1490eko abenduaren 24az geroztik Sevillako katedraleko kalonjea izan zen. Matienzo Villasana de Mena (Burgos) herrian jaio zen, Bizkaiko jaurerriarekin muga egiten zuen Burgosko Ibarra. Aipatu udalerriak Bizkaiko jaurerriaren forua zeukan eta Sancho Ortiz de Matienzo beraren arbasoak Karrantzakoak (Bizkaia) ziren¹⁴³.

1. Taula. Kontratazio Etxeko ofizialak 1503 eta 1525 artean eta Magallanes-Elkano espedizioaren garaian (1519-22)

	1503	1505	1507	1509	1511	1513	1515	1517	1519	1521	1523	1525
DIRUZAINA	ORTIZ DE MATIENZO										OCHANDIANO	
KONTULARIA	BRIVIESCA	LÓPEZ DE RECALDE									OCHANDIANO	
FAKTOREA	PINELO				ISASAGA				ARANDA			

Sancho Ortiz de Matienzo: diruzaina 1503-1521 (hil egin zen)

Jimeno de Briviesca: kontularia 1503-1507

Juan Lopez de Recalde: kontularia 1507-1522 (kargugabetua). Itzuli egin zen: 1529-1532 (hil egin zen)

Domingo de Ochandiano: diruzain laguntzailea 1514. Behin-behineko diruzaina 1522. Kontularia 1523-1529 (hil egin zen)

Francisco Pinelo: faktorea 1503-1509

Ochoa de Isasaga: faktorea 1509-1516. 1518an hil zen

Juan de Aranda: faktorea 1516-1536 (hil egin zen)

Ochoa de Isasaga Ordizian (Gipuzkoa) jaioa zen. Maria Ruiz de Mirandarekin ezkondua zegoen. Kontratazio Etxeko lehenengo faktore Francisco Pinelo 1509an hil zen, eta orduan Ochoa de Isasaga komendadoreak faktore kargua hartu zuen 1509ko abuztuaren 20an. Lehen aipatu dugun lez, 1510eko otsailean gortera deitua izan zen instituzioarentzat ordenantza berriak egin zitzen, eta ordenantza horiek 1510eko ekainaren 15ean argitaratu ziren. Etxeko euskal funtzionario askorentzat, tartean Isasagatarrak, Euskal Herriko kontzejuetan lortutako esperientziak gorako instantzietarako atea ireki zizkien¹⁴⁴.

Isasagak barne borroketan ere parte hartu zuen. 1510ean Sancho de Matienzo Kontratazio Etxetik kanporatzea eskatu zuen, kontu-ikuskaritza batean zenbait irregulartasun antzeman eta gero. Baina, Matienzok Fonsecarekin zuen harremana Isasagak zituen kontaktuak baino indartsuagoak ziren, eta azkenean, Isasagak utzi behar izan zuen Etxea 1516an. Urte hartan bertan Juan de Arandak ordezkatu zuen Isasaga, eta Matienzo berriz, Etxean geratu zen hil zen arte¹⁴⁵. Ikusten denez lehia handia zen alde batetik faktoreek osatzen zuten taldearen eta, bestetik, Recalde eta Matienzoren artean.

Juan López de Recalde Etxeko kontularia izan zen 1507ko irailaren 20tik 1522ra arte, eta 1528tik bere heriotzara arte, 1532an. Matienzoren babesa zuen gizon hura azkoi-

tiarra (Gipuzkoa) zen, erresumaren hornitzailea eta Done Jakueren ordenako zalduna. 1510eko azaroan Sevillako Santa Maria auzuneko bizilaguna zela dioten datuak daude¹⁴⁶. Lorenza de Idiaquezekin ezkondu zen, eta zazpi haur izan zituzten, seme bat eta sei alaba. Horietako bat Beltran de Oñez y Loyolarekin ezkondu zen, Martin Garcia de Oñez-en semea, eta azken hori, aldi berean, Ignazio Loiolakoaren anaia zen¹⁴⁷.

López de Recalde ez zen izan Kontratazio Etxeko pertsonaia garrantzitsu eta polemikoa bakarrik¹⁴⁸, neurri handiago batean merkataria garrantzitsua izan baitzen, XVI. mende hasieratik gutxienez. 1504an olioak garraiatzen zuen Londresera, 60 tonako bere ontzian; eta 1517an, Flandriarekin negozioak egiten zebilen 150 tonako beste ontzi batekin¹⁴⁹. 1517 eta 1522 urteen artean Juan Lopez de Recalderen San Juan ontziak, “nao del Contador” izenarekin ezagutzen zena, Indietarako Itsasbidea egiten zuen aldizka¹⁵⁰. Lebrijan lursail handiak zituen¹⁵¹.

Lopez de Recaldek liskarrak zituen Juan de Aranda faktorearekin, eta horregatik bere presentzia Etxean polemikoa izan zen. Liskar horren oinarrian merkataritza intereseko arrazoi garbiak zeuden. 1517an Etxeko ordenantza hautsi izana leporatu zion Arandak Lopez de Recalderi, baina are larriagoa zena, Ogasunarekin zituen betebeharrei jaramonik ez egitea ere leporatu zion, zehazki Monetaren Etxean urrearen kontrolarekin lotutako betebeharrei, eta


Indietara zihoazen naoei behar baino pisu gehiagorekin joateko baimena ematea ere egotzi zion. Badirudi Arandaren salaketek ez zutela ondorio larriegirik izan, Lopez de Recalde bere funtzioetatik kendu zuten arren, handik gutxira bere karguaren jardueretan zebilen berriro¹⁵².

Era berean, Juan de Arandaren aurkako prozesu bat izapidetu zen eta Magallanesen armada onura pertsonalak lortzeko baliatu izana leporatu zitzaion, baina absolbitu egin zuten¹⁵³. Juan de Arandak harremanean jarri zituen Fernando de Magallanes eta Ruy Faleiro Indietako agintariekin, eta ondoren, espedizioa abian jartzeko kudeaketak egin zituen. Hori baino lehen, 1518ko otsailaren 23an, Aranda akordio batera iritsi zen portugaldarrekin, espediziotik lor zitezkeen irabazien zortzirena jasotzeko. Magallanes eta Faleiro erosteko saiakera hark handitu egin

zituen Fonseca eta Lopez de Recalderekin izan zituen liskarrak.

Beste ofizialetako bat Domingo de Ochandiano durangarra (Bizkaia) zen¹⁵⁴. Hainbat kargu izan zituen Etxean, diruzaina eta kontularia besteak beste, 1523tik 1529ra bitartean, hil zen arte. Berari buruzko informazio gutxi dago Sevillara iritsi aurretik. Badakigu hasieran Santa Maria¹⁵⁵ auzunean bizi izan zela, beste euskaldun asko bezala. Garrantzia handia izan zuen Kontratazio Etxearen lehenengo urteetan, ez bakarrik oso abila zelako merkatarari edo mailegu-emaile bezala, baita ere Matienzorekin oso harreman estua zuelako eta haren iloba Catalina Ortiz de Matienzorekin ezkondu zelako.

1514. urte aldera Ochandiano Indietako administrazio taldean hasi zen lanean. No-



20. Irudia.- Sevillako Kontratazio Etxeko “Oligarkia triangeluarra” XVI. mende hasieran

tario-akta batean ageri denez, bere osaba Sanchok berari eskuordetu zizkion ordezeko diruzain funtzioak. Izan ere bera ofiziala izan zen, eta Amerikako gaiak kudeatzen erraztasuna hartu zuen. 1520an Monetaren Etxeko diruzain ordezkari kargua hartu zuen. 1521eko abenduaren 8an, Matienzo hiltzearekin batera, Lopez de Recalde eta Ochandiano euskaldunen boterea gutxitu egin zen nolabait, nahiz eta azken hori Etxeko bitarteko diruzaina izendatua izan zen diruzaintza hornitu arte. Eta gainera, instituzioaren kontularitzaz arduratu zen, irregulartasunengatik Recalderen aurkako prozesu judiziala konpondu arte¹⁵⁶. Kontu-

laria izan zen 1523tik hil zen arte¹⁵⁷. Bere gaitasunagatik izendatu zuten neurri handi batean, Etxea eta bertako kontularitza ondo ezagutzen zituelako.

Une hartan euskaldun horiek Kontratazio Etxean izan zuten eragina modu grafikoan definitu izan da “oligarkia triangeluar” eran¹⁵⁸: “*Matienzo diruzainak, Recalde kontulariak eta Domingo de Ochandiano kontulariak... oligarkia triangeluarra osatzen dute; beren interes eta pasioek erakunde enblematiko honen fatxadaren atzean ezkutatzen diren zirrikitu korapilatueta barneratzen gaituzte*”¹⁵⁹. Eta hori guztia Rodriguez de Fonsecaren babespean.

Lopez de Recalde eta Ochandianoren jarduerak espedizioan

Bai Juan Lopez de Recalde eta baita Domingo de Ochandianok ere jarduera garrantzitsuak izan zituzten Magallanes-Elkano espedizioarekin lotuta. Flotaren prestaketa-lanek iraun zuten denboran, Lopez de Recalde hainbatetan esku hartu zuen, eta baita San Antonio naoa Sevillara itzuli zenean ere, 1521eko maiatzean. Jarduera horiek hainbat dokumentutan daude jasota, hala nola 1518ko apirilean eta maiatzean erregeari idatzitako gutunak; horietan beraien desadostasuna azaltzen dute ez direlako kontuan hartuak izan Moluketarako espedizioaren prestatze-lanetan¹⁶⁰. 1519ko abuztuan Magallanesek Kontratazio Etxeko ofizialei egindako eskariaren erantzuna ere jasota dago¹⁶¹. 1521eko maiatzean gutun bat idatzi zion erregeari, Magallanes itsasartean desertatu eta gero San Antonio naoa Sevillara iritsi zela jakinarazteko¹⁶².

Zalantzarik gabe espedizioaren prestatze-lanak iraun zuten denboran adostasunak eta desadostasunak izan ziren, egiaz tirabira etengabea izan zen Magallanes, erregearen ordezkari Fonseca, Lopez de Recalde eta Matienzoren artean¹⁶³. Azken horiei, eta bereziki Lopez de Recalderi leporatu zitzaion armadaren eraikuntza atzeratzeko

beraien esku zegoena egin izana. Juan Gilek dioenaren arabera, Recalderen gaizkinahia indartu zuten bera protagonista ez izatearen hisiak eta Magallanesengatik sentitzen zuen antipatiak¹⁶⁴. Cadizen zegoela, Lopez de Recalde Magallanesen armadan izena emateko eskaintzaren berri ematea eragotzi zuen, une horretan Levanterako beste espedizio bat prestatzen ari zelako eta gizonak behar zituelako¹⁶⁵. Era horretako ekintzenegatik esan zen Recalde Magallanes-Elkano espedizioa oztopatu zuela.

Domingo de Ochandianok parte-hartze handia izan zuen armadaren prestatze-lanetan, bereziki diruzaintzarekin zerikusia zuten gaietan, eta baita ordainketetan ere (beherago ordainketen deskribapen zehatza goa ageri da¹⁶⁶. Victoria naoa Sanlucar-era iristean ere zeregin garrantzitsua izan zuen, besteak beste bera arduratu baitzen Elkano-ri laguntza emateaz¹⁶⁷.

Artechek dio garai hartan beste hainbat euskaldun zeudela Kontratazio Etxean kargu handiekin, hala nola Eguinotarrak, Munibe-Alberro, Isasti, Urquiza, Oña, Inunriza, Berozpe eta Ibarrola¹⁶⁸. Beste bi euskaldunek harreman estua izan zuten Kontratazio Etxearekin, Juan de Huguibar azpeitiarra eta Nicolas de Artieta Lekeitiarra; biek parte hartu zuten espedizioa prestatzeko lanetan, eta Juan de Huguibarrek Victoria naoari itzuleran egin zitzaion harreraren ere parte hartu zuen ondorengo kapituluetan ikusiko dugun lez.

4. Kapitulu

ARMADAREN PRESTAKUNTZA

1518ko martxoaren 2an, Valladoliden izandako bileran, Magallanesek Carlos I.a erregeari sinestarazi zion bazela itsasarte bat Amerika hegoaldean Atlantiar ozeanotik ozeano Barera joateko, eta Moluka irlak Espainiarenak zirela Tordesillas-ko itunean erabakitakoaren arabera. Itsasgizon portugaldarraren logika geografiko, komertzial eta estrategikoak erregea liluratu zuen, eta gainera, itsasgizon sutsu haren erreferentzia militar bikainak zituen¹⁶⁹.

Ikusi dugunez, bilera horren ondoren eta hilabete bereko 22. eguneko hitzarmenen ondoren, Magallanesi eta Falerori agindu zitzaien Sevillako Kontratazio Etxera joateko, hitzarmenak Etxeko ofizialei erakusteko eta bost naoak prestatzeko¹⁷⁰.

Baina espedizioak ez zuen finantzaziorik lortu 1518ko uztailaren 20ra arte; orduan agindu zien erregeak Etxeko ofizial Sancho de Matienzo eta Juan Lopez de Recalderi Fernandina irlako (Kuba) irabazietatik 6.000 dukat (2,25 milioi marabedi) erabiltzeko flota hornitzeko¹⁷¹. Atzerapenak eragozteko erosi beharreko gaien memorial zehatza eskatu zuen, Juan Rodriguez de Fonseca gotzainak sinatua. Memorial horretan ageri dira bost naoak, artilleria, polbora, baleztak, arma-

durak, elikagaiak, tresnak, arrantzarako erremintak, arotz-tresnak, itsasontzirako ekipamenduak, bikeztatzailearentzako elementuak, elikagaiak, salbamenduko gaiak eta beste batzuk. 50 eskopetak Markina edo Eibarren eginak izan behar zutela zehaztu zen¹⁷².

Garai hartan ohikoa zen flotentzako materiala Bizkaian erostea; eta horregatik, 1509an, Ojedaren armadarentzako armak lurralde horretan erosi ziren: hamasei bonbarda handi (kainoi), laurogei ertain eta txiki, laurehun koselete, egurrezko ezkutuak eta bestelako armak, miloi bat marabediko balioagatik. Armaden prestakuntza- eta hornitze-lanetan euskaldunak izan zuten parte-hartze garrantzitsua Pedariasen espedizioan errepikatu zen, 1513an. Kontratazio Etxeko goi karguak euskaldunak izateak harreman hori erraztuko zuen ziurrenik, baina azalpen bat emateko nahikoa da gogoraraztea Euskal Herrian burdinolek eta arma ekoizpenak garrantzia handia zutela, eta ontzigintza jarduera handia zela. 1505. urteaz geroztik, armadentzako armamentua Malagako errege biltegietakoa izaten zen, edo bestela Bizkaia eta Gipuzkoan erosten zen¹⁷³.

Nicolás de Artieta

Lopez de Recalde eta gero, Artieta da espeziatarako armadari buruzko dokumentuekin lotuta ageri den bigarren euskalduna. 1518ko uztailaren 20ko erregearen agin-
duek honela diote:

“porque algunas de las cosas contenidas en él (Memorial), pareciera que se hallarían mejores y a mejores precios en Vizcaya que en esa Andalucía, he mandado al capitán Nicolás de Artieta que las compre y provea en Vizcaya, y vos las envíe”¹⁷⁴.

Bizkaian eta Gipuzkoan kalitatezko armak egiten ziren beraz, eta prezio lehiakorra zuten.

Nicolas de Artietari ematen zaion egin-kizuna ikusita, argi dago Gaztelako administrazioaren konfiantzazkoa zela. Lekeitiokoa zen, familia garrantzitsu batekoa, Iñigo de Artieta almirantearen anaia zen eta harreman ona zuen Indietako ministro boteretsu Juan Rodriguez Fonsecarekin¹⁷⁵. Horregatik guztiagatik Indietara zihoazen armadetako naoak hornitzeaz arduratzen zen. Historikoki oso garrantzitsuak izan ziren beste espedizio batzuk antolatu eta hornitzeaz ere arduratu zen, besteak beste Germaniako Erromatar Inperio Santuko enperadore izendatua izateko Carlos I.a erregea eramane behar zuen espedizioa, Coruñaetik irten zena 1519an¹⁷⁶.

Behin erregearen agindua jasota, Nicolas de Artieta Bilbora joan zen Magallanesen

koinatu Duarte de Barbosarekin eta Kontratazio Etxeko lehergailu-arduradun Anton Cermeñorekin; dakigunez, Bilbon burdina forjatuzko arma bikainak ekoizten ziren. Hurrengo hilabeteetan lan handia egin zuen espediziorako armak, polbora, iltzeak, falkoneteak, bonbardak, baleztak, lantzak, geziak, armadurak eta beste material batzuk erosten Gipuzkoan eta Bizkaian.

Gastuei aurre egiteko, 1518ko abuztuaren 19an Artietak 1.500 dukat (562.500 marabedi) jaso zituen Anton Cermeñoren bidez. *Magallanesen armadarentzat egindako gastuen zerrenda zehaztuan* kontabilizatuta ageri den lehenengo idazpena da¹⁷⁷.

Baina abuztuan, Kontratazio Etxeko ofizialak konturatu ziren 6.000 dukatak ez zirela nahikoa aurreikusitako gastuentzat, eta horrela jakinarazi zioten erregeari hilabete horretako 16an idatzitako gutun batean¹⁷⁸. Irailaren 1eko erantzunean, erregeak Etxeko ofizialei agindu zien 5.000 dukat (1.875.000 marabedi) gehiago hartzeko Indietatik hel-
dutako 30.079 urrezko pesoetatik¹⁷⁹.



21. Irudia- XVI. mendeko pistola.
Eibarko Arma Museoa

Momentu horretako finantzazio arazoak konponduta, prestaketa lanekin jarraitu zuten. Baina 1519ko martxoan, armada amaitzeko dirurik gabe zeuden berriro, eta beraz, martxoaren 10ean, merkatari partikularrei baimena eman zitzaion 4.000 dukat jartzeko (1,5 milioi marabedi)¹⁸⁰.

1518ko azken hilabeteetan eta 1519ko lehenengoetan Artieta kapitaina joan-eto-rrian ibili zen Bilbo eta Sevilla artean. Badakigu urriaren 22an Sevillan zegoela, ontziak lehorreratu zirenean bertan lanean ibili zirenen mantenurako idazpen bat egin zelako, eta berak hor esku hartu zuen¹⁸¹.

Barbosa ere Bilbora joan zen negoziatzera eta Artietaren aginduei itxura ematera¹⁸². Artieta berak Bizkaian eta Gipuzkoan erosi zituen artilleria, infanteriarentzako armak, munizioa eta polbora 527.150 marabediren truke; hauxe da erosi zuena zehaztuta¹⁸³:

Baina ez zituzten armak bakarrik erosi Euskal Herrian, baita ere burdinezko beste produktu batzuk, besteak beste aingurak, arrantzarako arpoiak, aitzurrak, mazoak, palak, pikotxak, zerrak, argiontziak, aizkorak, janaria prestatzeko heltzeak, burdinazko barra txikiak, era guztietako iltzeak eta baita sutegi bat ere.

2. taula. *Nicolas de Artietak Bilbon erositako armak*

58 kainoi txiki, 7 falkoi (kainoi), 3 bonbarda handi (kalibre handiko kainoiak) eta 3 kainoi astun Bilbotik ekarriak	160.135 marb.
50 kintal (2.300 kg.) polbora, Hondarribiatik Bilbora ekarriak	114.505 marb.
Burdinazko dadoak eta pilotak (jaurtigaiak), pilotak kainoi astun, falkoi eta kainoi txikientzat, beruna artilleriako pilotentzat eta ontziak beruneztatzeko, eta polbora artilleriarekin probak egiteko	40.245 marb.
100 koselete (koraza arin) beren beso eta bizkardun armadurekin, kapazeteak (burua babesten zuen armadurako pieza), eta 100 peto beren arpegiko babes eta kasketekin, Bilbon erosiak	110.910 marb.
60 balezta eta 360 dozena saeta	33.495 marb.
50 eskopeta Markinan edo Eibarren eginak	10.500 marb.
Arnes bat, bi koselete eta sei ezpata Magallanesentzat	6.375 marb.
200 erredola (ezkutu)	6.800 marb.
95 dozena dardo, 10 dozena lantza motz, 1.000 lantza, 20 pika, 6 lantza luze eta 6 lantza kirten	44.185 marb.
Guztira	527.150 marb.

Garai hartako Artietaren azkeneko erreferentzietako bat 1519ko apirilaren 11an Lekeitiotik erregeari idatzitako gutun bat da; gutunean esaten zion ontziak atera zirela, baina artean beste bi geratzen zirela ateratzeko, eta jakinarazi zion Donostian lortutako artilleria eta polbora Hondarribiari bidali zituela¹⁸⁴. Baina gutun hori ez da Magallanes-Elkano espedizioari buruzkoa, izan ere gutun horretan aipatzen dituen ontziak 250 upel (300 tona) zeramatzaten, Magallanesenak baino handiagoak. Eta gainera, Arandak Cadizen erositako Magallanes-Elkano espediziorako naoak Sevillan zeuden 1518ko urrian. Horregatik Juan Gil-ek ere erreferentzia horri buruzko zalantzak ditu¹⁸⁵.

1520ko maiatzaren 16a arte, Moluketarako armada irten zenetik zortzi hilabetera, Artietak ez zuen inolako soldatarik kobratu Indietara zihoazen espedizioak hornitzeagatik; egoera hori konpontzeko errege zedula baten bidez urtean 30.000 marabediko soldata esleitu zitzairen Etxeko funtzionarioei¹⁸⁶. Kontu-liburuetako idazpenetan eta Kontratazio Etxeko altxortegian Nicolas Artietaren aldeko lau igorpen daude, 38.750 marabediko bat, 1521eko irailaren 3an¹⁸⁷, eta 10.000 marabediko hiru igorpen, 1522ko maiatzaren 6an¹⁸⁸, abuztuaren 18an¹⁸⁹ eta abenduaren 24an¹⁹⁰.

Nahiz eta Magallanes-Elkanoren espedizioari buruzko aipamenik ez egin, hurrengo espedizioetako ekintzek oso ondo erakusten

dute zer prozedura jarraitzen zen Indietara ateratzen ziren armaden antolakuntzan. Loaisaren aginduetara Moluketara egin zen espedizioan parte hartu zuen Artietak; 1525eko uztailaren 24an abiatu zen espedizio hartan itsasoratu zen Elkano ere. 1521eko abenduaren 7an Burgosen emandako aginduak honela dio: *“en cuanto que a vos el dicho capitán Artieta se os ha dado cargo de proveer las cosas necesarias que convengan para dicha armada”*¹⁹¹.

Emandako jarraibideak oso zehatzak ziren; hiru naoen garraio-gaitasuna zehazten zen: bat 145-150 upelekoa (174-180 tona), beste bat 130 upelekoa (156 tona) eta hirugarrena 100 upelekoa (120 tona). Era berean, zer ezaugarri tekniko izan behar zituzten deskribatzen da, egurraren eta iltzeen gastuei dagozkien idazpenak nola egin behar ziren gastu-liburuan, eta baita ere zer sinadura agertu behar zuten eta nork eta nola egin behar zen. Covarrubiasen esku utzi zen ordainketak egiteko ardura, Artietaren aurrean, eta azken horrek egin zuen idazpena, bien sinadurarekin¹⁹².

Arotzak, bikeztatzaileak eta beste gremio batzuk kontratatzeko baimena eman zitzaion, eta naoak eraikitzeke nahikoa dirurik ez zegoenez, jakinarazi zitzaion funtsak egurrak erosteko eta arotzak nahiz zerratzatzaileak kontratatzeko bakarrik erabil zitzala. Azkenik, Artietari eskatzen zitzaion bere bi laguntzaile Diego de Covarrubias eta Esteban Gomezi zilarrezko hiru erreal

(102 marabedi) eta bi erreal (68 marabedi) ordaintzeko egunero hurrenez hurren.

1522ko irailean Elkanoren espedizioa Sevillara iritsi zenean, iltze kargamentu garrantzitsu harekin, bultzada berri bat eman zitzaion Loaisak Moluketara egin behar zuen espedizioari, eta 1522ko azaroaren 6an, Artieta, Covarrubias eta Esteban Gomezek agindu berriak jaso zituzten. Lehendabizi esan zitzairen falta ziren hiru naoak Bizkaian prestatu behar zirela. Proposatutako irteera data 1523ko martxoa izan zen, nahiz eta, azkenean, 1525eko uztailaren 24an irten zen. Armadak sei nao izan behar bazituen ere, hiru bakarrik zeudenez eraikita, eta nahiz eta hain bidaia luzerako berreraikitzea komeni zen, denbora gutxi zegoela eta, berriak ezin zirela egin erabaki zen. Horregatik agindu zitzairen Bizkaiko kostako portu eta ontzioletatik hiru nao hartzeko eta arduraz prestatzeko. Bizkaiko kostan eta Enkartazioetan eginak zeuden edo ontzioletan zeuden ontzi guztiak ikusi behar zituzten, eta hiru aukeratu, aurki zitzaketen handienak eta onenak, eta posible balitz, 400 edo 350 upel garraiatzeko gaitasuna izango lukeen bakarren bat; ontzi horiek erosteko agindua zuten bidaia hartako egokiak irudituz gero¹⁹³.

Erregearen idazkariak jakinarazi zien berak zuen informazioaren arabera Bermeoko ontziolan 350 upeleko nao bat zegoela oso egur onarekin egina. Ikustera joateko eskatu zien, eta egokia irudituz gero,

lehenbailehen bukatzeko eraikitzen. Eta gainera, eskatu zien gainontzeko bi naoak aurkitzeko ontzioletan. Armada hornitzeko artilleria, armak, munizioa eta gainontzeko guztia Bilbon egina izan behar zuela esan zitzairen¹⁹⁴.

Indietarako bidaien antolakuntzan tokiko agintariei ere aginduak bidaltzen zitzaizkien, kasu horretan Bizkaia eta Gipuzkoakoei, proiektuetan lagun zezaten. Eta nahiz eta harreman zuzenik ez izan Magallanes-Elkano espedizioarekin eta Artietarekin, hurrengo zedulek erakusten dute nola garatzen ziren prozesu horiek.

Lehenengoa 1523ko apirilaren 14an Valladoliden igorritako errege zedula da, ekialdeko Katayo aurkitzeko espediziorako eraiki zen karabelaren prestaketei buruzkoa. Bizkaiko jaurreriko, Enkartazioetako eta lur laueko udalbatza, zuzenbide, errejidore, zaldun eta kapareei berri eman zitzairen Esteban Gomez pilotuari agindu zitzaiola 50 upeleko karabela egiteko. Eta horregatik agindu zen pilotuari emateko behar zuen egurra, iltzeak eta sokak, eta baita ere behar zituen arotz, bikeztatzaile eta gainontzeko guztia, bidezkoa zena ordainduz¹⁹⁵.

Egun horretan bertan errege zedula bat bidali zen Bizkaiko kostako hiru hiribilduetara Esteban Gomezi lagun ziezaieten 50 upeleko karabela prestatzen, behar zen egitura eta profesionalak hornituz (egurrak, iltzeak, sokak, arotzak, bikeztatzaileak...) ekialdeko Katayoren bila joateko¹⁹⁶.

Bost naoak

Behin finantzazioaren arazoa konponduta, eta Nicolas de Artieta Bilbon zen bitartean artilleria, suzko armak, infanteriarentzako armak eta burdinazko beste produktu batzuk erosten, Juan de Aranda, Kontratazio Etxeko faktoreak, ontziak erosi zituen Cadizen. Naoak Cadiz eta Sanlucar-etik Sevillara eramatea 20.438 marabedi kostatu zen, eta Juan De Aranda faktoreari 3.750 marabedi¹⁹⁷ ordaindu zitzaizkion Sevillatik Cadizera ontziak eroatera joateagatik. Ontziak Sanlucar-aetik Sevillara eraman zituzten pilotuei berriz, 1.054 marabedi ordaindu zitzaizkien¹⁹⁸.

Bost naoak berriak ziren, nahikoa txikiak, XVI. mendearen lehenengo erdialdeko itsasontziei zegokien bezala, gutxi gorabehera 100 tona¹⁹⁹ izaten baizituzten;

erabat beltzak ziren agerian zeuden azalera ia guztiak, adibidez kroskoa, mastak eta aparailuak brearekin bustita zeuden. Horien ezaugarriak, jabeen izenak eta bost naoengatik ordaindu zena (1.316.250 marabedi guztira²⁰⁰) ageri dira taula honetan:

Bizkaiko ontziak erosteko prozesua 1518ko iraila eta urria bitartean egin zen, eta ez ziren falta izan erosleen eta saltzaileen arteko desadostasunak. 1518ko irailaren 17an, Ondarroako Domingo de Apalluak gutun baten bidez bere seme Pedro de Arismendy ahalordetu zuen Sevillako eskribau Bernal Gonzales de Vallesilloren aurrean; gutun horrek zioen bere ontzia, Santa Maria hain zuzen (gero Victoria izena jarri zioten), bere borondatearen aurka saldua izan zela, eta horregatik, bere semeari boterea ematen zion Kontratazio Etxeko ofizialei eskatzeko eta kobratzeko ontziaren balioari zegokion

3. Taula. Bost naoen kostua, edukiera eta jabeak

Azken Izena	Prezio ofiziala (marabedi)	Edukiera	Azken izena	Jatorrizko jabea (jatorria)
San Antonio	330.000 marb.	120 upel (144 tona)	Santa Maria	Diego de Asua (Erandio)
Victoria	300.000 marb.	85 upel (102 tona)	Santa Maria	Domingo de Apallua (Ondarroa)
Trinidad	270.000 marb.	110 upel (132 tona)	Santa Catalina de Siena	Nicolás de Artieta (Lekeitio)
Concepcion	228.750 marb.	90 upel (108 tona)	Concepción (galiziarra)	Juan Montero (Galizia)
Santiago	187.500 marb.	75 upel (90 tona)	Santiago (bretoia)	Ezezaguna (Bretainia)

diru kopurua²⁰¹. Irailaren 23an, bi jabeek eskribau beraren aurrean adierazi zuten beren ontzia bahitua izan zela Magallanesen armadarentzat, 800 dukaten truke (300.000 marb.)²⁰².

1518ko irailaren 20an, eta eskribau beraren aurrean, Erandioko (Bizkaia) Diego de Asuak adierazi zuen Kontratazio Etxeko ofizialek bere ontzi Santa Maria (gerora San Antonio deitua) bahitu zutela bere borondatearen aurka Magallanesen armadako parte izateko 880 dukaten truke (330.000 marb.)²⁰³.

1518ko urriaren 9an 720 dukat (270.000 marb.) ordaindu zitzaizkion Juan de Lequizamori (Nicolas de Artietaren izenean ari zena) Santa Catalina de Siena naoaren (gerora Trinidad) erosketagatik, Artietaren naoa hain zuzen²⁰⁴. Gallega naoa (gerora Concepcion deitua), bere jatorriaren berri eman zezakeen izenarekin, Juan Monterori erosi zitzaion 600 dukaten truke (228.000 mrb). Santiago naoa Santiago bretona²⁰⁵ bezala ageri da batean, eta izen horrek ere bere jatorriaren berri eman lezake, nahiz eta bere jatorrizko jabearen izena ezezaguna izan.

Eta beraz, egun dugun dokumentazioarekin, baieztatu dezakegu Victoria, Trinidad eta San Antonio Bizkaikoak zirela.

Fernández Vialek dio Victoria merkantzia-ontzia zela, eta egurrekin (haritza, pinua, artea), kobreakin, brontzearekin,

berunarekin eta kalamuzko oihalarekin egina zegoela. Fernández Vialek dioenez gainalde nagusiaren luzera 21,68 m. izan zitekeen, luzera osoa 25,9 m., eta gehieneko erruna berriz, 6,6 m.²⁰⁶. 3-4 korapiloko gehieneko abiadura hartzen zuen (6-7 km/orduko). 102 tona garraia zitezkeen, 190 tona pisatzen zituen guztira eta 286 m² oihal zituen²⁰⁷.

Fernández Vialek Victoria ontziari buruz ematen dizkigun datuak ez datoz bat Kana-dako uretan aurkitutako San Juan naoaren ontzi-hondakinekin (lehen aipatu duguna). Aztertu duten ikertzaileek diotenez, nao horrek 200 tona inguru zituen, hiru ontzi-gain eta hiru masta. 22 m.-ko luzera zuen, 7,56 m.-ko erruna eta 4,01 m.-ko garaiera²⁰⁸. Datu horiek estrapolatuz Victoria naoaren luzera 20 metrora ez litzatekeela iritsiko pentsa dezakegu. Rodríguez Gonzalezek ere armadako naoen neurriak txikiagotu egiten ditu, eta bere ustetan, hoge metroko luzera eta sei metroko erruna izango lukete²⁰⁹.

Armadaren prestatze-lanak

Naoak erosi ondoren, lehorreratu egin ziren barruak garbitzeko, karenatzeko eta bikeztatzeko. Ontziaren kroskoa lehorrean utzi eta albo baten gainean etzaten zen, beste alboan lan egin ahal izateko. Egin-

dako konponketen kostua oso handia izan zen, 910.000 marabedi, naoen hasierako kostuaren %70a alegia; ontziak egoera onean geratu ziren. Ontziak prestatzeko prozesua 1518ko urritik 1519ko irailean Sanlucar-etik irten zen arte luzatu ziren. Laster hasi ziren agertzen espedizioaren antolaketa eta prestaketan parte hartu behar zuten euskaldunen izenak, eta baita ontzien konponketa-lanetan aritu behar zutenena ere.

Magallanesen armadarentzat egindako gastuen zerrenda xehatuan, abuztuaren 19an Artietari bidalitako 1.500 dukatak eta gero, euskaldun bati egin zitzaion lehenengo ordainketa egunean hiru errealeko (102 marabedi) soldata izan zen, abuztuaren 27an ordaindua Cristobal Vizcainori Sanlucar-en eta Cadizen hamar egun pasatzeagatik, “ontziak bahitu eta haien berri ematera” joanda ²¹⁰.

Baina jarduera nabari handitu zen urriaren hasieratik aurrera. Lehen ere esan dugu protagonismo gehien duen pertsonetako bat Domingo de Ochandiano bizkaitarra izan zela, kontabilitatearen arduraduna zelako eta ordainketak ere berak egiten zituelako. Urriaren 3an 300 dukateko (112.500 marabedi) ²¹¹ ordainketa bat ageri da, eta berak egindako beste hainbat ordainketa ageri dira hortik aurrera. Azaroaren 9an aurreko hilean ²¹² egindako ordainketen zerrenda bat dago. Urriaren 7an Ochandianok Rodrigo de Garayri ²¹³ ordaindutako kantitateari

buruzko informazioa dago. Concepcion ontzian egindako lanengatik Martin de Areizaga eta Cristobal Vizcaino arotzei eta Pedro de Artieta, Miguel de Azcarate eta Diego de Artieta bikeztatzaileei egindako ordainketak ageri dira azaroaren 27an, larunbata ²¹⁴.

Juan eta Rodrigo Garay espediziorako materialaren hornitzaileak izan ziren. Juan de Garayri egindako lehenengo ordainketa 1518ko urriaren 15ekoa da, eta azkena Rodrigo de Garayri egindakoa, 1519ko abuztuaren 27an, espedizioa abiatu baino pixka bat lehenago. Idazpenak hauek dira:

4. Taula. Juan eta Rodrigo de Garayk hornitutako gaiak

Kontzeptua	Hornitzailea	Data	Kostua
15.500 burdinezko iltze ²¹⁵	Juan de Garay	1519ko urriak 15	9.330 marb.
46.350 iltze "estoperol" motakoak (buru handiko iltze motzak) ²¹⁶	Juan de Garay	1519ko azaroak 12	11.587 marb.
Hainbat hornigai eta lan	Rodrigo de Garay	1518ko urriak 7	1.985 marb.
Hainbat hornigai eta lan ²¹⁷	Rodrigo de Garay	1518ko abenduak 6	1.565 marb.
Garraioak eta beste gauza batzuk ²¹⁸	Rodrigo de Garay	1519ko otsaila	1.060 marb.
Garraioak, pegarrak, oihalentzako hariak ²¹⁹	Rodrigo de Garay	1519ko apirilak 8	3.234 marb.
Hogei libera (9,2 kg) oihaletarako hari ²²⁰	Rodrigo de Garay	1519ko maiatzak 15	336 marb.
Bi arroa iltzupa (23 kg) eta arroa bat olio ²²¹	Rodrigo de Garay	1519ko ekainak 1	289 marb.
18 brazako espartuzko sokak ²²²	Rodrigo de Garay	1519ko ekainak 11	136 marb.
Bost anega gatz ²²³	Rodrigo de Garay	1519ko ekainak 12 eta 17	124 marb.
Arroa bat olio ²²⁴	Rodrigo de Garay	1519ko uztailak 29	120 marb.
Giltzarrapo bat, bost giltza, gatz, zahia ²²⁵	Rodrigo de Garay	1519ko abuztuak 14	1.243 marb.
Kontzeptua puskatuta dago (azken ordainketa) ²²⁶	Rodrigo de Garay	1519ko abuztuak 27	4 marb.

Arotzak, bikeztatzaileak, marinela eta peoiak.

Lehenengo ordainketei buruzko erreferentziak, eta beraz, arotz eta bikeztatzaileek ontzietan egindako lanei buruzkoak, 1518ko urriaren 7 eta 9koak²²⁷ dira San Antonio ontzian egindako lanengatik; eta urriaren 10etik 15era bitartekoak, Victoria ontzian egindako lanengatik²²⁸. 10 hilabetez, 57

arotzek eta 66 bikeztatzailek, askotan morroi edo semeen laguntzarekin, ontziak prestatzeko lanetan aritu ziren²²⁹. Lanean aritu ziren baita ere maisuak, kontramaisuak, marinela, arotzak, bikeztatzaileak, peoiak....kontratuak eguneko edo hileko egin zitezkeen. Maisu eta kontramaisuei hileko kontratuak egiten zitzaizkien gehienetan, eta gainontzekoenak berriz, eguneko egiten ziren. Arotzek eta bikeztatzaileek eguneko 85 marabedi kobratzen zituzten, eta beren laguntzaileek 10 eta 85 mrb artean²³⁰.

5. Taula. Espezietako armadaren prestatze-lanetan ordaindutako soldatak (mrb)

	Soldata eguneko	Soldata hileko
Maisuak	-	1.800
Kontramaisuak	-	1.800
Arotzak	85	-
Bikeztatzaileak	85	-
Marinelak	37,5	1.130
Peoiak	34-40	-

Azaroaren lekoak dira ontzietan lan egin zuten euskaldunei egindako lehenengo idazpenak: Pedro de Lezama marinela eta Juan de Agirre, bikeztatzailea²³¹. Hurrengo hilabeteetan gutxienez bederatzi arotz, hamabost bikeztatzaile, hiru itsasgizon eta bederatzi peoi euskaldun aritu ziren naoen prestaketa lanetan. Arotzen %16 (7/57) eta bikeztatzaileen %23 (15/66) euskaldunak ziren.

Naoetan lan egiten zuten arotzak eta gastuen zerrenda xehatuan behin baino gehiagotan ageri direnak hauek dira:

Cristobal Ugalde
Cristobal Vizcaino
Domingo de Yarza
Juan de Umendi
Juanes de Rrexil (Errezil)
Juanes Vizcaino
Martín de Arteaga Areizaga
Martín de Azcoitia
Pedro de Sautua

6. Taula. Naoen prestaketa lanetan aritu ziren arotz euskaldunak

Horietatik bi, Domingo de Yarza eta Pedro de Sautua, Magallanes-Elkano espedizioarekin itsasoratu ziren ondoren. 1519ko maiatzaren 15ekoa da Domingo de Yarzari egindako lehenengo ordainketa, 19 eguneko lanagatik Concepción eta San Antonio naoetan, ponpen atakak eta beste lan batzuk eginez maiatzaren 11tik hilabete bukaera arte, egunean bi erreal eta erdi (guztira 1.615 marabedi) kobratuz²³². Ekainaren 11an erabaki zen Domingo de Yarza-ri, Santiago naoko arotz lanetan zebilena ekainaren 1az geroztik, soldata finko bat ematea, eta hilabete erdi aurrez ordaindu zitzaion (900 marabedi)²³³. Uztailaren 1ean eta 14an beste ordainketa batzuk ageri dira 900 marabedikoak²³⁴. 1519ko uztailaren 26an Pedro de Sautuari egindako ordainketa bat ageri da, egun eta erdiko lanagatik²³⁵.

Naoetan lanean ibili ziren euskal bikeztatzaileak hauek izan ziren:

Antón de Aguirre	Machin de Azcoitia
Antón de Basozabal	Martín García
Diego de Artieta	Miguel de Azcarate
Domingo de Ondiz	Miguel Vizcaino
Juan de Aguirre	Pedro de Artieta
Juan de Capatarieche	Pedro de Bilbao
Juan de Chevarría	Pedro de Galdona
Juan de Vergara	

7. Taula. Naoen prestaketa lanetan aritu ziren euskal bikeztatzaileak

Bikeztatzaileek egunean 85 marabediko soldata jasotzen zuten. 1518ko abenduan batzuk soldata finkoa zuten, adibidez, Anton Aguirrek 1.600 marabedi jasotzen zituen hilean²³⁶. Naoan lanean ibili ziren bi bikeztatzaile espedizioarekin itsasoratu ziren ondoren: Pedro de Bilbao eta Anton Basozabal. Lehenengoa San Antonio naoko bikeztatzailea zen, eta ekainaren 11an, zegokion soldataren idazpena egiteko agindu zen; eta horrenbestez, 900 marabedi jaso zituen ekaineko hilabete erdiko lanagatik, Elorriaga maisua izan zen fidatzailea²³⁷. Uztailaren 14an berriz, Anton de Basozabal bikeztatzaileari egindako ordainketa bat agerida lehenengo aldiz, 1.365 marabedikoa; Anton de Basozabalek Concepcion naoaren hegaletan eta ontzigainean lan egin zuen 16 egunez²³⁸.

Itsasgizon euskaldunak ere aritu ziren naoen prestaketa lanetan. Egunean 37,5 marabedi jasotzen zituzten, eta hilabetekako kontratuak zituztenak berriz, 1.130 marabedi hilean. Azaroaren 1ean 1.130 marabedi ordaindu zitzaizkion Pedro de Lezamari²³⁹, eta abenduaren 1ean 565 marabedi Ochoa marinelari, hilabete erdiko lanagatik²⁴⁰. 1519ko ekainaren 11an 565 marabediko²⁴¹ ordainketa bat egin zitzaion lehenengo aldiz Sebastian de Olarte marinelari, eta uztailaren 1ean²⁴² ordainketa errepikatu zen; Sebastian de Olarte espedizioan itsasoratu zen ondoren.

Naoetan lan egiten zuten peoiek eguneko 34 marabedi²⁴³ kobratzen zituzten, eta egiten zuten lanetako bat oihalak jostea izaten zen. Horietako bat Juan Sebastianen anaia zen, Ochoa de Elcano, Concepción naoan lan egin zuena²⁴⁴.

8. Taula. Ontzien prestaketa lanetan aritu ziren marinel eta peoi euskaldunak

Pedro de Lezama (marinela)
Ochoa (marinela) ²⁴⁵
Sebastián de Olarte (marinela)
Juanes de Hesarmendi (peoia)
Martín de Uruyeta (peoia)
Martín de Bilbao (peoia)
Domingo de Bilbao (peoia)
Juan de Lequeitio (peoia)
Sancho de Bermeo (peoia)
Ochoa del Cano (peoia)
Nicolás de Lequeitio (peoia)
Martin de Lequeitio (peoia)

Maisuak eta kontramaisuak: Elkano, Elorriaga eta Acurio

Magallanes-Elkano espedizioa 31 euskaldunetarik, ontziak prestatzeko lanetan ageri den lehenengoa Juan de Elorriaga gipuzkoarra da, 1518ko urriaren 1ean hasi zena lanean San Antonio naoko maisu gisa. Idazpen batean ageri da bi hilabeteko soldata zor zaiola, hileko 1.530 marabedi²⁴⁶. Otsailean 1.800 marabedira²⁴⁷ igo zitzaion soldata, eta soldata hori jaso zuen armada itsasoratu zen arte.

DOCUMENTOS DEL ARCHIVO DE INDIAS

m^o andres marin^o ot^o t^o. . . . U DLXV
 ant^o salamon q^o maestre-de la nao concepcion a 1 U D. U DCCL
 luys napolitano marin^o ot^o t^o. . . . U DLXV
 juan cresco ot^o t^o. U DLXV
 malo marin^o ot^o t^o. U DLXV
 fran^{co} andero ot^o t^o. U DLXV
 gines de mafra ot^o t^o. U DLXV
 ju^o sabastiā del cano q^o m^o de la nao vt^o
 començo a servir sabado ocho de hen^o de
 1 U DXIX ha de aver de sueldo e mantenimy^o 1 U D por mes dierōsele por el
 sueldo de syete dias un ducado U CCCLXXV

1519ko urtarrilaren 8an, larunbata, Juan Sebastian Elkano Victoria naoko tripulazioa osatzera dator kontramaisu lanak eginez, eta 7 eguneko lanagatik jaso zuen lehenengo soldata dukat bat (375 marabedi) izan zen²⁴⁸.

Pixka bat lehenago, 1518ko abenduan, Elkanok Magallanes ezagutu zuen, bere bidez jakin izan dugun bezala²⁴⁹. Elorriagak bezala, hamabostetik behin jasotzen zuen soldata. Otsaileko hamabostetik behineko soldaten ordainketan (900 marabedi), 1519ko otsailaren 7an eta 21ean eginak, Elkanoren egoera aldatu egin zen, eta Concepcion²⁵⁰ naoarekin kontramaisu bezala ageri da, hilean 1.800 marabediko soldata batekin. Martxoaren 31an egindako ordainketan bere kargua aldatu egin zen, Concepción²⁵¹ naoarekin maisu gisa ageri baita, eta kargu horrekin itsasoratu zen espedizioan, baina lehengo soldata berarekin.

Aipagarria da Gipuzkoako bi maisuek, Elorriagak eta Elkanok, egindako lan handia, otsailetik abuztura arte, armadaren prestaketa lanetan. Ordainketak egiten zaizkie biei pertsonala kontratatzeagatik eta materiala erosteagatik, hala nola otarreak, kandelak, sareak, oihaletak josteko orratzak eta beste batzuk.

Juan de Acurio Bermeotarrak munduaren inguruko bira Victoria naoran amaitu zuen arren, Concepcion naoko itsasgizon-kontramaisu gisa itsasoratu zen espedizioan martxo hasieran, Elkanorekin batera, eta 565 marabediko soldata jaso

zuen hilabete erdiko lanagatik martxoaren 13an²⁵². Apirilaren 17ko ordainketan, kontramaisu gisa ageri da Elkano ordezkatzuz, azken hori maisu bilakatu baitzen martxoan, baina Acurion soldata bera jasotzen jarraitu zuen²⁵³.

Beste hornitzaile batzuk

Bizkaitar eta gipuzkoarrak etengabe ageri dira hainbat jardueretan. 1518an 1.000 marabedi ordaindu zitzaizkion Hernando de Falça bilbotarrari “estoperol” motako 5.000 iltzerengatik²⁵⁴; Martin de Achotegui berriz, 3.750 marabedi ordaindu zitzaizkion “estoperol” motako 15.000 iltzerengatik²⁵⁵. Juan de Huguibari ere ordainketak egin zitzaizkion taula eta txarrantxak²⁵⁶ garraiatzeagatik, eta armadaren kostuari buruzko oharra idazteko liburu bategatik 3 erreal ordaindu zitzaizkion (102 marabedi)²⁵⁷.

1519an Cristobal Vizcainok hainbat material hornitu zituen, horien artean Concepcion naoarentzako polea²⁵⁸ eta ponpa bat²⁵⁹. Ondoren, Domingo de Alzolari egindako ordainketak ageri dira, Concepcion naoko gabiaren masta bategatik eta belazurrun²⁶⁰ bategatik²⁶¹; Juan Lopez de Arechavaletari ere Trinidad²⁶² naoaren bela zurruntzako mastengatik ordaindu zitzaion, eta Martin de Achotegui berriz, 4 hazbeteko 8.500

iltzerengatik²⁶³ ordaindu zitzaion abuztuaren 4an. Ontziaren egitura eta Nicolas de Artietak erositako artilleria Bizkaitik Sevilleira eramane zuen ontzietako bat Juan Ortiz de la Renteria Lekeitioarrarena izan zen, eta horrenbestez, ordainketa bat egin zitzaion²⁶⁴.

Armadaren guztizko kostua 8.751.125 marabedi izan zen, eta horietatik 416.790 kendu beharko lirateke flota irtetean Kontratazio Etxean gordeta geratu zen materialagatik. Material horren banaketan parte hartu zuten gero Lopez de Recalde, Ochandianok eta Matienzok. López de Recalde hamaika olanen kargu egin zen, baita polbora upel batena eta beste material batzuren ere. Ochandiano kexa zen soberan zeuden hainbat gauza ez zirelako bere eskuetara iritxi²⁶⁵. Eta beraz, armadaren bukaerako benetako kostua 8.334.335 marabedi izan zen; horietatik Cristobal Harok 1.880.216 marabedi jarri zituen, eta erregeak berriz, 6.454.209 marabedi²⁶⁶.

9. Taula. Armadaren guztizko kostua eta partida bakoitzarena

Naoen eta armamentuaren kostua	3.912.241 marb.	%44,7
Astrolabioak, despentsa, aparailuak...	415.060 marb.	%4,7
Elikagaiak	1.589.551 marb.	%18,2
Trukerako salgaiak	1.154.504 marb.	%13,2
Mercaderías para intercambio	1.679.769 marb.	%19,2
Guztira	8.751.125 marb.	%100

Artilleria

Merezi du armadan erabilitako artillerian arreta jartzea, neurri handi batean Euskal Herrian eraiki eta erosi ziren armak: bonbarda lodiak, kainoi astunak, falkonete eta kainoi txikiak²⁶⁷.

Burdinazko bonbarda lodiak bi zatiz osatutako kanoi handiak ziren: jaurtigaia jartzeko kanoia eta zerbitzaria (jaurtigaia zituena), polbora jartzen zen tokia. Bonbarda egurrezko pieza zurrun baten gainean jartzen zen eta berari gogor lotzen zitzaion kalamuzko sokarekin. Gerora lau gurpil gehitu zitzaizkion atzerapenaren efektua leuntzeko. Gehienetan 27 kilo arteko burdinazko pilotak erabiltzen zituzten eta mila

metroko distantzia batera irits zitezkeen. Kainoi astunak artilleriako pieza pisutsuak ziren, bonbarden familiakoak²⁶⁸.

Falkoneteak, burdinazko kainoi txikiagoak izaten ziren, eta gehienez ere 6 cm.-ko diametroa izaten zuen barruan; burdinazko edo berunezko jaurtigaia izaten zituzten, eta 800 eta 1.200 gr. arteko pisua. Tiroaren irismena inoiz ez zen 1.200 metro baino gehiago izaten.

Kainoi txikiak falkoneteen antzekoak ziren, baina tamainaz eta pisuz txikiagoak, burdinazkoak, eta kainoiaren barneko diametroa 5 cm. baino txikiagoa zen; burdinazko eta berunezko pilotak jaurtitzen zituzten, 75 eta 85 gramo arteko pisua izaten zutenak. 600 metro ingurura iristen ziren.

10. Taula. San Antonio ontziko artilleria eta infanteriako armak

Bi bonbarda handi lau zerbitzarirekin (jaurtigaia dituztenak)
Kainoi astuna bi zerbitzarirekin
Hamasei kainoi txiki berrogeita bost zerbitzarirekin
Falkonete bat hiru zerbitzarirekin
Berrogeita hamazortzi dozena gezi
Hamahiru balezta tenkatzaileekin
Bi balezta tenkatzailerik gabe
Hogeita lau haga
Hamalau dozena dardo
Zortzi dozena eta erdi lantza
Erredolak, bular-oskolak, bizkar-babesak, zelata, kasket eta aho-masailezurrerako babesak

Orotara ontziek armamentu dezente eramán zuten, artilleriako 110 pieza txiki, 17 falkoi, 17 bonbarda lodi eta 3 kainoi astun²⁶⁹. Horrez gain, muniziorako pilotak (jaurtigaia) egiteko beharrezko tresna guztiak ontziratu zituzten: moldeak, pertz handi bat, beruna barretan, eta baita ikatza eta azufrea ere polbora egiteko²⁷⁰. Infanteriako armei dagokienez, kapitain nagusiarentzat

(Magallanes) arnesa, bi koselete eta sei ezpata-xafla hartu ziren. Ezagutzen dugu armen eta artilleriaren banaketa Trinidad²⁷¹, Santiago²⁷², Concepcion²⁷³ eta San Antonio²⁷⁴ ontzietan. Azkenarena deskribatuko dugu:

Armamentuaren koste osoa, artilleria barne hartuta, 539.216 mrb. izan zen, era honetan banakatuta²⁷⁵:

*11. Taula- Armamentuaren kostua guztira
(marabeditan)*

Infanteriako armak	212.945
Artilleria	160.135
Polbora	114.505
Munizioak, beruna eta moldeak	40.245
Beste batzuk	11.386
Guztira	539.216

5. Kapitulua

EUSKAL

ESPEDIZIOKIDEAK

Euskal espediziokideak

1519ko irailaren 20an flota Sanlucar de Barramedatik irten zen 243 gizonekin; horiei gehitu behar zaizkie Tenerifen igo ziren lau gizon, eta lehorrean geratzea erabaki zuen beste bat kendu behar da. Badakigu horietatik 138 itsasgizonak zirela (kapitainak, pilotuak, maisuak, kontramaisuak, marinelak, itsasmutilak eta morroiak), lau ziren zirujau eta bizargileen kopurua,

eta beste hamazortzi hainbat funtzio zituztenak (erlijio-gizonak, eskribauak, aguazilak, itzultzaileak, despentsariak, kapitainordeak). Kapitainordeak arma gizonak ziren, morroiak eta kapitainen konfiantzazko pertsonak.

Euskal espedizionarioei buruz egindako lehen azterketak erakusten du espedizioa osatzen duten gizonetatik Euskal herria dela ekarpen handiena egiten duena (31) Andaluziaren atzetik (73), italiarren (27) eta portugaldarren (24) aurretik.

12. Taula. Espediziokideak eta euskaldunak
(parentesi artean) guztira

	SAN ANTONIO	TRINIDAD	CONCEPCION	VICTORIA	SANTIAGO	GUZTIRA
Kapitainak	1	1	1	1	1	5
Pilotuak	2	1	1	1	0	5
Maisuak	1 (1)	1	1 (1)	1	1	5 (2)
Kontramaisuak	1	1	1 (1)	1	1	5 (1)
Marineal	11 (4)	16 (1)	10 (2)	11 (0)	9	57 (7)
Itsasmutilak	9 (3)	11	10 (2)	10 (4)	9	49 (9)
Pajeak	2	4	2 (1)	2 (1)	2	12 (2)
Arotzak	1 (1)	1	1 (1)	1 (1)	1	5 (3)
Bikeztatzaileak	2 (2)	1	1 (1)	1	1	6 (3)
Arma-gizonak	16 (1)	20	13	12	6 (1)	67 (2)
Despentsariak	1 (1)	1	1	1	1	5 (1)
Zirujau eta bizargileak	1 (1)	2	1	0	0	4 (1)
Beste batzuk	4	5	3	5	1	18
Guztira	52 (14)	65 (1)	46 (9)	47 (6)	33 (1)	243 (31)

Bost maisuetatik bi gipuzkoarrak izateaz gain, armadako bost arotzetatik hiru eta sei bikeztatzaileetatik hiru euskaldunak ziren, eta beraz garbi dago esperientzia handia zutela naoetan hain garrantzitsuak ziren lanbide tekniko horietan. 67 arma-gizonen artean euskaldun bakarra zegoen. Espediziozko hamabost lonbaderoak (artilleroak) atzerritarak ziren (frantsesak, flandiarak eta alemaniarak), Bristolgo ingeles baten agindupean²⁷⁶.

Espedizioan hil ziren hiru nafar ere ontziratu ziren. Diego de Peralta Victoria naoko merioa²⁷⁷ zen eta sortzez, Peraltakoa.

13. taula. Espediziokideen hileko soldatak (marabeditan)

Kapitain nagusia	12.166
Kapitaina	3.333
Maisua	3.000
Pilotua	2.500
Kontramaisua	2.000
Arotza	1.875
Bikeztatzailea	1.875
Marinela	1.200
Despentsaria	1.200
Bizargina	1.200
Baleztaria	1.200
Itsasmutila	800
Pajea	500

Gaixotuta (eskorbutoa) hil zen ozeano Barean 1521eko urtarrilaren batean. Lope Navarro Victoria naoko marinela zen, Tudelan jaioa. Itzulerako bidaian hil zen Atlantikoan, gaixotuta, 1522ko ekainaren 8an. Juan Navarro Concepcion naoko marinela zen, Iruñarra, eta Trinidad naoan hil zen 1523ko otsailaren 28an.

Armadan zihoazten gizonak profesional onak ziren. Elkano beraren hitzetan, bera eta gainontzeko maisuak pozik zeuden naoetan zuten jendearekin²⁷⁸. Gainera, Elkanok dio Sevillan armadarako gizonak biltzeko arazoak izan zituztela soldatak baxuak zirelako²⁷⁹. Kapitain nagusiak 12.166 marabedi kobratzen zituen eta pajeek 500 marabedi.

Magallanesen armadaren antolaketa eta prestaketa lanetan ibili ziren zenbait bizkaitar eta gipuzkoar espedizioan itsasoratu zirela ikusi dugu; horien artean daude Juan de Elorriaga eta Juan Sebastian Elkano maisuak, Juan de Acurio kontramaisua, Domingo de Yarza arotza, Anton de Basozabal eta Pedro de Bilbao bikeztatzaileak eta Sebastian de Olarte itsasgizona. Eta aurrerago beste 24 euskaldun batu zitzaizkien, guztira 22 bizkaitar eta 9 gipuzkoar²⁸⁰.

Beste bi euskaldun ere egon zitezkeen tartean: Leon de Ezpeleta eta Blas de Durango. Lehenengoa, Ezpeleta, Trinidad naoko eskribaua zen, eta ziurrenik Lapurdiko izen bereko herrikoa izango zen, nahiz eta inon ez den ageri bere jaioterria. Cebuko otu-

runtzan hil zen 1521eko maiatzaren 1ean. Juan Gil-ek Blas de Durango aipatzen du; ez da zerrendan ageri, ez dugu bere lanbidea ezagutzen, eta Trinidad naotan hil zen 1522ko irailaren 10ean²⁸¹.

31 euskaldunen zerrenda hau da:

14. Taula. Espedizioko euskaldunen zerrenda, lanbideak, jatorria eta zein naotan itsasoratu ziren

Izena	Lanbidea	Jatorria	Herria	Naoa
Antón de Basozabal	Bikeztatzailea / kontramaisua	Bizkaia	Bermeo	Concepcion
Domingo de Barrutia (Urrutia)	Marinela / eskribaua	Bizkaia	Lekeitio	Trinidad
Domingo de Yarza	Arotza	Gipuzkoa	Deba	Concepcion
Juan de Acurio	Kontramaisua	Bizkaia	Bermeo	Concepcion
Juan de Aguirre	Marinela	Bizkaia	Bermeo	Concepcion
Juan de Arratia	Itsasmutila	Bizkaia	Bilbo	Victoria
Juan de Elorriaga	Maisua	Gipuzkoa		San Antonio
Juan de Menchaca	Baleztaria	Bizkaia	Bilbo	San Antonio
Juan de Orue	Itsasmutila	Bizkaia	Mungia	San Antonio
Juan de Sanfelices (Juan Vizcaino)	Itsasmutila	Bizkaia	Somorrostro	Victoria
Juan de Zubileta	Pajea	Bizkaia	Barakaldo	Victoria
Juan Sebastian Elcano	Maisua	Gipuzkoa	Getaria	Concepcion
Juan Ortiz de Gopegui	Despentsaria	Bizkaia	Bilbo	San Antonio
Juanes de Irun Irazo	Itsasmutila	Gipuzkoa	Irun	San Antonio
Juanes de Segura	Marinela	Gipuzkoa	Segura	San Antonio
Lope de Ugarte	Marinela	Bizkaia		San Antonio
Lorenzo de Iruña	Marinela	Gipuzkoa	Soravilla	Concepcion
Martin Barrena	Kapitainordea	Gipuzkoa	Ordizia	Santiago
Martin de Aguirre	Itsasmutila	Bizkaia	Arrigorriaga	San Antonio

.../...

Izena	Lanbidea	Jatorria	Herria	Naoa
Martín de Garate	Arotza	Gipuzkoa	Deba	Victoria
Martin de Goitisol	Bikeztatzailea	Bizkaia	Bakio	San Antonio
Martin de Insaurraga (Machín Vizcaino)	Itsasmutila	Bizkaia	Bermeo	Concepcion
Ochote de Erandio	Itsasmutila	Bizkaia	Bilbo	Victoria
Pedro de Bilbao	Bikeztatzailea	Bizkaia	Bilbo	San Antonio
Pedro de Chindarza (Chindurza)	Pajea	Bizkaia	Bermeo	Concepcion
Pedro de Laredo	Marinela	Bizkaia	Portugalete	San Antonio
Pedro de Muguertegui (Peru de Bermeo)	Itsasmutila	Bizkaia	Bermeo	Concepcion
Pedro de Olabarrieta	Bizargina	Bizkaia	Galdakao	San Antonio
Pedro de Sautua	Arotza	Bizkaia	Bermeo	San Antonio
Pedro de Tolosa	Itsasmutila/ Despentsaria	Gipuzkoa	Tolosa	Victoria
Sebastian de Olarte	Marinela	Bizkaia	Bilbo	San Antonio

Bi maisu, kontramaisu bat, zazpi mari-nel, bederatzi itsasmutil, bi paje, hiru arotz, hiru bikeztatzaile, despentsari bat, bizargin bat, armagizon bat eta kapitainorde bat itsasoratu ziren.

Horietatik hamalau San Antonio naoan itsasoratu ziren, bederatzi Concepcion naoan, sei Victorian eta bana Trinidad eta Santiago naoetan. Horretan zerikusirik izango zuen San Antonioko maisu Elorriaga, eta Concepcion naoko maisu eta kontramaisu Elkano eta Akurio euskaldunak izateak. Ontzi batean edo bestean joateak horietako askoren etorkizuna erabaki zuen

bidaia iraun zuen bitartean izan ziren gertakariengatik. Esate baterako, San Antonion itsasoratu ziren gehienak Sevillara itzuli ziren naoak desertatu eta gero, eta horregatik bizirik iritsi ziren.

Juan de Arratia itsasmutila eta Juan de Zubileta pajea izan ziren bidaia nao berdinean, Victorian hain zuzen, hasi eta bukatu zuten bakarrik. Juan Sebastian Elkano maisuak eta Juan de Acurio kontramaisuak Concepcion naoan hasi zuten bidaia eta Victoria naoko maisu eta kontramaisu izaten amaitu zuten.

15. Taula. Euskaldunen banaketa
nao eta lanbidearen arabera

	SAN ANTONIO	TRINIDAD	CONCEPCION	VICTORIA	SANTIAGO
Maisuak	Juan de Elorriaga		Juan Sebastián Elcano		
Kontramaisuak			Juan de Acurio		
Marinelak	Juanes de Segura	Domingo de Urrutia	Juan de Aguirre		
	Lope de Ugarte		Lorenzo de Iruña		
	Pedro de Laredo				
	Sebastián de Olarte				
Itsasmutilak	Juan de Orue		Martín de Insaurreaga	Juan de Arratia	
	Juanes de Irun		Pedro de Muguertegui	Juan de Sanfelices	
	Martín de Aguirre			Ochote de Erandio	
				Pedro de Tolosa	
Pajeak			Pedro de Chindarza	Juan de Zubileta	
Arotzak	Pedro de Sautua		Domingo de Yarza	Martín de Garate	
Bikeztatzaileak	Martin de Goitisoló		Antón de Basozabal		
	Pedro de Bilbao				
Arma-gizonak	Juan de Menchaca				Martín Barrena
Despentsariak	Juan Ortiz de Gopegui				
Bizargin-zirujauak	Pedro de Olabarrieta				

Espediziokide gehien eman zituen herria Bermeo izan zen, bertakoak baitziren zazpi eskifaikide, gehienak itsasgizonak (kontra-maisu bat, marinel bat, bi itsasmutil eta paje bat), baina tartean baziren arotz bat eta bikeztatzaile bat ere. Horietatik sei Concepcion naoan itsasoratu ziren. Espediziokideak kontratatzeko eginbeharra maisuari zegokion arren, kasu honetan Elkanori, ziurrenik Akuriok, Bermeotarra izanik, zeresan handia izan zuen bermeotarren ontziratzean. Oso litekeena da beraien artean harreman estua izatea. Juan de Aguirrereren emazte Maria Ochoa de Acuriok eta Juan de Acuriok abizen bera izateaz gain, bermeotarrak ziren, eta horregatik litekeena da koinatuak izatea. Martin de Insaurraga eta Pedro de Chindarza ere senideak ziren, lehengusuak agian²⁸². Akuriori Bermeoko Martin de Insaurragaren kintalen ziurtagiria eman zitzaien, azken hori Victoria naoan hil baitzen itzulerako bidean.

Ondarroa eta Lekeitio arrantzale herriak izanda, eta nahiz eta Victoria naoa Ondarroakoa izan eta Trinidad Lekeitiokoa, bi herri horietatik espediziokide bakarra ontziratu zen, Domingo de Barrutia, Trinidad naoko marinela.

31 espediziokideetatik seik munduari bira eman zioten, eta horietatik lau Elkano-rekin itzuli ziren. Pedro de Tolosa eta Pedro de Chindurza preso hartu zituzten portugalдарrek Cabo Verden itzulerako bidaian, eta Sevillara heldu ziren Victoria naoa iritsi



23. Irudia. Euskal espediziokideen jatorria

eta hilabete batzuetara. San Antonio naoak espedizioa utzi zuen 1520ko azaroan Magallanes itsasartean, eta bertan hamaika gizon itzuli ziren, beste hamalau berriz, hil egin ziren.

Zortzi espediziokidek, bost bizkaitarrek eta hiru gipuzkoarrek, ezkondata zeudela esan zuten. Horietatik bi Sevillara itzuli ziren San Antonion, baina beste seirak hil egin ziren. Bermeon hiru alargun geratu ziren: Maria Ochoa de Acurio, Maria Ochoa de Artache eta Madalena de Marcaida.

16. Taula. Euskal espediziokideen jatorria eta heriotzaren data eta arrazoia

Izena	Lanbidea	Naoa	Heriotza data	Patua/Heriotzaren arrazoia
Sebastian de Olarte	Marinela	San Antonio	1520/02/03	Montevideo. Labankada
Juan de Elorriaga	Maisua	San Antonio	1520/07/15	San Julian. Labankadak
Martín de Garate	Arotza	Victoria	1520/08/31	Itota
Juan de Menchaca	Balezteria	San Antonio		Sevillara itzuli zen 1521
Juan de Orue	Itsasmutila	San Antonio		Sevillara itzuli zen 1521
Juan Ortiz de Gopegui	Despentsaria	San Antonio		Sevillara itzuli zen 1521
Juanes de Irun Iranzo	Itsasmutila	San Antonio		Sevillara itzuli zen 1521
Lope de Ugarte	Marinela	San Antonio		Sevillara itzuli zen 1521
Martin de Aguirre	Itsasmutila	San Antonio		Sevillara itzuli zen 1521
Martin de Goitisol	Bikeztatzailea	San Antonio		Sevillara itzuli zen 1521
Pedro de Bilbao	Bikeztatzailea	San Antonio		Sevillara itzuli zen 1521
Pedro de Laredo	Marinela	San Antonio		Sevillara itzuli zen 1521
Pedro de Olabarrieta	Bizargina	San Antonio		Sevillara itzuli zen 1521
Pedro de Sautua	Arotza	San Antonio		Sevillara itzuli zen 1521
Ochote de Erandio	Itsasmutila	Victoria	1521/03/21	Eskorbutoa ozeano Barean
Martin Barrena	Kapitainordea	Santiago	1521/04/09	Eskorbutoa ozeano Barean
Juanes de Segura	Marinela	San Antonio	1521/05/01	Cebu-ko erasoan hila
Domingo de Barrutia	Marinela	Trinidad	1521/07/29	Brunein preso hartua
Pedro de Muguertegui	Itsasmutila	Concepcion	1521/09/16	Bat-bateko heriotza
Lorenzo de Iruña	Marinela	Concepcion	1522/05/13	Eskorbutoa ozeano Barean
Juan de Sanfelices	Itsasmutila	Victoria	1522/05/17	Eskorbutoa ozeano Barean
Martin de Insaurraga	Itsasmutila	Concepcion	1522/06/01	Gaixotasuna Atlantikoan
Pedro de Chindarza	Pajea	Concepcion		Cabo Verden atxikia
Pedro de Tolosa	Itsasmutil eta despentsaria	Victoria		Cabo Verden atxikia
Juan de Acurio	Kontramaisua	Concepcion		Victorian itzuli zen
Juan de Arratia	Itsasmutila	Victoria		Victorian itzuli zen
Juan de Zubileta	Pajea	Victoria		Victorian itzuli zen
Juan Sebastian Elcano	Maisua	Concepcion		Victorian itzuli zen
Juan de Aguirre	Marinela	Concepcion	1522/10/05	Trinidad naoan hil zen
Domingo de Yarza	Arotza	Concepcion	1522/10/14	Trinidad naoan hil zen
Antón de Basozabal	Bikeztat. eta kontramaisua	Concepcion	1523/02/28	Moluketan desagertua, portugaldarren preso

17. Taula. Espediziokideen emazteak

Izena	Lanbidea	Jatorria	Emaztearen izena
Juan de Elorriaga (hil egin zen)	Maisua	Gipuzkoa (Sevillako bizilaguna)	Juana de la Haya
Juan de Aguirre (hil egin zen)	Marinela	Bermeo	Maria Ochoa de Acurio
Pedro de Laredo (Itzuli egin zen)	Marinela	Portugalete	Maria de Villar
Juanes de Segura (hil egin zen)	Marinela	Segura (Sevillako bizilaguna)	Catalina González
Martín de Insaurraga (hil egin zen)	Itsasmutila	Bermeo	Maria Ochoa de Artaeche
Martín de Garate (hil egin zen)	Arotza	Deba	Catalina Aisa
Pedro de Sautua (itzuli egin zen)	Arotza	Bermeo	Maria Pérez
Anton de Basozabal (Hil egin zen)	Bikeztatzailea	Bermeo	Madalena de Marcaida

Banaketa kargu edo lanbidearen arabera

Gaingiroki, espediziokideak bitan banatzen ziren: ofizialak eta marinelak. Naoetako ofizialak talde heterogeneoa osatzen zuten, eta horien artean hainbat talde egon zitezkeen. Lehenengoa kapitainak, maisuak eta pilotuak osatuko lukete, benetan ontzian agintzen zutenak. Agintea zuen bigarren taldea osatuko lukete kontramaisuak, despentsariak eta aguazilak. Azkenik, beste talde bat egongo litzateke, arotzak, bikeztatzaileak, eskribauak eta bizargin-zirujauak osatua, baina horiek ez zuten aginterik.

A.- Maisuak


Maisua ontziko ofizialen taldekoa zen, eta kapitainarekin eta pilotuarekin batera, ontziko agintari gorena. Arrantza eta merkataritzako ontzietan ez zen kapitainik izaten, eta maisua izaten zen agintari gorena. Maisuak 32 urte izaten zituen batez beste. Ontzia gidatzen zuten eta aginduak ematen zituzten alde bateko ontzigainetik edo popako alkazarretik, eta gainontzeko eskifaia-kideetatik aparte xamar bizi ziren. Maisua ontziko bigarrena zen, tripulazio burua eta kapitainaren ordezkoa ontziaren agintean. Kapitainek ohorezko edo konfiantzazko kargua izaten zuten, gehienetan

ezjakinak ziren itsasoko kontuetan, eta beren funtzioa militarra zen oinarrian.

Maisua zen ontzia gobernatzen zuena eta eskifaikideak bilatu eta kontratatzeko ardura zuena, gehienetan kontramaisuaren laguntzarekin betetzen zuen eginkizuna. Horregatik jende boteretsua ezagutu eta kontaktuak izan behar zituen. Maisu onek nabigatzen ere bazekiten eta pilotua ordezkatzeko gaituak egoten ziren. Kontratazio etxeko Ordenantzak beti saiatu ziren maisu bakoitzak zituen nabigazio-ezagutzak

frogatzen, ontzia zuzentzeko gai izan zedin larrialdi batean. Indietara itsas bidaiak egiten hasi zirenetik, merkataritza ontzietako bi kargu nagusiak betetzeko baimena, maisua eta pilotua izateko alegia, beharrezkoa zen azterketa bat egitea, eta gainera, Gaztelakoa zela edo bertakotua zegoela frogatu behar zen; hala ere, zenbait salaketen arabera, aztertzailerak ez ziren oso zorrotzak azterketa eta frogetan²⁴.

Espedizioko bost maisuetatik bi gipuzkoarrak ziren: Juan Elorriaga eta Juan



24. Irudia. Ontziratzearan egindako soldata aurrerapenak Elkanori (18.000 marb.), Akuriori (8.000 marb.) eta Anton de Basozabali (7.500 marb.)

Sebastian Elkano. Hilean 3.000 marabedi kobratzen zituzten, eta biek aurrez kobratu zuten sei hilabeteko soldata (18.000 marabedi) irten aurretik²⁸⁴. 1519ko maiatzaren 5ean, erregeak zin egin zien espedizioako maisu eta pilotuei zalduntza-pribilegioak izango zituztela bidaian bere esanak ondo betez gero²⁸⁵.

Juan de Elorriaga

San Antonio naoko Juan Elorriaga gipuzkoarra zen, baina ez dugu bere jatorriari buruzko datu gehiago. Ontziratzeko momentuan Juana de la Hayarekin zegoen ezkontuta eta Sevillan bizi zen²⁸⁶. Esan dugu espedizioari elkartu zitzaion lehen euskalduna izan zela, eta maisu lanetan ibili zen naoen prestaketa-lanetan 1518ko urriaren 1az geroztik, ia-ia naoak Sevillara iritsi zirenetik.

Espedizioa atera zenean, Elorriaga San Antonio naoko maisua zen. Profesional trebea izan behar zuen, bestela ez zuten aukeratuko maisu izateko flotako ontzirik handienez, 120 upelentzako edukiera bait-zuen (144 tona).

Espedizioaren hasieran San Antonio naoko kapitaina Juan de Cartagena zen; Magallanesen ondoren bera zen flotako agintari nagusia, eta bera izan zen Patagoniako San Julian portuan izandako matxinadaren burua. Matxinadan Elorriaga Magallanesen alde jarri zen eta Cartagena eta Elkanoren

aurka. Matxinatuei babesa ukatu eta aurka egin zenez, Elkano maisu zuen Concepcion naoko Gaspar de Quesada kapitainak saskakia sartu zion 1520ko apirilaren 1etik 2ra bitarteko gauean. Zaurien ondorioz hil zen uztailaren 15ean, Juana de la Haya emaztea alargun utziz. Maisu, pilotu eta kontramaisuak erregearen agindua jaso zuten 1519ko apirilaren 19an kapitainen (Magallanes eta Faleiro) aginduak betetzeko eskatuz²⁸⁷.

Juan Sebastian Elkano

Juan Sebastian Elkano, Concepcion naoko maisua, getariarra zen, Domingo Sebastian El Cano eta Catalina del Puertoren semea. 1487an jaio zen, hori ondorioztatzen da Magallanesek eskatuta 1519ko abuztuaren 9an Sevillan egin zuen adierazpenetik: *“este testigo, de edad de treinta y dos años, poco más o menos”*²⁸⁸. Getarian izandako bi suteek, bata 1597ko urtarrilean eta bestea 1836ko gabonetan, oso zaila egiten dute Elkano familia aztertu ahal izatea²⁸⁹. Ez dugu bere argazkirik, eta tratatu zuten kronikagileek, besteak beste Fernandez de Oviedo edo Maximiliano Transilvano, ez zuten bere deskribapenik utzi.

Gazte denboran Elkanok hainbat gerra gertaeretan parte hartu zuen ekialdean (Italia) eta Afrika iparraldean, Oranen, Bugian eta Tripolin, eta 200 upeleko ontzia prestatu zuen²⁹⁰. Horretarako mailegu bat eskatu zien Savoiako merkatari batzuei, eta ontzia bera jarri zuen abal moduan. Erre-

geak ez zion ordaindu gerra ekintza haietan parte hartzeagatik zegokion ordainsaria, eta ondorioz, bere ontzia savoiarrei eman behar izan zien. Baina ontzia atzerritarrei saltzea edo ematea delitua zen, gerra-ontzi gisa erabil zitekeelako norberaren herrialdearen aurka, eta horregatik, Elkanoren egoera legala zaila bilakatu zen handik aurrera. Egoera hark asko kezkatzen zuenez, munduaren inguruko lehen itzulia eman zuenean egin zuen lehenengo gauzetako bat

izan zen erregeari barkamena eskatzea, eta hark 1523ko otsailaren 13an eman zion²⁹¹.

Elkano Sevillan zegoen 1518an, ziu-rrenik bere jarduera hirian garatzen zuten euskaldunekin harremanetan, eta litekeena da horiek burokrazia-kontrolak gainditzten lagundu izana. Laguntza eman ziotenen artean egongo lirakeke Zarauzko Gainzatar-rak, Ibarrolatarren senideak, eta horietako bat, Zarauzko Juan Lopez de Ibarrola y Gainza Kontratazio Etxeko funtzionarioa izan zen²⁹².

1519ko urtarrilaren 8an, larunbata, Elkanok armadaren antolaketa lanekin bat egin zuela ikusi dugu, hasiera batean Victoria naoko kontramaisu bezala, eta bere lehenengo soldata gisa dukat bat (375 marabedi) jaso zuela 7 eguneko lanagatik²⁹³. Bere izena espedizioa erregistroetan ageri den lehenengo aldia da. Itsasoan esperientzia handia izateagatik Concepcion naoko maisu, ontziko bigarrena alegia, izendatu zuten²⁹⁴.

1519ko abuztuaren batean, espedizioa Sevillatik irten baino bederatzita egun lehenago, gertakari garrantzitsu bat izan zen: Juan Sebastian Elkano, Juan de Acurio eta Domingo de Yarza euskaldunek ahalordeak eman zituzten Sevillako San Francisco plazan Gomez Alvarez de Aguilera eskribauaren eta bi lekukoren aurrean, batetik Concepcion naoko eskribau Sancho de Heredia, eta bestetik Marin Ruiz de Iturbe



25. Irudia- Getariako plano, Juan Sebastian Elkanoren etxearen kokalekuarekin

bergararra²⁹⁵. Espezien lurraldearen bila zihoan Elkanok (*“que va agora a descubrir la Espeçeria”*) ahalordeak eman zizkien Juan de Acuriori, Domingo de Yarzari, bere anai Sevastian eta Domingo de Elcanori eta Francisco de Santacruzi, merkataria eta Sevillako bizilaguna; guztiei batera eta bakoitzari eman zizkien ahalordeak helburu honetarako:

*“por mí e en mi nonbre puedan demandar e recabdar e regebir e aver y cobrar, así en juizio como fuera d’él, de todas e qualesquier personas que sean e con derecho deva e de sus bienes, vezinos e moradores así d’esta dicha çibdad de Sevilla como de otras partes e lugares, todos los maravedís e ducados e otras cosas qualesquier que me sean devidos e se me devieren, así del sueldo qu’el rey, nuestro señor, me manda dar por la yda e tornada para yr a descubrir la Espeçeria como por contratos públicos e alvaldes e cuentas e fletes, como de las mercaderías que yo llevo cargadas en la dicha nao”*²⁹⁶

Hiru eskrituren helburua bera da: ahalordearen emaileak edo, hari zoritxarren bat gertatuz gero, bere oinordekoek, zegokien soldata kobratuko zutela ziurtatzea²⁹⁷. Dokumentu horiek ezagutzera ematean, Juan Gilek euskaldunen “adiskidetasun irmoa” nabarmendu zuen²⁹⁸. Eskritura horiek argi erakusten dute espedizioan itsasoratu ziren hiru itsasgizonen arteko konfiantza.

Bidaian, Elkanok parte hartze aktibo eta aipagarria izan zuen Magallanesen aurkako San Juliango matxinadan, 1520ko apirilaren

lean, eta San Antonio naoaren kargu egin zen. Ondoren Magallanesek hartutako erabakiaren ondorioz, Elkano heriotzara kondenatua izan zen beste 40 gizonekin batera. Baina Magallanesek ezin zuen hainbeste espediziokide gabe geratu eta gehienei barkatu egin zien; Elkano izan zen horietako bat, eta nahiz eta bizirik jarraitzea lortu zuen, 1520ko apirilaren 7an degradatu egin zuten eta Victoria naoko marinel bihurtu zen, lan gogorrek egitera behartua²⁹⁹. Imajina dezakegu Elkanoren umiliazioa San Juliango portuan igaro zituzten hilabete haietan, naoen mantentze- eta prestatze-lanak eginez, kateatua, egurrak garraiatzen, gerrira arte urez bustita negu gogor hartan. Eta hori guztia 34 urterekin eta hilabeteetan bere mendeak izan zirenen aurrean.

1520ko abuztuaren 24an San Julian uztean, bi hipotesi daude: degradatua jarraitu zuen Victoriako marinel gisa edo bere lehengo kargua berreskuratu zuen. Lehenengo hipotesiaren alde egiten du Mafraren lekukotza honek:

*“(en septiembre de 1521) hicieron capitán de la otra nao a Juan Sebastián del Cano, que desde el estrecho hasta que murió Magallanes, había sufrido muchos disfavores, más él como discreto sufrió hasta que tornó a su cargo que había perdido con estos dos navíos”*³⁰⁰.

“Discreto” esaten zitzaion garai hartan “gizon zentzudun eta argiari, gauzak neur-tzen eta bakoitzari bere lekua ematen zekie-

na”³⁰¹, eta horrek Mafrak Elkanori buruz zuen ideiare berri ematen digu.

Eta beraz, 1520ko apirilaren 7an itsasgizona izatera degradatu zutenetik Magallanes hil zen arte, 1521eko apirilaren 27an hain zuzen, Elkanok “itsuskeria” asko jasan zituen, eta horregatik logikoa da pentsatzea denbora horretan ez zela maisua izan. Eta horrenbestez, urtebete baino gehiagoan -negua San Julianen, itsasartearen aurkikuntza eta zeharkaldia, Marianas irletara eta Filipinetara iristea- Elkanok marinela lanak egin zituela uste da, Fernandez Vialen arabera Victoria naoan³⁰².

Beste bertsio bat izango litzateke Mitchell britaniarrarena, bere ustez Elkano Concepcion naoan bortxazko lanak egitera kondenatua izan zen armada San Julian portuan egon zen denboran bakarrik, eta ondoren, 1520ko abuztuaren 24an Magallanesek Concepcion naoko maisu izendatu zuen³⁰³. Hipotesi hori babesten du Comellasek Andres de San Martin pilotuari buruz esaten duenak, izan ere Andres de San Martin kondenatua izan bazen ere, uztailaren 21ean lurrera joateko baimena eman zitzaion, matxinadan parte hartzeagatik barkatua izan zelako³⁰⁴. Baliteke gauza bera gertatu izana Juan Sebastiani. Edonola ere, San Julianetik irten eta gero, badirudi berrogei kondenatuak ez zeudela kateari lotuak³⁰⁵.

Errehabilitatua izan eta gero, Magallanes hiltzean 1521eko apirilean, Elkano

maisua izendatu zuten, ziurrenik Concepcion naokoa, bera izan baitzen nao horrek ezin zuela nabigatzen jarraitu berri eman zuena. Hilabete batzuk geroago, 1521eko irailean, Borneoko mutur iparraldekoenean kokatua dagoen irla txiki batean (gaur egungo Balambangan³⁰⁶ izango litzatekeena) Victoriako kapitain izendatua izan zen, eta kargu hori izan zuen Sevillara³⁰⁷ iritsi arte. Elkano kapitain izendatua izateari buruz hau dio Albok:

*“la gente eligió por capitanes a Juan Sebastian e a Joan de Espinosa (se refiere en realidad a Gonzalo Gómez de Espinosa), e por tesorero e contador de todas las mercaderías al dicho Joan Sebastian”*³⁰⁸.

Hori irailaren 16an gertatu zela uste da, egun horretan utzi baitzion maisu-soldata kobratzeari kapitainaren soldata kobratzeko³⁰⁹. Munduari bira eman eta gero, Sevillara iristean, 114.707 marabedi kobratu zituen 25 hilabete eta 6 eguneko maisu lanagatik eta urtebetean kapitaina izateagatik³¹⁰. Era horretan, Victorian amaitu zuen ontzi horretan bertan Sevillan hasitako bidaia.

B.- Kontramaisua

Kontramaisua maisuaren bigarrena zen eta marinelen buruzagi zuzena. Maniobretan tripulazioa zuzentzeaz arduratzen zen, kapitainaren, maisuaren edo pilotuaren aginduak betearaziz. Kargamentuaren sa-

rrera eta irteerei buruzko liburu bat eraman behar zuenez, irakurtzen eta idazten jakin beharra zeukan. Bere ardura zen, baita ere, suteak prebenitzea, nao batean gerta zitekeen zoritxar handienetakoa baitzen, eta baita ere merkantziak kargatu, deskargatu eta biltegiratzeko lanez arduratzea. Ontzia egoera onean mantendu behar zuen eta beharrezko konponketak agindu.

Ez zen kapitainaren mahaian esertzen eta ofizial ordean mahaiko burua zen³¹¹. Kontramaisua izatea lan-ibilbide oso baten gailurra zen, eta horregatik, gehienetan, 40 urte ingururekin lortzen zen kargu hori, adin aurreratua garai hartarako³¹².

Bi kontramaisu euskaldun izan ziren espedizioan: Juan de Acurio eta Antón de Basozabal, biak bermeotarrak. Azken hori Concepcion naoko bikeztatzaile gisa itsasoratu zen, baina gero Trinidad ontziko kontramaisu bihurtu zen, eta kargu hori bete zuen 24 hilabetez. Berari buruz ezagutzen ditugun datuak bikeztatzaileen atalean deskribatzen dira.


Juan de Acurio

Juan de Acurio bermeotarra zen eta Concepcion naoko kontramaisua armada atera zen unean, Elkanoren ontzi berean zegoen beraz. Juan Pérez de Acurio eta Marina de Bérizen semea zen, Bermeoko bizilagunak biak. Ontziratzean bere soldata hileko 2.000 marabedi zen. Lau hilabeteri

zegokiona aurrez ordaindu zitzaion, 8.000 marabedi³¹³. 1524an 30 urte³¹⁴ pasa zituela esan zuen, eta beraz itsasoratu zenean 25 urte inguru izango zituen. Bazekien irakurtzen eta idazten, bere karguak eskatzen zuen eran.

Lehen ere esan dugu Acurio naoen prestaketa-lanetan hasi zela Sevillan 1519ko martxoaren 1ean, hasiera batean Concepcion naoko marinel gisa; baina hilabete horretan bertan, aipatu naoko kontramaisu izendatu zuten, kargua hutsik geratu baitzen Elkano maisu izendatzean. Sevillatik irten zen Concepcion ontziko kontramaisu gisa, baina ontzia erre zutenean 1521eko maiatzean, Victoria ontzira pasa zen, han ere kontramaisu karguarekin³¹⁵. Munduaren inguruko lehenengo bira eman zuten 18 gizonetako bat izan zen.

Acuriok eta Elkanok harreman estua izan zuten, bai armadaren prestaketa-lanetan eta baita espedizioak iraun zuen denboran ere. Lehen ere esan dugu espedizioa irten aurretik beren ondasunen gaineko ahalordeak eman zizkietela elkarri. Juan de



26. Irudia- Juan de Acurioren sinaduraren faksimilea

Acuriok ahalordeak eman zizkion Juan Perez de Acuariori, Juan Sebastian Elkanori, Bermeoko merkataria Juan Fernandez de Muruetari eta Domingo de Yarzari³¹⁶.

Bidaian, 1520ko apirilaren 7an, San Juliango matxinadaren ondorioz Elkano degradatu eta marinela izatera zigortu zuten, urtebetean Victoria naon egon zela uste da, eta orduan Acuriorekin zuen harremana ez zen hain zuzena izan, azken hori Concepcion naon zegoelako.

Baina 1521eko maiatzaren 2an, Elkanok Concepcion³¹⁷ naoko maisu kargua berreskuratu zuen (Fernandez Vialek dio Elkano Victoria³¹⁸ ontziko maisu izendatu zutela) eta orduan Acuriorekin elkartu zen berriro. Concepcion naoa erre zutenean, biak Victoria ontzira igaro ziren, bat kapitain modura eta bestea kontramaisu karguarekin; biak ala biak Victoria ontzian heldu ziren Sevillara. Bien arteko harremana ez balitz ona izan, Acurio ez zuten Victoriako kontramaisu izendatuko.

Hori dela eta, esan dezakegu Mairin Mitchellek nobela moduan idatzi zuen lana ez datorrela bat errealtatearekin bien arteko harremana ez zela ona diotenean³¹⁹.

1522ko irailaren 7an Sevillara iritsi zenean, Acurio Valladolidera joan zen eta han erregeak hartu zuen. Cristobal de Harok emandako ordainketa-agirietan ageri da Acurio, 1523ko martxoa eta ekaina bitartean itzuli ziren espediziodideek saltzeko

eman zizkioten salgaiengatik. Itze kintalen kalkulua ere ageri da, eta ordainketa-agirien berri eman zitzaizela Acurio kontramaisuari, Zubileta pajeari, Arratia itsasmutilari, Miguel de Iruñari (bere anaia Lorenzo de Iruñagatik), Pedro de Tolosa despentsariari, Elkano kapitainari, eta Martin de Insaurrega³²⁰ itsasmutilaren kintalen ziurtagiria ere Acuriok berak jaso zuen. Itzuleran jaso zuen soldatari dagokionez, 900 marabedi kobratu zituela ageri da³²¹. Espedizioan irabazi zuen kopuru osoa 231.223 marabedi³²² izan zen.

1524ko maiatzaren 23an Badajozeko Juntan deklaratu zuen Arratia, Zubileta eta Pedro de Tolosarekin batera³²³. Besteak beste Carlos I.a eta Fernando Katolikoa ezagutu zituela esan zuen, askotan ikusi zituelako, baina ez horrela Isabel erregina³²⁴. Gainera esan zuen Moluketan gertatu zenaren testigu zuzena izan zela eta Moluketako erregeek espedizioa kapitainekin egindako hitzarmenak ezagutzen zituela; bertan gertatutakoaren deskribapen zabala egin zuen, besteak beste Tidoreko erregeak egindako harrera ona,

“este testigo vido (vio) que el dicho rey de Tídiri les recibió muy bien e alegremente e los hizo muy gran honra e compañía porque a los navíos les enviaban todo lo que habían menester”³²⁵

Molukak Portugali edo Espainiari zegozkion erabakitzeke elkartu zen Elvas-Ba-

dajozeko junta. Bertara joan ziren, besteak beste, Hernando Colon, Juan Sebastian Elkano eta Juan Vespucio, Amerikoren iloba. Ezinezkoa izan zen akordioa lortzea. Bi alderdiek aurkeztu zituzten mapetan, Molukak baten zein bestearen eragin eremuaren barruan ageri ziren.

1534an bidaian hildako beste itsasgizon euskaldun batzuen izenean jardun zuen (Juan de Aguirre, Antón de Basazabal eta Domingo de Yarza) alargunek zegokien soldata jaso zezaten,

“Juan de Acurio, contramaestre de la nao Vitoria, que vino de Maluco, en nonbre de Juan de Aguirre, marintero, que quedó en Maluco en la Trinidad, y en nonbre de Antón de Baçaçabal, contramaestre de la dicha nao Trinidad, y en nonbre de Domingo de Yârça, marintero y carpintero de la dicha nao, suplica a Vuestra Magestad le mande pagar el sueldo que les hes debido y prober cómo sean pagados de sus quintaladas que en la dicha nao les fueron tomadas, porque dexaron mugeres e hijos e viven en mucha pobreza, en lo qual Vuestra Magestad les hará bien y merçed”³²⁶.

C. Marinelak

Magallanes-Elkano espedizioako 57 marinelatik zazpi euskaldunak ziren, horietatik bost bizkaitarrak eta bi gipuzkoarrak. Magallanes-Elkano espedizioaren garaian, marinela gehienak hogeitaz inguru zituzten.

Batez besteko adina 28 edo 29 urte zen, eta, orokorrean, 35 eta 40 urte inguruko marinela bat nahikoa zaharra jotzen zen lanerako. Marinelek abilezia gehien eskatzen zuten lanak egiten zituzten, adibidez, lemaren zangoa maneatzea, eta ez zen batere lan erraza lemek artean gurpilik ez zuten ontzi haietan. Era berean, maniobra zailenetan, beraiek maneatzen zituzten tresnak, eta soka bat nola finkatu ondoen zekitenak ziren³²⁷.

Iparraldeko marinela preziatuenak euskaldunak ziren, orokorrean bizkaitarrak esaten zitzaaien arren, ugariak eta esperientzia handikoak ziren. Beste eskualdeetakoak baino estimazio handiagoa zuten, baita hegoaldeko armadetan ere³²⁸.

1.200 marabedi jasotzen zuten hileko, eta lau hilabeteko soldata aurrez jasotzen, 4.800 marabedi hain juxtu. Ontziratutako zazpi horietatik bi Sevillara itzuli ziren 1521eko maiatzaren 21ean San Antonio ontziarekin, eta gainontzekoak bidaian hil ziren.

Domingo de Barrutia

Domingo de Barrutia Domingo de Urrutia izenarekin ere ageri da, eta bera izan zen Magallanesekin batera, Sevillan, Trinidad naon ontziratutako euskaldun bakarra. Lekeitiarra zen, Juan de Barruti eta Ochada de Guruchearen semea.

1521eko uztailaren 21ean Bruneiko erregeak preso hartu zuen, eta orduraz ge-

rozitik desagertutzat jo zen. Gerora egin zen kitapenean (datarik gabe), 23 hilabete eta 19 eguneko soldata zor zitzaiola adierazi zen; hilean 1.200 marabedi zirela kontuan hartuta, guztira 28.370 marabedi zor zitzaizkion, eta horri Sevillan armada itsasoratzean eman zitzaizkion 4.800 marabedi deskontatu behar zitzaizkion, 23.560 marabedi guztira. Bere aita Juan Ibañez Barrutiaren erreklamazio bat dago ondoren, semea-ri zor zitzaizkion soldaten ordainketari buruzkoa³²⁹.

Badakigu sinatzen bazekiela, izan ere San Juliango portuan gertatuko matxinadari buruz 1520ko apirilaren 26an jakinarazi eta Sevillan 1521eko maiatzaren 22an jaso zen informazioan bere sinadura ageri da, hura sinatu behar zuen aguazilak ez zekielako sinatzen³³⁰.

Juan de Aguirre

Concepcion naoko Juan de Aguirre bermeotarra zen, Maria Ochoa de Acurioren senarra. Cocepcion naoan ontziratu zen Elkano eta Acuriorekin batera, eta naoa erre zutenean Trinidad ontzira pasa zen, marinela gisa. Gaixotuta hil zen 1522ko urriaren 13an, nao horretako espediziokideek jasan zuten egoera lazarrian³³¹.

Espedizioa itzultzean, 28 hilabete eta 11 egun lan egin zituela erabaki zen, Victoria naoa Moluketatik irten zen arte, eta beraz, hilean 1.200 marabedi izanda, 34.040 ma-

rabedi ziren guztira. Kopuru horri 4.800 marabedi kendu behar zitzaizkion aurrez ordaindu zitzaiolako lau hilabeteko soldadari zegokiona, eta horrenbestez 29.240 marabedi izango lirateke. Juan de Aguirrerren oinordekoen ahalordeagatik, Juan de Acuriori zor zitzaizkion 4.500 marabedi ordaindu ziren³³². Juan de Aguirreri zor zitzaionaren ordainketari buruzko espedientearen ordainketari buruzko espedientearen Anton Basozabal eta Domingo de Yarza ere ageri dira³³³.

Juanes de Segura

San Antonio naoko marinela zen. Seguran jaioa, Martin de Gorostizaren semea zen, Gipuzkoako Gorostiza herrian jaioa, eta Sevillako Catalina Gonzalezekin zegoen ezkontuta³³⁴. Cebun erahil zuten, 1521eko maiatzaren 1eko oturuntzan³³⁵.

Victoria naoa itzuli eta gero, 20 hilabete eta 28 eguneko soldata zor zitzaiola kalkulatu zen; hilean 1.200 marabedi izanda, guztira 24.800 marabedi zor zitzaiola kalkulatu zen, baina horietatik 4.800 marabedi kendu behar ziren, Sevillan aurrerratu zirenak; 20.040 marabedi zor zitzaizkion beraz³³⁶.

Lope de Ugarte

San Antonio naoko marinela, bizkaitarra; nao berean itzuli zen Sevillara 1521eko maiatzean.

Lorenzo de Iruña

Concepcion naoko marinela, Soravillan (Gipuzkoa) jaioa, Juan de Iruna eta Gracia de Aguirresaroberen semea zen³³⁷. Victoria naoko marinela izatera pasa zen bere ontzia erretzean. Indiako ozeanoan hil zen 1522ko maiatzaren 13an³³⁸.

Cristobal de Haroren ordainketa-aginuetan ageri da 1523ko martxoa eta ekaina bitartean, espediziokideek itzuleran saltzeko eman zizkieten salgaiengatik. Itzeari zegokiona kalkulatu eta Miguel de Iruñari jakinarazi zitzaion zenbat zen bere anaia Lorenzori zegokiona³³⁹.

Pedro de Laredo

San Antonio naoko marinela, Portugaletekoa zen, Juan de Aguirre eta Teresa de Balmasedaren³⁴⁰ semea, eta Maria de Villarrekin zegoen ezkondata. San Antonio naoan itzuli zen Sevillara 1521eko maiatzean.

Sebastián de Olarte

San Antonio naoko marinela, bilbotarra zen, Diego Hernandez eta Maria Martinez de Berrizen semea³⁴¹.

Armadarekin bat egin zuen lehen marinela euskalduna izan zen, eta naoen prestaketa-lanetan parte hartu zuen 1519ko ekainaz geroztik. Bere lehenengo soldata 565 marabedi izan zen eta 1519ko ekainaren

11an³⁴² jaso zuen; uztailaren 1ean³⁴³ antzeko kopurua jaso zuen berriro. Montevideon hil zen, beste marinela batek emandako labankadagatik 1520ko otsailaren 3an³⁴⁴. Espedizioan hil zen lehenengo euskalduna izan zen.

Itzuleran bost hilabete eta 23 eguni zegokion soldata jaso behar zuela kalkulatu zen; hileko soldata 1.200 marabedi zirenez, 6.920 marabedi ziren guztira, eta horri 4.800 marabedi kendu behar zitzaizkion, Sevillan jaso zituenak. Eta beraz, 2.120 marabedi zor zitzaizkion³⁴⁵.

D.- Itsasmutilak

Espedizioko 49 mutiletatik bederatzia euskaldunak ziren, zazpi bizkaitarrak eta bi gipuzkoarrak. Horietatik lau hil egin ziren, Ochote de Erandio, Pedro de Muguertegui, Juan de Sanfelices eta Martin de Insaurrega. Hiru Sevillara itzuli ziren San Antonio naoak espedizioa utzi zuenean: Juan de Orue, Juanes de Irun Iranzo eta Martín de Aguirre. Beste biak munduari bira eman eta gero itzuli ziren, Juan de Arratia Victoria ontzian eta Pedro de Tolosa hilabete batzuk geroago, portugaldarrek preso hartu baitzuten Cabo Verden.

Itsasmutilak marinela gazteak ziren, ikastunak, gehienetan 17 eta 20 urte artean izaten zuten eta marinela nahiz ofizialen aginduetara egoten ziren. Belazurruntara igo eta oihalak biltzen zituzten, bateletan

arraun egiten zuten, salgaiak, hornigaiak, egurra eta ura kargatu eta deskargatzen zituzten edo sua itzaltzen zuten. Hogei urte betetzean, ontziko ofizialek sinatutako dokumentu bat jasotzen zuen itsasmutilak, marinela zela ziurtatzen zuena. Istripurik ez zutenek eta bizi guztian marinel zirenek hogeitaz geroago amaitu zezaketen bere ibilbide profesionala. Hilean 800 marabedi-ko soldata zuten eta 3.200 marabedi aurrez jaso zituzten, lau hilabeteri zegokiona.

Pedro Basazabal

Hasiera batean San Antonio ontziko itsasmutila izatekoa zen. Mungiarra zen, Martin de Basazabal eta Maria Sanchez de Landechoren semea, biak Mungiako bizilagunak. Baina azkenean ez zioten itsasoratzten utzi sifilisa izateagatik. Cristobal Colon lehenengo aldiz Amerikara joan zenean sartu zen gaixotasuna, nahiz eta ordurako, 1519 inguruan, ezaguna zen Sevillan³⁴⁶. Bere lekuan Alonso del Puerto ontziratu zen, itsasmutila, Alonso Gomez eta Ana Rodriguezen semea, Puerto de Santa Mariako bizilagunak³⁴⁷. Espedizioa atera baino lehen baja izan zen eta ez zuten espediziokideen zerrendan sartu.

Juan de Arratia

Victoria naoko itsasmutila zen, Juan de Urrutia bezala ere ageri da. Bilbotarra zen, Juan de Arratiaren semea. 1524an 20 urte zituela esan zuen, eta beraz, itsasoratu

zen unean 15 urte inguru izango zituen³⁴⁸. Barakaldoko Juan de Zubileta pajearekin batera itsas bidai guztia egin zuen Victoria naoan.

1523an egindako soldataren kitapenean bi ordainketa egin zitzaizkiola ageri da³⁴⁹. Cristobal de Harok 1523ko martxoa eta ekaina artean egindako ordainketa-aginduetan ageri da, itzuli ziren espediziokideek saltzeko utzi zizkioten salgaiei zegokiena³⁵⁰. Guztira 64.521 marabedi irabazi zituen³⁵¹.

1524ko maiatzaren 23an deklaratu zuen Badajozeko Juntan Acurio, Zubileta eta Pedro de Tolosarekin batera, Gaztelak Moluka uharteen jabe izateko zuen eskubidea frogatzeko³⁵². Acuriok bezala, Carlos I.a eta Fernando Katolikoa ezagutu zituela esan zuen, askotan ikusi zituelako, baina ez Isabel erregina³⁵³. Moluketako erregeekin sinatutako hitzarmenen testigu ere izan zen. Ez zuen sinatu ez zekielako.

Juan Gilek dio 1525ean Loaysaren armadan itsasoratu zen Juan de Arratia izan daitekeela³⁵⁴.

Juan de Orue

San Antonio naoko itsasmutila. Mungiarra, Juan de Orue eta Jardana de Munguiaren semea, biak Mungiako bizilagunak. Juan de Muros itsasmutilaren ordeztatu ontziratu zen, hura lurrean utzi baitzuten portugaldarra izateagatik. 1.613 marabedi ordaindu zitzaizkion, aurrez ordaindutako

lau hilabeteko soldatagatik zor zitzaizkion 3.200 marabediri kendu behar baizitzaion Juan de Murosi hartutako arropek balio zuten 3.200 marabedi³⁵⁵. San Antoniorekin Sevillara itzuli zen 1521eko maiatzean.

Juan de Sanfelices (Juanico Vizcaino)

Victoriako itsasmutila. Somorrostrokoa, Juan de Sandelices eta Maria de Sandelices-en semea³⁵⁶. Ozeano Barean hil zen eskorbutoagatik, 1522ko maiatzaren 17an³⁵⁷.

Martín de Aguirre

San Antonioko itsasmutila. Arrigorriagakoa, Martin de Aguirre eta Maria Ibarren semea. Diego de Sevilla itsasmutilaren ordeztatu zen, hura joan egin zelako³⁵⁸. San Antonio naotan itzuli zen Sevillara, 1521eko maiatzean.

Martín de Insaurreaga (Machín Vizcaino)

Concepcion naoko itsasmutila. Bermeokoa zen, Martin de Insaurreaga eta Maria de Chindarzaren semea, eta Maria Ochoa de Artachearen senarra³⁵⁹. Concepcion naoa erre zenean Trinidad naotan ontziratu zen, eta Victoria naotan egin zuen Moluketatik Sevillarako bidaia. Atlantikoan hil zen eskorbutoarekin 1522ko ekainaren 1ean³⁶⁰.

Harok 1523ko martxoa eta ekaina artean egindako ordainketa-aginduetan agerida, itzuli ziren espediziokideek saltzeko utzi zitzaizkien salgaiengatik. Akuriori ekainaren 1ean eman zitzaion Martin de Insaurreagaren³⁶¹ kintalei zegokien ziurtagiria.

Ochote de Erandio

Victoriako itsasmutila. Bilbotarra, Ochoa de Herandio eta Juanaren semea, biak bilbotarrak³⁶². Ozeano Barean hil zen gaixotuta 1521eko martxoaren 21ean³⁶³.

Pedro de Muguertegui (Perucho de Bermeo)

Concepcion naoko itsasmutila. Bermeotarra, Martin de Monterusa eta Maria de Muguerteguiaren semea zen, biak Bermeotarrak³⁶⁴. Bat-batean hil zen ozeano Barean, 1521eko irailaren 16an³⁶⁵, eta ez da ezagutzen zein ontzitan zihoan.

Pedro de Tolosa


Victoriako itsasmutila. Tolosarra, Lazcano eta Maria de Albisturren semea, horiek ere tolosarrak. Victoria naotan ontziratu zen itsasmutil gisa, Sevillako Pedro Maldonadoren ordeztatu zen, azken hori ez baitzen azaldu naotatik Sevillatik irtetere zihoazenean. 1521eko apirilean, Victoria naoko despentsaria hiltzean, kargu hori hartu zuen. Portugalدارrek preso hartu zuten Cabo Verden

1522ko uztailaren 14an, eta hilabete batzuk geroago aske utzi eta Sevillara itzuli zen. Bidaiaitik itzulita, Simon de Burgosen alde egin zuen deklarazioan, 1523ko apirilaren 23an, 24 urte zituela esan zuen, eta beraz, ontziratu zenean 20 urte inguru izango zituen³⁶⁶.

1523an egindako soldata kitapenean ordainketa bat egin zitzaiola ageri da³⁶⁷. Cristobal de Harok emandako ordainketa-aginduetan ageri da 1523ko martxoa eta ekaina bitartean, espediziokideek bidaiaitik itzuleran saltzeko utzi zizkioten salgaiengatik³⁶⁸. 1524ko maiatzaren 23an deklaratu zuen Badajozeko Juntan, Acurio, Arratia eta Zubiletarekin batera, Gaztelak Moluka uhartean jabe izateko zuen eskubidea frogatzeko³⁶⁹. Carlos I.a erregea ezagutu zuela esan zuen³⁷⁰. Ez zuen sinatu ez zekielako.

Juanes de Irún Iranzo

San Antonioko itsasmutila. Irungoa, Miguel de Irun Iranza eta Mariaren se-



27. Irudia.- Juan de Zubiletari bi mila marabedi ordaindu zitzaizkion alde z aurretik ontziratzearan

mea zen³⁷¹. Sevillara itzuli zen bere naoan 1521eko maiatzearan.

E.- Mutilak

Espeziatarako armadan ontziratu ziren hamabi pajeetatik bi bizkaitarrak ziren, Juan de Zubileta, Barakaldokoa, Victoria naoan ontziratu zen; eta Pedro de Chindarza, bermotarra berriz, Concepcion naoan. Biak Sevillara itzuli ziren, lehenengoa Victorian, eta bigarrena hilabete batzuk geroago, portugaldarrek preso hartu baitzuten Cabo Verden.

Pajeek zortzi eta hamabost urte artean izaten zituzten. Bi paje mota zeuden: batetik gomendatuak zirenak edo goragoko ofizial baten babespean zeudenak, beren ibilbide profesionalaren hasieran; eta bestetik inolako babesik ez zutenak eta denen aginduak bete behar zituztenak. Azken horien bizi-modua dezente okerragoa zen.

Prestakuntza gutxien behar zuten lanak egiten zituzten, adibidez elikagaiak banatu eta mahaia jaso jan ondoren, erratza pasa eta naoa garbitu. Zaintzaz arduratzen ziren guardietan, ontzia garbitzen zuten, areazko erlojuak ordu erdiro aldatzen zituzten letaniak esanez, eta marinela zein itsasmutilen aginduak jasotzen zituzten etengabe. Hilean 500 marabediko soldata zuten eta lau hilabeteko soldata alde z aurretik kobratzen zuten.



28. Irudia- Zubileta dorrea Barakaldoko
Cadagua ibai ertzean

Juan de Zubileta

Victoria naoko pajea, Martin Ochoa de Zabileta eta Sancharen semea zen³⁷². Barakaldon jaio zen, bere izen bereko auzoan, Cadagua ibaiaren ezker aldean, Zubileta dorrea eta errotaren hondarrak dauden muinoan³⁷³.

1524an 18 urte³⁷⁴ zituela esan zuen, itsasoratu zenean beraz, 13 urte inguru izango zituen, flotako euskaldun gazteena zen. Espediziotik bueltan erregeak hartu zuen Valladoliden. Cristobal de Harok emandako ordainketa-aginduetan ageri da 1523ko martxoa eta ekaina bitartean,

itzuli ziren espediziokideek saltzeko eman zizkioten salgaiengatik³⁷⁵. 38.756 marabedi irabazi zituen guztira³⁷⁶.

1524ko maiatzaren 23an deklaratu zuen Badajozeko Juntan Acurio, Arratia eta Pedro de Tolosarekin batera Gaztelak Moluka uharteen jabe izateko zuen eskubidea frogatzeko³⁷⁷. Carlos I.a ezagutu zuela esan zuen, baina ez Fernando eta Isabel erregeak³⁷⁸. Sinatu egin zuen, bazekielako sinatzen, eta hori ez zen batere ohikoa paje batentzat. Garai hartan hamar marinela, itsasmutil eta pajetik zortzik ez zekiten beren izena idazten³⁷⁹.

Pedro de Chindarza (Chindurza, Churdurza)

Concepcion naoko pajea. Bermeotarra, Pedro de Chindarza eta Maria Sanchezen semea³⁸⁰. Ontziratu zenean 15 urte zitu³⁸¹. 1521eko maiatzean bere ontzia erre zenean, Victorian ontziratu zen. Moluketan itsasmutil izendatu zuten³⁸². Portugaldarrek preso hartu zuten Cabo Verden, eta hila-bete batzuk geroago itzuli zen Sevillara, aske utzi zutenean. 1928an De la Quadrak zioen Bermeon eta Alhondiga mendian Chindarzaren etxea eta abizen bera aurki zitezkeela Chandarza eta Chiadurza aldaerekin³⁸³.

F.- Arotz eta bikeztatzaileak

Arotza eta bikeztatzailea oso lanbide preziatuak ziren naoetan. Ozeanoaren erdian naoek behar zituzten konponketak egiten zituzten espezialistak ziren. Ziurrenik, arotzak ziren espezialista ezinbestekoe-

nak, masta, belazurrun, oholtza eta abar konpontzen baizituzten. Zulo bat ixten jakin behar zuten, lema bat eraikitzen, poleak egiten, panelak erabiliz gela bat eraikitzen eta baita txalupa bat eraikitzen ere.

1.875 marabediko soldata kobratzen zuten hilean, marinelek baino %50 gehiago. Beraiek zuten soldata handiena kapitain, maisu, pilotu eta kontramaisuen ondoren, eta marinel, itsasmutil, paje eta arma-gizonak baino gehiago kobratzen zuten. Lau hilabeteko soldata aldeztu aurretik kobratu zuten, 7.500 marabedi.

Espedizioko bost arotzetatik hiru euskaldunak ziren, horietatik bi Debarrak: Domingo de Yarza eta Martin de Garate. Hirugarrena, Pedro de Sautua, Bermeokoa zen. Espedizioko sei bikeztatzaileetatik hiru euskaldunak ziren; Martin de Goitisoloko Bakiokoa zen, Pedro de Bilbao Bizkaiko hiriburukoa eta Anton de Basozabal Bermeotarra. Domingo de Yarza eta Pedro de Sautua arotzak eta Pedro de Bilbao eta Anton de Basozabal bikeztatzaileak naoen

18. Taula. Espedizioko arotz eta bikeztatzaile euskaldunak (hizki lodiz)

	SAN ANTONIO	TRINIDAD	CONCEPCION	VICTORIA	SANTIAGO
Arotzak	Pedro de Sautua (Bermeo)	Maestre Antonio (Genova)	Domingo de Yarza (Deba)	Martín de Garate (Deba)	Ruxar (Normandia)
Bikeztatzaileak	Martin de Goitisoloko (Bakio). Pedro de Bilbao (Bilbo)	Filipo Genovés (Genova)	Anton de Basozabal (Bermeo)	Ximon de la Rochela (La Rochelle)	Juan Garcia (Genova)

prestaketa-lanetan ibiliak ziren, eta ondo ezagutzen zituzten ontziak.

Armadako naoen mantentze-lanak teknikari euskaldun, genoar eta frantsesen esku geratzeari eta andaluziar edo Gaztelakorik ez izatea deigarria da, kontuan hartuta naoen prestaketa-lanetan aritu ziren 57 arotz eta 66 bikeztatzailetatik gehienak hala zirela³⁸⁴. Halere, egia da atzerritar askok gaztelaniara egokitutako izenak zituztela zailtasunik gabe ontziratu ahal izateko, adibidez, Santiago naoko Juan Garcia bikeztatzaile genoarra.

Pentsa liteke munduaren beste muturrera joateko espedizioak, norako ezezagunekin eta atzerritarren agindu pean, gutxi erakartzen zituztela espainiarrak³⁸⁵. Eta gainera, ontziratzen ziren arotz eta bikeztatzailak hilean kobratzen zuten 1.875 marabediko soldata ez zen armaden prestaketa-lanetan Sevillako portuan aritzen zirenek egunean kobratzen zituzten 85 marabediak baino askoz gehiago, are gehiago kontuan hartuz gero espedizioetan parte hartzeak zekartzan arriskuak.

Sei arotz eta bikeztatzile, erdia baino gehiago alegia, euskaldunak zirela esan dugu, eta horretan zerikusi handia izan zuen ziurrenik San Antonio naoko maisu Juan de Elorriaga eta Concepcion naoko Juan Sebastian Elkano Gipuzkoarrak izatea; eta gainera, Concepcion naoko kontramaisu Juan de Acurio bizkaitarra zen. San Antonioko hamalau eskifaikide eta Concepcion ontziko zortzi, euskaldunak ziren.

F.1.- Arotzak

Arotz-lanak egin ahal izateko, egurrezko oholak estibatu ziren naoen sotoetan, itsas bidaian zehar kaltetutakoak ordezkatzeko eta itsasoaren erdian egin beharreko konponketetan erabiltzeko. Belazurrun batzuk ere eramane zituzten³⁸⁶. Concepcion naoak zehazki belazurruntzako bi masta zeramatzen³⁸⁷, eta Santiago naoak berriz, bi belazurrun handi eta beste bi txiki³⁸⁸. Ontziratatu ziren arotz euskaldunak hauek ziren:

Domingo de Yarza

Concepcion naoko arotza. Debarra zen, Juan de Arrona eta Maria de Hegainaren semea³⁸⁹. Espedizioarekin bat egin zuen lehenengo arotz euskalduna izan zen, ontzien prestaketa-lanetan aritu baitzen Sevillan 1519ko ekainaren 1ean. Lehen ere esan dugu espedizioa irten baino lehen bere ondasunen gaineko ahalordeak eman zizkiola Elkanori, Concepcion naoko Martin de Goyonaga arotz debarrari (ziurrenik Martin de Garateri buruz ari da, Victoria naoan ontziratatu zen arotz debarra) eta Juan de Acuriori³⁹⁰. Ez zuen sinatu ez zekielako.

Ezagutzen ditugu Trinidad³⁹¹, Santiago³⁹² eta Concepcion³⁹³ naoko arotz eta bikeztatzailak erabiltzeko ontziratatu ziren tresnak eta materiala. Domingo de Yarzak Concepción naoan zeramatzen tresnak, Anton de Basozabal bikeztatzailak eta biak erabiltzeko, hauek ziren: bi belarri-mailu, lau

burdinazko mazo, kurrika batzuk, eskuzko zerra bat, sei laztabin, bi begi-laztabin, lau aizkora handi, bi aizkora txiki, zeio bat, hiru aizto puntadun, lau aitzur luze, zorroztarri bat eta harriz lantzeko tresna....berrogeita hamar berno, “estoperol” motako 4.000 iltze (buru handiko iltze motzak), beste mota bateko 3.250 iltze eta 2.000 tatxet ere eraman zituzten³⁹⁴.

Concepcion naoa erre zutenean, 1521eko maiatzean, Trinidad naora pasa zen. Nao horretan hil zen eskorbutoagatik 1522ko urriaren 14an. 1534an, koroak zor ziena kobratzeko erreklamazioa egin zuten oinordekoek, eta zorra 60.677 marabedi zela erabaki zen³⁹⁵.

Martín de Garate

Victoria naoko arotza. Debarra zen, Catalina Aisaren senarra³⁹⁶. Itota hil zen Patagoniako Santa Cruz-en, 1520ko abuztuaren 31an, Santiago naoa hondoratu zen lekura zihoanean³⁹⁷. Ruxar edo Rixart izeneko arotz normandiar batek ordezkatu zuen; azken hori Santiagoko arotza izan zen, urte bereko maiatzaren 22an hondoratu zen arte.

Pedro de Sautua

San Antonioko arotza. Bermeotarra zen, Maria Perezen senarra³⁹⁸. San Antonio naoan itzuli zen Sevillara 1521eko maiatzean.

F.2.- Bikeztatzaileak

Bikeztatzaileek ontzia iragazgaitz mantentzen zuten krosko eta ontzigaineko taulen artean iztupa eta brea sartuz. Berezik delikatua zen ardura bat ere bazuten, ura ateratzeko ponpak zaintzea. Eta beraz, bikeztatzaileek ontzien iragazgaiztasunaz arduratu behar zuten eta ura ateratzeko ponpak egoera bikainean zeudela ziurtatu behar zuten, espediziokideen biziraupenerako ezinbestekoa baitzen.

Itoginak zituzten ontzigainak ere ikuskatu behar izaten zituzten, txalupa eta batela konpondu kapitainak agintzen zienean, ponparen kaxa ikuskatu egunean hainbate-tan eta, urik egonez gero, atera egin behar izaten zuten. Lan horiek guztiak egiteko hainbat tresna zituzten: mazoak, zeioak, mailuak, aizkorak, laztabinak, eta abar³⁹⁹.

Bikeztatzaileak beren eskuzko tresna propioak eramaten zituzten ontzietan, eta horrez gain, ontzien barrualdea garbitu eta oholen loturak bikeztatzeko naopak lurrean izateko behar zen guztia zeramaten bost ontzietan. Brearekin betetako botak zeramatzen, gutxienez pare bat ontziko⁴⁰⁰. Brea erabili ahal izateko, eltze handi bat zeramaten, 55 libra (23,5 kg) pisatzen zituena, eta bertan berotzen zuten brea, ontziko egurrei aplikatu ahal izateko adina urtu arte; brea aplikatzeko muturrean ahari larru zatiekin hornitutako tresna bat erabiltzen zuten. Egurrezko hiru koilara zeramatzen

brea heltze barruan mugitu ahal izateko berotzen zen bitartean.

Espartzuz betetako botak ere ontziratu zituzten, oholen joskurak bikeztatzeko beharrezkoa. Bikeztatzaileak erabiltzeko ziren, baita ere, 84 arroa (966 kg.) berun-xafla, naoetako joskurak beruneztatzeko. Trinidad naoa Sevillatik irten zen berunezko hamaika xaflarekin, eta Santiagok berriz, sei pasta ontziratu zituen⁴⁰¹.

Anton de Basozabal

Concepcion naoko bikeztatzailea. Bermeotarra zen, Madalena de Marcaidaren senarra⁴⁰². Ondoren, Trinidad naoko kontramaisua izan zen 24 hilabetez⁴⁰³. Lehen ere esan dugu Basozabalek flotaren prestaketa lanetan parte hartu zuela 1519ko uztailan, Concepcion naoan lan eginez, gerora ontziratu zen naoaren prestaketa-lanetan alegia.

Concepcion naoak bikeztatzaileak erabiltzeko zeramatzan tresnen artean zeuden kobrezko eltzea brea berotzeko, sei kintal iztupa (276 kg), sei arroa eta hamar libera gantz (73,6 kg) eta baita gantzarekin betetako upel bat ere, eta espartzuzko hamabi soka⁴⁰⁴. Ura ateratzeko ponpen ordezeko piezei dagokienez, Anton de Basozabali eman zitzaizkion bi ponpa handi, bat berria eta bestea zaharra, hamabi zaku, sei haga, lau burdinazko ponpen hagentzat, bi erdi behi-larru eta bost kintal iztupa⁴⁰⁵.

Portugalدارrek preso hartu eta gero, Moluketan atxiki zuten Antonio Brito kapitain portugaldarraren aginduz. 1523ko otsailaren 28an Banda uhartera bidali zituzten bizirik zirautenak, bi izan ezik, eta horietako bat Anton de Basozabal zen. Azken hori Ternaten geratu zen Britok bere zerbitzuen beharra zuelako⁴⁰⁶. Horiek dira berari buruz ditugun azken berriak, eta gerora desagertutzat jo zen.

Espedizioa itzultzean egin zen kitapean, kontuan hartu zen itsasoratzean agindu zitzaion soldata eta baita kontramaisua lanetan ibili zen denbora ere; 18 hilabete eta 11 egun zegoen soldata zor zitzaion guztira, eta hilean 1.875 marabedi zirela kontuan hartuta, 53.187 marabedi ziren guztira, eta horri 7.500 marabedi kendu behar zitzaizkion, Sevillan eman zitzaizkionak lau hilabeteko lana alde aurretik ordaintzeko. 45.687 marabedi zor zitzaizkion beraz. Eta gainera, Victoria Malukotik irten eta Trinidad naoa portugaldarrek atzeman zuten denbora tarte zor zaio (1522ko iraila amaiera). 1523ko uztailaren 10ean 20.000 marabedi ordaindu zitzaizkion bere emazteari, Indietako Batzordearen aginduz⁴⁰⁷.

Martín de Goitisoló

San Antonioko bikeztatzailea. Bakiokoa zen, Martín Juan eta María López de Nafarroaren semea⁴⁰⁸. San Antonion itzuli zen Sevillara 1521eko maiatzean.

Pedro de Bilbao

San Antonioko bikeztatzailea. Bilbotarra, Mari Sanchez de Ariza bilbotarraren semea⁴⁰⁹. Espedizioarekin bat egin zuen 1519ko ekainean, eta hor finkatu zen bere soldata. Armadarekin bat egin zuen lehenengo bikeztatzaile euskalduna izan zen. San Antonio naon itzuli zen Sevillara, 1521eko maiatzean.

H.- Bizarginak (osasun-langileak)

Trinidad naon zirujaua eta bizargina ontziratu ziren. San Antonio eta Concepcion naoetan bizargina. Victoria eta Santiago naoetan ez zuten osasun-langilerik. Medikuek, zirujau eta bizarginek bere lan-tresnekin ontziratu behar zuten. Zirujau burua Juan de Morales zen, Sevillakoa. Trinidad naon ontziratu zen eta 1522ko irailaren 25ean hil zen gaixotuta. Armadako osasun-autoritate gorena zen, eta hiru bizarginak ziren bere laguntzaileak.

Bidaia hasi baino lehen, osasun kontrola egin zitzaien ontziratu nahi zutenei espedizioa arriskuan jar zezaketen gaixotasunekin ontziratzea eragozteko. Mungiako Pedro Basozabali, adibidez, ez zitzaion utzi ontziratzen sifilisa izateagatik.

Zirujauak egiten zituzten lanen artean zeuden zauriak sendatzea, gorputz-adarrak moztea -oso praktika ohikoa zen zauriak

erraz infektatzen zirelako eta izozketak ere ohikoak ziren-, abzesuak irekitzea, zauriak kauterizatzea eta gorputzaren azaleko lesioak tratatzea, hala nola furunkuluak, zauriak eta tumoreak. Ospe txikiagoko zirujauak ziren bizarginak edo zirujau-bizarginak; horien ardura zen, betiere medikuak agintzen zuenean bakarrik, izainak, metxa sukoiak eta bentosak aplikatzea, eta baita ere odola ateratzea lantzeta erabiliz, oinarritzko tresna beraientzat⁴¹⁰. Kapitainaren mahaian esertzen uzten zitzairen jatorduetan, maisuarekin eta pilotuarekin batera⁴¹¹.



29. Irudia- Bizarginek erabilitako materiala.
Nabigazioaren pabiloia. Sevilla.

Naoetan lehenengo arreta ematen zuena bizargina izaten zen; lurrekoak baino prestakuntza handiagoa zuten eta horregatik deitzen zaie zirujau-bizarginak, izan ere, gaixoak eta zaurituak ontzitik ateratzeko aukerarik ez zegoenez, zirujia, zauri eta hautsiei buruzko ezagutza gehiago behar zituzten. Horietako bat, Hernando de Bustamante, sortzez Alkantarakoa izan arren Meridan bizi zena, Concepcion naoko bizargin gisa ontziratatu zen eta ondoren Victoriarara pasa zen. Juan Sebastian Elkanorekin itzuli zen Sevillara. Munduari bira eman zion lehenengo osasun-langilea izan zen.

Botikako materiala, sendagaiak, uken-
duak, olioak eta ur destilatuak Trinidad
naoan ontziratatu ziren eta 13.027 marabedi
kostatu ziren. Bizarginei motrailu bat eman
zitzaien botikako gauzentzat, 653 marabedi
ordaindu zutena; bi zorroztarri eta harriz
lantzeko tresna bat ere eman zitzaizkien,
2.125 marabedi ordaindu zen horiengatik⁴¹².

Pedro de Olabarrieta

San Antonio naoko bizargina. Gal-
dakaokoa, Pedro de Olaverrieta eta Maria
Ibañezen semea zen. Hilean 1.200 marabe-
diko soldata zuen eta lau hilabete aurrez
ordaindu zitzaizkion; horrez gain, 1.125
marabedi eman zitzaizkion zorroztarri bat
eta harriz lantzeko tresna bat erosteko, guz-
tira 5.925 marabedi beraz⁴¹³. San Antonio
naoan itzuli zen Sevillara 1521eko maia-
tzean.

I.- Armagizonak

Espedizioko 67 armagizonetatik bat
bakarrik zen euskalduna.

Juan de Menchaca

San Antonioko baleztaria. Bilbotarra
zen, Martin de Urreizti eta Maria Ibañez
de Menchacaren semea, biak bilbotarrak.
Sancha de Mujicaren senarra. Hileko 1.200
marabediko soldataren truke ontziratatu
zen. Lau hilabete aldez aurretik ordaindu
zitzaizkion, 4.800 marabedi hain juxtu⁴¹⁴.
Bere naoarekin itzuli zen Sevillara 1521eko
maiatzean.

J. Kapitainordeak

Horrela deitzen zaie armagizon, morroi
eta kapitainen konfiantzazko pertsonai. Pi-
gafetta, espedizioko kronikari bizantziarra,
kapitainordea zen.

Martín Barrena

Santiagoko kapitainordea. Ordiziarra
zen (Gipuzkoa), Martin Barrena eta Maria
de Barriolaren semea, biak Ordiziakoak.
Hilean 1.000 marabediko soldata zuen. Bi
hilabete aldez aurretik kobratu zituen⁴¹⁵.

Gaixotasunagatik hil zen 1521eko apiri-
laren 9an Cebun⁴¹⁶. Pigafetta, espedizioko
kronikari italiarra, Cebuko erregearekin hitz
egitera joan zen eta baimena eskatu zion

Martin Barrena eta Victoriako despentsari Juan de Aroche irlan lurperatzeko; biak ala biak eskorbutoak jota hil ziren. Erregeak baimena eman zuen eta hiriko plaza kristauen hilerri gisa erabiltzeko eskaini zen⁴¹⁷.

Soldataren kitapena egitean, 1520ko maiatzaren 22an Santiago naoa hondoratu zen egunera arte bederatzi hilabete eta hamabi egun kontatu ziren, eta hileko mila marabediko soldata zuenez, 9.400 marabedi zor zitzaizkion. 1520ko maiatzaren 22tik 1521eko apirilaren 9an hil zen arte hamar hilabete eta hamazazpi egun izan ziren, eta beraz, soldata 10.566 marabedi zen; guztira 19.966 marabedi, eta horri 2.000 marabedi kendu behar zaizkio, Sevillan ordaindu zitzaizkionak, eta horrenbestez, kitatu beharrekoa 17.966 marabedi zen⁴¹⁸.

K.- Despentsariak

Despentsaria maila baxuagoko ofiziala zen, kontramaisuarekin eta aguazilarekin batera. Elikagaien eta uraren arduraduna zen, eta eskotillako giltzak zituen bakarra⁴¹⁹. Elikagaien kontrolarekin zerikusia zuen guztiak garrantzia handia zuen espediziorako, eta erregeak 1519ko maiatzaren 8an Magallanesi eman zizkion jarraibideetan (35, 36, 38 eta 73 jarraibideak) jasota dago⁴²⁰. 73. jarraibideak dio despentsariak duela elikagaien kontua eraman eta banatzeko ardura⁴²¹. 36. jarraibideak dio anoak bi egunetik behin banatu behar zi-

rela, bizkotxo edo gailera pisura eta ardoa neurritara⁴²². 35. Jarraibideak dio Magallanes eta gainontzeko ofizialek despentsa ikuskatu behar zutela, kontrol faltagatik elikagaiak galtzea eragozteko⁴²³. Era berean, idatzita zegoen espediziokideek ez zutela elkarrekin jan behar mendebaldetik ekialdera egiten ziren bidaietan bezala, aitzitik, taldetan jan behar zuten, Portugaldik Indiara zihoazen ontzietan egin ohi zen bezala⁴²⁴.

Despentsariak janaria banatu eta gero, berotu egiten zen, adreilu erregogorrekin eta hareazko ohe baten gainean eraikitako sutegian. Eguraldi txarrarekin itzalita egoten zen, eta baita ilun zegoen orduetan ere, horregatik askotan jana hotza hartzen zuten. Eguneroko anoa hiru jatordutan banatzen zen: ardoa eta bizkotxa (galleta) gosaritan, jatordu nagusia eguardian eta afaria ilundu baino lehen.

Eskifaikideek txandaka sukaldatzen zuten edo itsasmutilei ordaintzen zieten beren ordezkariak zezaten. Taldetan jaten zuten, kidetasun edo jatorriaren arabera, kutxen bidez mugatutako espazioetan. Maila goreneko ofizialek aparte jaten zuten eta kalitate handiagoko elikagaiak izaten zituzten⁴²⁵.

Elikagai freskoak, barazki eta frutak esaterako, lehenengo egunetan jaten ziren, baina kantitate txikian, eta behin lehenengo egun horiek pasata, elikagai horiek dietatik desagertzen ziren. Itsas bidaiak gehiegi luza-

tuz gero, eskorbutoareen lehenengo zantzuak agertzen hasten ziren.

Dietak bi oinarritzko elikagai zituen: bizkotxa eta ardoa. Bizkotxa edo galleta gari-irinarekin egindako opil gogorrak ziren, bi aldiz egosiak eta legamiarik gabekoak; denbora luzez irauten zuten oinarritzko elikagaia ziren ontzian. Baina, batzuetan, hain egoten ziren gogorrak, gazteek bakarrik jan zitzaketela⁴²⁶.

Ardoa kaloria-ekarpen garrantzitsua zen eguneroko jatorduan, uraren ordezkotze ezinbestekoa zen ur gutxi zutenean edo usteltzen zenean, eta gainera, ontziko bizimodu gogorra ahanzten lagun zezakeen gauza bakarra zen. Marinelari egunero ematen zitzaion litro bat ardo, bi litro ur eta kilo erdi bizkotxa (575 gramo) baino zerbait gehiago. Dietari beste jaki batzuen kantitate jakin bat gehitzen zitzaion: haragia eta arraina, babak, garbantzuak, arroza, eta baita ere gazta, eta, oso gutxitan haragi freskoa. Hilero litro bat olio eta litro erdi pasa ozpin zegokion bakoitzari⁴²⁷. Ontziraturako bizkotxa eta ardoa 1.252.909 marabedi kostatu zen, armadarentzat erosi ziren elikagaien kostuaren %77a⁴²⁸.

Espedizioan bi despentsari euskaldun izan ziren, Juan Ortiz de Gopegui, San Antonio naokoa, eta Pedro de Tolosa; azken horrek Victoria naoko itsasmutil gisa hasi zuen bidaia, baina 1521eko apirilean ontziko despentsari izendatu zuten. Itsasmutilen atalean hitz egin dugu Tolosari buruz.

Juan Ortiz de Gopegui

San Antonioko despentsaria. Bilbotarra zen, Diego Ortiz de Gopegui eta Elvira Ortiz-en semea. Hileko 1.200 marabediko soldata zuen. Lau hilabete kobratu zituen alde zurretik, 4.800 marabedi⁴²⁹. Sevillara itzuli zen San Antonio naon 1521eko maiatzean.

San Juliango matxinadan Concepcion naoko kapitain Quesadari aurre egin zion, eta ez zien despentsa ireki San Antonioko tripulatuak ez zituzten elikagaiak neuririk gabe jan. Hiltzearekin mehatxu egin zioten eta orduan despentsa ireki behar izan zuen. Alvaro de la Mezquitak eskatuta 1521eko maiatzaren 22an Sevillan jasotako informazioaren arabera, Juan Ortiz de Gopegui deklarazioan ageri da San Juliango gertakarien lekuko gisa⁴³⁰.

6. Kapitulu

BIDAIA, SEVILLATIK MOLUKETARA

1519ko abuztuaren 10ean irten zen armada Sevillatik. Baina hilabete baino gehiago pasa zen Sanlucarretik irten eta itsas bidaia hasi zen arte. Lehen ere esan dugu 243 eskifaikideetatik 31 bizkaitarrak edo gipuzkoarrak zirela. Horietatik hamalau hil egin ziren, hamaika itzuli egin ziren 1521ean San Antonio naoan Sevillara, eta seik munduari itzulia eman zioten.

Bizimodua naoetan

XVI. mendeko naoetan bizi-baldintzak nolakoak ziren irakurtzean, ontziko bizimoduaren gogortasuna harrigarria da, eta harrigarria, baita ere, marinelen gaitasuna baldintza haiek jasateko. Naoa hormarik gabeko kartzela bat zen, espazio txiki batean elkarrekin bizi behar baitzuten 50 lagunek hilabeteetan. Fernández Vial-en arabera, San Antoni ontziak 23,8 metroko luzera zuen ontzigain nagusian eta 7,3 metroko gehienezko erruna; Santiagok berriz, 20,8 metroko luzera eta 6,3 metroko erruna⁴³¹.

Marinelek ontzigain nagusian egiten zuten bizimodua, bertan egiten ziren manio-brak, oihalak manciatzen ziren, sukaldatu egiten zen... Bertan lo egiten zuten gizon gehienek tapizen gainean, bodega zama



30. Irudia- Magallanes-Elkano espedizioko bost naoen irteera Sevillatik
Dibulitoo-en “Elcano, la primera vuelta al mundo” filmaren irudia

eta tresnak gordetzeko erabiltzen baitzuten. Bidaldian ohikoa zen olatuek ontzigaina gurutzatzea eta espazio lehorrak eskasak izaten ziren.

Naoen ontzigainak beteta zeuden kaxekin, holtzekin, sokekin, eskifaikideen



31. Irudia- Victoria naoaren kopia

kaxekin, suekin, dibidietekin, tresnekin, animalia biziak eta beste mila gauzekin, eta egoera horretan, espediziokideak pilatuta bizi ziren. Eskifaikide bakoitzak bataz beste 1,5 m² ⁴³² zituela kalkulatu da. Horregatik ez da harritzekoa eztabaidak eta borrokak ohikoak izatea. Espediziokideak ontzizigainean lan egin, jan, gaixotu eta hiltzen ziren, aire zabalean, deserosotasun egoeran eta inolako intimitaterik gabe. Nolabaiteko babesa ematen zieten branka eta txopako espazio arkupedunek. Behar fisiologiko oinarritzkoenak denen begi-bistan egiten ziren. Txandaka egiten zuten lo ontzizigainean, artean ez baitzegon hamakarik ontzietan⁴³³. Egurats zabalean ekuatoreko beroak jasaten zituzten, tropikoetako uholde-urak, hotz australak eta ekaitz izugarriak.

Bodega zama, elikagaiak eta ura garraiatzeko bakarrik erabiltzen zen. Ontzia nabigatzera irteten zenean, eskotilla itxi egiten zen itsasoko ura eta euria barruan sartu ez zitezen. Oso zabaldua dagoen ustea izan arren, tripulazioak inoiz ez zuen erabiltzen lo egiteko.

Garbitasunik ez zegoen, eta urik ez zegoenean, ezinezkoa zen norbera edo arropa garbitzea. Arratoiak, zorriak, zimitzak eta labezomorroak zeuden. Eta horri gehitu behar zaio animalia bizien presentzia (oilok, arkumeak, ahuntzak, txerriak eta baita behiak ere), izurriteak (bartzanga, elgorria, tifusa, eta abar) eta eskorbutua⁴³⁴.

Kapitainek eta ofizialek espazio zertxobait gehiago izaten zuten. Alkazarraren gainean beste alkazar txikiago bat eraikitzen zen, eta horixe izaten zen kapitainaren ganbera, eta, zegokionean, maisu eta pilotuarena. Horiek mahai batean jaten zuten, gainontzeko tripulaziotik aparte, eta pajeek zerbitzatzen zieten. Txopan, alkazarraren estalpean babesten ziren marinelak, lema- zangoa gobernatzen zen, maniobretarako beharrezko tresnak uzten ziren, ofizialen kutxa eta beste hainbat gauzekin batera. Brankako gazteluaren estalpean babesten zen tripulazioaren zati bat atsedean hartu nahi zutenean⁴³⁵.



32. Irudia- Naoetako ontzizigaina zaku, kaxa, soka, holtz eta beste objektu batzuekin bete zegoen



33. Irudia- Kapitainaren gela eta lema txopan, naoa gidatzeko



34. Irudia-Naoko branka dibidietarekin

Guardiei dagokienez, hiru txanda egiten ziren: lehenengoa, ilunabarra sartu arte, kapitainak egiten zuen; bigarrenari “medora” deitzen zitzaion eta pilotuaren ardura izaten zen; hirugarrenak goizalderarte irauten zuen eta maisuaren erantzukizuna zen⁴³⁶.

Marinelek arropa zabalak erabiltzen zituzten aske mugitu ahal izateko. Alkandora eta txorkatila arteko galtzamotzak janzten zituzten, brusa txanodunak edo oihalezko soineko luzea gerrian lotuta. Beroki gisa itsasoko longain urdina erabiltzen zuten, eta burua babesteko berriz, artilezko txapel gorriak erabiltzen zituzten, bonete izenez ezagutzen zirenak. Ofizialek jantzi dotoreagoak erabil zitzaizketen, beluz edo zetazko jipoi, galtza eta txapelak⁴³⁷.

Espedizioan, ohitura desberdinak ziztuzten bi biztanleria multzo elkarrekin bizi ziren ontziko eremu txikian. Alde batetik marinel eta profesionalek osatzen zuten taldea, guztiak nabigazio-lanetarako jantzi egokiekin, ontziko elikadurara eta lan gogorretara ohituak; eta bestetik, jauntxoak eta administraziooko goi mailako ofizialak ontziratzen ziren, beren morroi eta pajeekin⁴³⁸.

Munduarien inguruko lehen biraren etapak

Lehen zirkumnabigazioaren ibilbidea Tomas Mazonek garatu zuen web orri bikain batean; bertan mapak eta bestelako tresnak aurki daitezke, espedizioa nolakoa izan zen modu grafikoan ulertzen laguntzen dutenak⁴³⁹. Hiru oinarritzko etapa bereiz daitezke:

- Atlantiar ozeanoaren eta itsasartearen zeharaldia Magallanesen agindupean.
- Magallanesen itsasartetik Moluketara bitarteko ibilbidea hainbat buruzagiren aginduetara: Magallanes, Carvallo eta Espinosa-Elkano
- Victoriaren itzulera bakardadean, ozeano Barearen hegoaldea eta Atlantiar ozeanoa zeharkatuz Elkano-ren aginduetara.

Sanlucar-etik San Julian badiara

Sanlucarretik irailaren 20an irten eta sei egunetara, Tenerifera iritxi ziren, eta abenduaren 13an Santa Luciara (Rio de Janeiro). Hasieratik liskarrak izan ziren Magallanesen eta gainontzeko kapitainen artean, bereziki Cartagenarekin. Beraien artean zegoen mesfidantza handitu baino egin ez zuen hiru erabaki hartu ziren, Patagoniako San Julian portuan izandako tragediaren metxa piztu zutenak. Lehendabizikoa Magallanesek erabakitako norabide aldaketa izan zen, izan ere hego-mendebaldera joan beharrean, hegoaldera, Afrikarantz joatea erabaki zuen, portugaldarren bidetik. Bigarrena, Magallanesek gainontzeko kapitanei norabiderik ez ematea izan zen, nahiz eta agindu hori izan. Eta hirugarrena, gainontzeko kapitainek arratsaldero kapitainaren naora joateko zuten agindua zen, Magallanes agurtzera:



35. Irudia- Munduarien inguruko lehen itzuliaren ibilbidea

“Dios salve al señor comandante capitán general y maestro”; gainontzekoentzat umiliazioa zen, gatazka sortua zegoen.

Magallanesen harrokeria eta Juan de Cartagenaren harropuzkeriari gehitu behar zaie Magallanesek kapitain espainiarrekiko sentitzen zuen mesfidantza, eta horrek guztiak ez zuen batere lagundu giroa baretzen. Ezin da ulertu Magallanesen burugogorakeria erregeak emandako aginduak ez betetzeke. Pentsa dezakegun bakarra da espedizio haren buru ikusi zenean, eginkizun hura bere egin zuela zentzugabekeria hartan⁴⁴⁰. Haren guztiaren ondorioz, bi talde sortu ziren, eta bi maisu gipuzkoar elkarren aurka aritu ziren. Elorriagak Magallanesen alde egin zuen eta Elkanok berriz, matxinatuen alde.

Lehenengo arazo handia Gineako kostan gertatu zen, Cartagena eta Magallanes Victoriako maisu Antonio Salomon-en egoera aztertzeke elkartu zirenean, azken horrek sexu harremanak izan zituelako beste eskifaikide batekin. Bileran zeudela, Magallanesek preso hartu zuen Juan de Cartagena ez obeditzeagatik, eta Concepcion naoko tripulazioaren esku utzi zuen, Elkanok berak esan zuen bezala⁴⁴¹.

1519ko abenduaren 26an Rio de Janeirotik abiatu ziren eta Rio de la Plata-ra (Montevideo) iritsi ziren urtarrilaren 10ean; handik hiru astera, otsailaren 2an zehazki, abiatu ziren bertatik. Hurrengo egunean hil zen espedizioa lehenengo euskalduna, San

Antonio naoko Sebastian de Olarte marinela bilbotarra, borroka batean labankada jaso eta gero hil zen. Gertakari hark argi erakusten du ontzi bakoitzean, espazio oso mugatua bizi ziren espedizionario guzti haien artean tirabirak sortzen zirela. Otsailaren 4an aingura bota zuten zulo bat konpondu eta Olarte lurperatzeko. Ahal zen guztietan hildakoak lurperatu egiten zituzten, eta ahal izanez gero lur santuan; gorpua olana zaku baten barruan, kainoi bala batekin, itsasora botatzea baino aukera hobea zen.

1520ko martxoaren 31an armada Patagoniako San Julian badiara iritsi zen; espedizionarioek bertan igaro behar zuten negua, eta bertan gertatu zen Magallanesen eta kapitain espainiarren arteko bigarren gatazka, eta larriena. San Juliango matxinada deitu zitzaion eta zeresan handia izan zuten Elkano nahiz Elorriaga gipuzkoarrek eta Ortiz de Gopegui bizkaitarrak.

San Juliango matxinada eta Santiago naoa galtzea

1520ko apirilaren 1eko gauean, Erramu-igande batez, Juan de Cartagena eta Concepcion naoko kapitain Gaspar de Quesadaren aginduetara, 30 gizon armatu

Concepcion naotik atera ziren eta San Antonio naoa aboratu eta gero, Alvaro de Mezuita kapitaina preso hartu zuten. San Antonioko maisu Juan de Elorriagak Mezquitaren alde egin zuen; matxinatuei eskatu zien kapitaina askatzeko eta kontramaisuari agindu zion San Antonioko gizonak armak har zitazela beren kapitaina defendatzeko. Quesadak lau labankada eman zizkion Elorriagari beso batean eta horrela amaitu zen erresistentzia, Mezquita preso geratu zelarik⁴⁴².

Dirudienez, hasiera batean Elorriagak matxinatuen eskariak onartu zituen, ziurrenik antolatzen ari zirena benetan zenbaterainokoa zen ez zekielako, baina azken orduan matxinadarekin bat ez egitea erabaki zuen. Bizkaiko despentsari Juan Ortiz de Gopeguik esan zuenez, zauritua zegoela Elorriagak kontatu zion apirilko lehenengo igandeko goizean Elkano gerturatu zitzaiola esateko armadako kapitain, ofizial, maisu eta pilotu guztiek eskaera bat egin nahi ziotela kapitain nagusiari norabidearen berri eman zezan, baina ez ziola matxinadari buruz ezer esan⁴⁴³.

Quesadak agindu zuen Elkanoren bila Concepcion naora joateko San Antonioren agintea har zezan eta artilleriaren kargu egin zedin, bodegatik ateraz eta ontzigainera eramanez⁴⁴⁴. Elkanok matxinadan parte hartu zuen, bere ekintzen larritasunaren eta gainera erori ziezaiokeen zigorraren jakitun.

Lehen ere esan dugu Concepcion naoko kapitain Quesadak eta Antonio de Coca kontulariak naoko despentsari Juan Ortiz de Gopegui bilbotarrari eskatu ziotela, marinelen estimua irabazteko asmoarekin, despentsa ireki eta ogi nahiz ardo anoak banatzeko eskifaikideei. Matxinatuen mehatxuen aurrean, Gopeguik men egin behar izan zuen, eta marinelei jakiak eman zizkien “pisu eta neurririk gabe”⁴⁴⁵.

Hirugarren gertakaria apirilaren 2ko arratsaldean gertatu zen, Magallanesek marinela eta soldadu talde bat Victoriara bidali zuenean Espinosa aguazilaren aginduetara. Gertakari hartan Luis Mendoza hil zuten, Victoria naoko kapitain matxinatua. Horrekin amaitu zen matxinada. Apirilaren 7an Quesada, Concepcion naoko kapitaina, hil zuten; bere morroia hari burua moztera behartu zuten, eta ondoren gorpua zatitu zuten. Juan de Cartagena eta Pedro Sanchez elizgizona Patagonian utzi zituzten. Berrogei espediziokide hiltzera kondenatu zituzten, baina barkatuak izan ziren Magallanesek ezin zituelako hainbeste gizon galdu.

1522ko urriaren 18an, bidaiatik itzuleran, Elkanok Etxeko eta Gorteko endore Santiago Diez de Leguizamori Magallanesen aurkako deklarazio gogorra egin zion gertakari horren jatorriari zegokionez, eta jakinarazi zuen Cartagena eta Magallanesen arteko liskarrak sortu zirela azken horrek ez ziolako Cartagenari ezer kontsultatzen, nahiz eta koroaren lekukoa izan⁴⁴⁶.

Magallanesek larderiaz jokatzeko moduri ihes egiten zion, ez zituen betetzen aholkua eskatzeari buruz erregeak emandako aginduak, eta ez zuen norabidearen berri ematen, batzuetan arbitrario eta ulertezina zirudiena. Hilabete batzuk geroago, San Antonioko iheslariak Sevillara itzuli zirenean, Magallanesen traizioa salatu eta erregearen aginduak nabarmen hautsi zituela jakinarazi zuten; espedizioeko nagusia traidore baten pare ageri zen, eta horrenbestez, errebelatzaile gisa kondenatu zuen espedienteak bideratu zen Espainian⁴⁴⁷.

1520ko uztailaren 15ean hil zen Juan de Elorriaga maisu gipuzkoarra, San Juliango matxinadan zauritua izan ondoren.

Maiatzaren 22an, esplorazio-lanetan zebilen Santiago naoak hondoa jo zuen Santa Cruz ibaiko barra batean eta hondoratu egin zen, baina eskifaikide guztiak onik atera ziren bat izan ezik. Ontziko euskaldun bakarra, Martin Barrena ordiziarra, beste ontzi batera pasa zen.

San Julian eta Magallanes itsasartearen artean

San Juliango negualdiak, oso egun motzak izaten dituen bereziki ekainean eta uztailan⁴⁴⁸, bost hilabete iraun zuen. 1520ko abuztuaren 24an flota San Juliango portutik irteten zen, eta bertan utzi zituzten Cartagena eta Sanchez de la Reina. Bi egun geroago Santa Cruz ibaira iritsi ziren eta bertan geratu ziren urriaren 18ra arte, ontziak konpontzen zituzten bitartean. Denbora horretan Santiago naoko hondakin erabilgarriak berreskuratu zituzten. Saiakera horietako batean itota hil zen Martin de Garate debarra, Victoria naoko arotza.

Urriaren 18an abiatu zen berriro armada, eta hil horren 21ean lurmutur bat



36. Irudia- Atlantiar ozeanoaren zeharbidaian hiru euskaldun hil ziren eta San Juliango matxinada gertatu zen Argentinako Patagonian

begiztatu zuten; Hamaika mila Birjinen eguna zenez, izen horrekin bataiatu zuten lurmuturra, eta artean ez zekiten arren, Magallanes itsasartearen sarrera zen.

San Antonio naoaren desertzioa eta Sevillara iristea

Azaroan, Magallanes itsasarte esploratzen zuten bitartean, Esteban Gomez pilotuak ezusteko eraso bat zuen: San Antonion Mezquita kapitaina atxilotu eta Sevillara

abiatu zen. Nao horretan ontziratu ziren hamalau euskaldunetatik, une horretan, hamaika geratzen ziren. Bi hil egin ziren arma zuriekin egindako zauriengatik, eta Juanes de Segura ez zegoen itzuli zirenen artean, badirudi aurretik beste nao batera igaro zela. Eta beraz, hamar bizkaitar eta gipuzkoar bat itzuli ziren Sevillara: bi marinela, hiru itsasmutil, arotz bat, bi bikeztatzaile, bizargin bat, despentsari bat eta baleztari bat.

San Antonio naoaren desertzioa oso garrantzitsua izan zen flotako itsasontzi handiena zelako eta espedizioko elikagai gehienak zeramatzalako. Eta gainera, Magallanes asko kezkatzen zuen ontziko eskifaikideek bere jarrerari buruz konta zezaketenak.

1521eko maiatzaren 8an San Antonio naoa Sevillara iristea gertakari harrigarria izan zen, matxinada baten istorioa, itsasarte baten aurkikuntza eta San Antonio beraren desertzioa ekarri zituelako.

San Antonioko eskifaikideei galdetegia egin zitzaion saio bukaezinetan. Maiatzaren 12an Lopez de Recalde Fonseca gotzainari kontatu zion hiru egunez, Igokunde egunaren goizeko lehenengo ordutik hurrengo eguneko gauera arte 53 espediziokideri galderak egin zizkietela bi eskribauren aurrean eta etxeko abokatu Castroverderen laguntzarekin. 21 lekukotasun bakarrik biltzea lortu zutela jakinarazi zuen, denbora gehiago behar zutelako, egun erdia, beren

19. taula. San Antonio naoan Sevillara itzuli ziren espediziokide euskaldunak

Juan de Menchaca	Baleztaria	Bilbo
Juan de Orue	Itsasmutila	Mungia
Juan Ortiz de Gopegui	Despentsaria	Bilbao
Juanes de Irun Iranzo	Itsasmutila	Irun
Lope de Ugarte	Marinela	Bizkaia
Martín de Aguirre	Itsasmutila	Arrigorriaga
Martín de Goitisoló	Bikeztatzailea	Bakio
Pedro de Bilbao	Bikeztatzailea	Bilbo
Pedro de Laredo	Marinela	Portugalete
Pedro de Olabarrieta	Bizargina	Galdakao
Pedro de Sautua	Arotza	Bermeo

istorioak jasotzeko espediziokideek joan zirenetik itzuli ziren arte⁴⁴⁹.

Lopez de Recalde eta Matienzok guztia kontatu zioten erregeari, eta espediziokide guztiak atxilotu zituzten; ondoren ofizialak ez zirenak aske utzi zituzten, horien artean hamaika euskaldunak⁴⁵⁰. Kontratazio Etxeko ofizialek erregeari idatzitako gutun batek dio nao hartan etorri ziren kapitainorde eta marinela guztiei joateko eskatu zietela soldatarik ordaindu gabe. Espediziokideak kexatu egin ziren eta ofizialek erregeari galdetu zioten zerbait ordaindu behar zitzaien edo ezer ez⁴⁵¹. Eta horrela, “bizimodua ahal zen moduan ateratzeko bidea hartuta” amaitu zen abentura gizon haientzat.

Magallanes itsasartearen zeharkaldia

Magallanes izenarekin bataiatu zen itsasarte hartan bost astez nabigatu eta gero, 1520ko azaroaren 28an, hiru naok osatutako armada ozeano Barera iritsi zen. Hamalau hilabete baino gehiago eman zituzten Sanlucar eta itsasartearen arteko bidea egiten. Bidaia zaila izan zen, nabigatzeko baldintzak oso gogorrak izan ziren, hala nola Antartikoko zirkulu polarrera hurbiltzean aurkitu zituztenak. Inoiz ez zuten halako hotz handirik ezagutu, ezta hain

haize indartsurik ere, urakan tropikalak izan ezik. Inoiz ez zuten ezagutu landare-elikagai hain gutxi zeukan lurrik.

Haizearen eta itsasaldien aurka borrokatuz itsasartera heldu izanak tripulazio haien sendotasuna erakusten zuen, eta baita Fernando de Magallanesen gaitasuna ere, nabigatzaile eta kapitain jeneral ona zen. Bere mendekoak larderiaz tratatzen zituen, baina horrela egin ezear, litekeena da bere helburua lortzeko zailtasun asko izatea, bere gizonak munduaren amaierara baizeramatzan itsas zabaleko nabigazioaren hastapenetan. Hilabete oso batean zehar 600 km.-ko zeharbidea egin behar izan zuten eskifaikide horien begietara, ozeano arteko pasabidea tristea eta iluna zen⁴⁵².

Hogeita hamaika euskaldunek hasi zuten zeharbidea irailaren 20an Sanlucarren. Magallanesen itsasartetik ateratzean, 17 bakarrik geratzen ziren, sei gipuzkoarrak eta hamaika bizkaitarrak.




37. irudia-Victoria ontzia Magallanes itsasartearen gurutzatzen, Muñoz Vera artista txiletarraren lana

Ozeano Barearen zeharkaldia

Ozeano Barearen zeharbidea 1520ko azaroaren 28tik 1521eko martxoaren 6ra arte luzatu zen, orduan iritsi baitziren Mariana irletara. Abenduaren 18ra arte Txileko itsasbazterretik ibili ziren, baina gero mendebalderantz jo zuten. 1521eko urtarrilaren 24an irla bat begiztatu zuten eta San Pablo izena jarri zioten, eta otsailaren 4an berriz, Marrazoen irla, baina ez ziren horietako bakar batean ere lehorreratu. Be-

deratzi egun geroago Ekuatorea gurutzatu zuten.

Pigafettak maisutasun handiarekin azaltzen du zeharbidea eta ozeano Barean jasandako nekeak, eta hiru hilabetez inolako elikagai freskorik probatu gabe nabigatu zutela kontatzen du. Jaten zuten bizkotxa ez zen ogia, sustantzia guztia jan zuten harrekin nahastutako hauts bat baizik. Ura ere usteldu egiten zen eta kiratsa zerion. Goseak ez hiltzeko, egurrak sokak suntsitzea eragozteko belazurruna estaltzen zuen behi-larru zatiak ere jan zituzten. Larrua hain zegoen



38. irudia- Bost espedizionario euskaldun ozeano Barean hil ziren

gogorra, itsasoan beratzen jarri behar izaten zela lau edo bost egunez pixka bat biguntzeko. Askotan, zerrautsa ere jan behar izaten zuten, eta arratoiak ere elikagai preziatua izatera iritsi ziren, bakoitzagatik dukat erdia ordaintzeraino⁴⁵³.

Elikagai freskoen gabeziak sortzen duen gaitzari buruz, eskorbutoa alegia, Pigafettak dio hortzoiak puzten zituela, eta gaixoak ezin izaten zuten ezer jan. Hemeretzi espedizionario hil ziren eta beste hogeita bost gaixotu ziren gorputz osoko min handiekin, baina azkenean sendatu egin ziren⁴⁵⁴.

Ez da oso ondo ulertzen zergatik Magallanesek ez zituen ontziak ur eta elikagaiekin hornitu itsasartetik irten baino lehen. Ozeano Bareko zeharbideak iraun zuen hiru hilabetetan, 4.000 legoa (20.000 km. baino gehiago) egin zituzten. Batez besteko abiadura benetan ona izan zen aldeko haize eta korronteei eskerrak.

Martxoaren 6an, Magallanesko itsasartetik irten eta laurogeita hamazortzi egunetara, armada Guam uhartera iritsi zen, Marianetako handiena; irla hari lapurren irla deitu zioten indigenek egindako lapurretengatik. Hamar egun geroago espedizioa Filipinetara iritsi zen (Samar irla) eta gaixoak osasuna berreskuratzen hasi ziren.

Baina, halere, batzuk hil egin ziren jasadako neke, gose eta eskorbutoarekin ondorioz. Martxoaren 21ean hil zen Ochote de Erandio bilbotarra, Victoriako itsasmu-

tila; eta apirilaren 9an berriz, Ordiziako Martin Barrena, Sevillan Santiago naotan ontziratu zen kapitainordea. Magallanesek baimena eskatu zion Cebuko erregeari Martin Barrena eta Victoriako despentsari Juan de Aroche⁴⁵⁵ lurperatzeko. Litekeena da, une horretan Victoriako itsasmutil Pedro de Tolosa naoko despentsari bihurtu izana, Arocheren ordeztu, eta kargu horrekin iritsi zen Cabo Verdera eta ondoren Sevillara.

Flota Marianetara eta Moluketara iritsi bitartean igaro ziren zortzi hilabeteak hila-bete galduak izan ziren, espedizioa norabide eta orientaziorik gabe baizihoan Elkanok agintea hartu zuen arte, eta aste gutxi batzutan helburu nagusia lortu zen: Moluketara iristea⁴⁵⁶.

Ozeano Barean, Magallanesek nolabait ahaztu egin zuen helburu nagusia Moluketara iristea zela, eta are okerragoa dena, bertakoen barne borroketan sartu zen, akats estrategiko larria eginez harrokeria edo arduragabekeriagatik, eta ondorioz, Mac-tan-en (Filipinak) hil zen 1521eko apirilaren 27an.

Magallanes hil ondoren, espedizioko buru izendatu zituzten Diego Barbosa eta Juan Rodriguez Serrano. Baina erantzukizun berri horiek ez ziren denbora askorako izan, izan ere lau egun geroago, maiatzaren 1ean hain juxtu, Cebu-ko erregeak oturuntza batera gonbidatu zituen eta hogeita lau espedizionario hil zituzten bertan. Horien artean zegoen Juanes de Segura, Sevillan



39. Irudia- Juan Sebastian Elcano.
Gipuzkoako Foru Aldundiko margolana, Eugenio Azcuerena

San Antonio naoan ontziratu zen marinel gipuzkoarra. Itzultzean Elkanok Leguizamoren aurrean egin zituen adierazpenetan, Cebuko oturuntzaren tragedia Magallane-

sen morroi Enrique de Malacari⁴⁵⁷ egotzi zion.

Elkano ez zegoen Magallanes hil zute-nean, ezta Cebu-ko oturuntza hartan ere, egun horietan gaixo egon zelako, berak kontatu zuen lez itzuli zenean, 1522ko urriaren 18an, Valladoliden⁴⁵⁸. Cebun hil zituztenen artean zegoen Andres de San Martin pilotua, eta bere nabigazio-liburuak Elkanoren eskuetan geratu ziren azkenik, bere testamentuan ageri denez⁴⁵⁹.

Bizirik atera zirenak Lopez Carvallo izendatu zuten buru eta Bohol irlara joan ziren, Mactan-etik 80 km.-ra⁴⁶⁰. 110 espedizionario inguru geratzen ziren, oso gutxi hiru naoak gidatzeko. Comellasek dioenez, Elkano Concepcion naoko maisu izendatua izan zen berriro, eta Elkanok berak jakinara-zi zuen naoa ez zegocela nabigatzen jarrait-zeko egoeran, eta horregatik erre egin zuten maiatzaren 2an. Horren ondoren Elkano Victoriako⁴⁶¹ maisu izatera igaro zen, eta bertan geratu zen Sevillara itzuli zen arte. Baina Fernandez Vial-ek dio errehabilitatua izan eta gero, Elkano Victoriako maisu bihurtu zela zuzenean. Carvallo Trinidad naoko burua zen eta Gomez de Espinosa Victoriako kapitaina⁴⁶².

Carvalloren gaitasunik eza dela eta, flotak noraezean nabigatzen jarraitu zuen. Uztailaren 9an Bruneira iritsi ziren, hiririk handiena Sevillatik⁴⁶³ atera zirenetik, eta bertan geratu ziren hogeit egun. Uztailaren

21ean indigenek Domingo de Barrutia Trinidad naoko marinel lekeitiarra preso hartu zuten, eta inoiz gehiago ez zen haren berririk jakin⁴⁶⁴.

Abuztuaren 15ean egungo Balambangan izango litzatekeen uhartean geratu ziren. Bost aste geratu ziren bertan naoak konpontzen. Irla hartan, Elkanok dioenaren arabera, Carvallo kargutik kendu zuten eta bera izendatu zuten kapitain⁴⁶⁵. Bere deklarazioan Elkanok hiru gauza garrantzitsu esan zituen: Carvallo agintaritzatik kendu zela gaitasunik ez zuelako; bere gizonak aukeratu zutela kapitain izateko; eta bera izan zela, eta ez Espinosa, gainontzeko kapitain, pilotu eta maisuei itsasbidea jakinarazi ziena, Moluketara joateko itsasbidea hain zuzen, Carvallo eta Magallanesek inoiz egin ez zutena.

Gertakari hori 1521eko irailaren 16koa izan daiteke, egun horretan utzi baitzion Elkanok maisu bati zegokion soldata kobratzeari eta kapitainari zegokiona kobratzen hasi zen⁴⁶⁶. Diruzain izendatu zutela ere esaten du, eta orduz geroztik, behar bezala eramane zirela idazpenak eta diruzaintza; eta gaineratu zuen Carvallo eta Magallanesek egin zutenari buruz ez zegoela daturik, go-goak emandakoa egiten zutelako azalpenik eman gabe⁴⁶⁷.

Carvallo kargutik kendu eta gero, armadaren buru geratu ziren Gonzalo Gomez de Espinosa, Trinidad naoko kapitain gisa,

Juan Sebastian Elkano, Victoria naoko kapitaina eta Martin Mendez, errege kontularia. Ez Espinosak eta ez Mendezek ez zuten esperientziarik nabigatzailer gisa, eta horregatik, Juan Sebastian Elkano, eskarmentu handiko marinel euskalduna bihurtu zen espedizio buru estraofiziala⁴⁶⁸. Berarekin nabigazioaren bilakaerak ehun eta laurogei graduko bira eman zuen eta hasierako helburua berreskuratu zen, Moluketara iristea, Carlos I.ak berariaz hala agindu baizien Magallanes eta Faleironi⁴⁶⁹.

Sevillan Concepcion naoko itsasmutil gisa ontziratu zen Pedro de Muguertegui (Bermeoko Peru) bat-batean hil zen irailaren 16an.

7. Kapitulu

ELKANOREN GARAIA, ITZULERA

Moluketan

Azaroaren 8an, eguzkia jarri baino hiru ordu lehenago, eta bi urte eta hiru hilabetez nabigatu ondoren, bi naoek Tidore irlan bota zituzten aingurak, Moluka uharteetan, mundu osoko iltze ekoizle garrantzitsuena hain zuzen. Egun, Molukak Indonesiako Errepublikarenak dira; mila irlatik gora dira, gehienak uhartetxoak, eta horietatik garrantzitsuenak Ternate, Mutir, Tidore, Mate eta Macchian ziren. Beren mendietan hazten da iltzearen zuhaitza, espedizio hark zuen helburua hain juxtu; baina horrez gain, irla horietan kanela, jengibre eta intxaur muskatua ere aurki zitezkeen⁴⁷⁰.

Espediziokideei harrera ona egin zieten, eta ofizialen triunbiratoak hitzarmena sinatu zuen erregearekin; azaroaren 10ean erregeari eskatu zioten iltzea lehenbailehen ontziratzeko portugaldarren eskuetan erortzea eragozteko, euren bila baizebiltza-



40. Irudia- Moluka irlak
Tidore atzean dela

ten. Hitzarmen horiek idatziz jasota daude Espinosak, Elkanok, Juan Bautistak eta Martin Mendezek Palawan, Tidore, Halmahera (Jilolo), Makian, Ternate eta Batjan-go errege eta jaunekin egin zuten bake eta adiskidetasun liburuan⁴⁷¹. Hainbat gorabeheraren ondoren, azaroaren 25ean trukea hasi zuten eta naoak kargatzen hasi ziren. Bi egunetan erregeak berri emateko agindu zuen, nahi zuen guztiak iltzea askatasunez sal zezan. Egun horretan eta hurrengoan iltze kopuru handia erosi zen⁴⁷².

Abenduaren 5ean eta 6an indigenek oso merke eskaini zuten iltzea, eta marinel guztiek erosi zuten; espezie horren truke kapak, zapatak, alkandorak eta beste arropa batzuk ere eman zituzten⁴⁷³. Azkenean, abenduaren 17an, 80 tona ur kargatu ziren nao bakoitzean eta armada ia prest zegoen irtetzeko.

Itzultzeko saiakera hutsala

Ez dakigu ziur zein zen itzultzeko aurreikusia zuten bidea. Une horretan montzoiak ekialdetik jotzen zuela kontuan hartuta, lehenengo aukera Esperantza Oneko lurmuturrera arte jarraitzea izango litzateke, portugaldarren bidetik, hiru egun geroago Victoria naoak egin zuen bezala.

Beste aukera bat Darien-era (Panama) itzultzea izango litzateke, gerora Trinidad ontzia egiten saiatu zen bezala. Bigarren aukera horren alde egiteko garaian, ziu-
rrenik espediziokideen gogoan pisua izan zuen erregeak portugaldarren lurraldean ez sartzeko emandako aginduak:

*“el cual dicho descubrimiento habéis de hacer con tanto que no descubráis ni hagáis cosa (alguna) en la demarcación y límites del serenísimo rey de Portugal, mi muy caro y muy amado tío y hermano”*⁴⁷⁴.

Carlos I.a berak eskutitz bidez ziurtatu zion Portugalgo erregeari Indietara joateko prestatzen ari zen armadari berariaz agindu zitzaioela Tordesillas-ko hitzarmenean erabakitako bi erreinuen arteko demarkazio-línea errespetatzeko⁴⁷⁵.

Barredak ere aukera horren alde egiten du, eta esaten du Victoria eta Trinidad naok iparraldeko latitudeetatik hasi zutela Amerikako kostaldera iristeko saiakera, bertan aldeko haizeak aurkitzeko esperantza baizuten⁴⁷⁶. Lucenak ere ideia hori babesten du; bere ustez, bi naoak, Victoria eta Trinidad, behar bezala prestatu ziren ozeano Bareko zeharbide latza eginez Amerikara iristeko⁴⁷⁷.

Comellasek dio ez direla ondo ezagutzen jarraitu beharreko bidearen xehetasunak, baina badakigu Espinosa eta Elkano ez zeudela guztiz ados. Comellasek dio ziurrenik Darien-era (Panama) joateko asmoa izango

zutela, baina beste bide bat aurkitzeko aukera baztertu gabe⁴⁷⁸.

Abenduaren 18an, asteazkena, naoak abiatu egin ziren. Victoriak ez zuen arazorik izan, baina laster ohartu ziren Trinidad naoa hondoratzen ari zela eta ezinezkoa zela jarraitzea. Iltze-zamaren zati bat kendu zen zuloa aurkitu eta konpontzeko, baina ezin zen ezer egin, gehiegizko zamak eraginda ura iragazten baizen alde askotatik. Espediziokideek bazekiten naoetan zama handiegia zeramatela, izan ere, hiru egun lehenago, Tidoreko erregeak eskatuta, artilleria bota zuten, *“baina artilleria astuna bota gabe, naok zama handiegia baitzuten”*⁴⁷⁹. Laster jakin zuten Trinidad naoa konpontzeko hilabeteak beharko zirela. Zalantzarik gabe Gomez de Espinosa eta Elkano gertakari haren erantzuleak ziren zama handiegia baimentzeagatik, are gehiago hori eragozteko agindu zehatzak zituztela jakinda⁴⁸⁰.

Egoera berria eta bide berria

Egoera horretan, ordurarte kontuan hartu ez zen erabakia aurreikusi zen premiaz: nao bakoitzak bide bat hartzea, Victoria mendebaldetik eta Trinidad ekialdetik. Badirudi proposamena Elkanoren eskutik zetorrela⁴⁸¹. Espinosa soldadua zen, eta bere pentsaera nahiz lana soldadu batenak ziren:

jasotako aginduak betetzea; eta erregearen agindua zen portugaldarren lurraldean ez sartzea. Baina Elkanoren pentsaera itsasgizon batena zen, eta itsasgizon baten helburua da bere ontzia portu segurura eramatea, aldeko haize eta korronteak baliatuz.

Konponketak egin eta gero, Trinidad naoak itzulerako bidaia hasi zuen, eta ez zuen Magallanes itsasartetik egin, Darien-etik (Panama) baizik, eta bertan kargamentua nolabait Espainiara heltzeko laguntza aurkitu zuen. Victoria ordea, berehala irten zen kontrako bidea eginez, mendebalderantz, baina portugaldarren itsasbideetatik igaro gabe eta beraien kontrol peko kostaldeak ukitu gabe. Abentura hori bestea bezain arriskutsua zen, eta bietako edozein gaizki atera zitekeen, baina aukera gutxiago zeuden biak batera gaizki ateratzeko⁴⁸².

Elkano Gomez de Espinosarekin elkartu zen egoera aztertzeko, baina ez dago zer

eztabaidatu handirik. Montzoiek ekialdetik jotzen zuten, Elkanok egin nahi zuen itsasbidearen alde⁴⁸³, eta Victoria gehiago atzeratzen bazen, aurkako haizeak aurki zitzaketen. Gainera, portugaldarrek edozein unetan iritsi eta preso har zitzaketen. Baze-kiten bi ontziek Sevillara itzultzeko aukera asko zituztela, eta bakar batek askoz zailagoa zuela. Ontzi bakarti bat itsaso zabalean ekaitzen, harkaitzen, piraten, termiten eta beste nabigazio akats batzuen menpe zegoen⁴⁸⁴.

Eta horrenbestez, Elkano eta Gomez de Espinosa kapitainek erabaki bat hartu zuten, erregeak emandako aginduen artean ez zegoena: denbora eta itsasbide desberdinetatik itzultzea. Lucenak nabarmentzen du orduan erabaki zela, Tidoren, eta bi kapitainen oniritziarekin, munduari bira ematea Elkanoren erantzukizun pean⁴⁸⁵. Ideia hori babesten duten testigantza ugari dago: Fernandez de Oviedo, “*beste naoa itsasbide horretatik Espainiara itzultzea erabaki zuten...*”⁴⁸⁶; López de Gómara, “*Juan Sebastian Elkano getariarra (Gipuzkoa) Espainiara portugaldarren itsasbidetik itzuliko zela erabaki zuten, Victoria naoarekin, pilotua...*”⁴⁸⁷; eta Transilvano, ziurrenik Elkanoren hitzak ekarritik, “*guztiek erabaki zuten nabigatzeko egoera onean zegoen naoa zegokionean abiatuko zela bertan zeuden guztiekin*”⁴⁸⁸.

Behin betiko erabakia abenduaren 20an hartu zen. Elkanok proposatutako itsasbidea jarraitzeak esan nahi zuen Victoria ontziak



41. Irudia- Espedizioa banatu egin zen: Victoria mendebalderantz eta Trinidad ekialderantz

bere helburua lortuz gero, munduari bira emango ziola. Pigafettak bidaia osoko erabaki garrantzitsuena hartu behar izan zuen: zein ontzitan joango zen?. Bere bizi-raupen-senari kasu egin zion, lehenago ere egoera zailetatik ateratzeko balio izan baitzion, eta Elkanorekin joatea erabaki zuen, Victoria ontzian. Pigafettak gorroto zuen marinel euskalduna, baina itsasgizon bezala zuen gaitasunak konfiantza gehiago ematen zion Espinosak baino⁴⁸⁹.

Espediziokideek borondatez aukeratu zuten zer egin nahi zuten: Tidoren geratu edo Victorian itzuli. Berrogeita hamahiru gizonak geratzea erabaki zuten, batzuk beldur zirelako ontzian ezingo zutela hain bidaia luzean iraun, edo ozeanoaren erdian goseak hilko zirela uste zutelako⁴⁹⁰.

20. Taula. Tidoren Victoria eta Trinidad naotetan ontziratutako ziren euskaldunak eta hil zirenak (+)

VICTORIA	TRINIDAD
Juan Sebastián Elkano	Juan de Aguirre (+)
Juan de Acurio	Domingo de Yarza (+)
Juan de Arratia	Anton de Basozabal (+)
Juan de Zubileta	
Pedro de Tolosa	
Pedro de Chindarza	
Lorenzo de Iruña (+)	
Juan de Sanfelices (+)	
Martín de Insaurraga (+)	

Eta horrenbestez, 47 europarrek eta 13 indigenek osatu zuten Victoria naoko tripulazioa. Geratzen ziren 12 euskaldunetatik bederatzi Victorian atera ziren, eta hiru Gomez de Espinosarekin geratu ziren Tidoren, Trinidad ontziarekin.

Bai lurrean geratu zirenek bai itsasoratu zirenek sentitzen zuten emozioan nahasten ziren esperantza eta errezeloak, beldurrak eta konfiantzak. Moluketan geratu zirenek, inoiz ez bezala sentitu zuten aberriaren mira; eta itsasoratu zirenek berriz, arrakasta aukera handiagoak eskaintzen zituen abagune baten zain geratzea zentzudunagoa ez ote litzatekeen pentsatu zuten⁴⁹¹.

Bi kapitainak elkarri zortea opatuz agurtu ziren eta eskutitz nahiz txostenak eman zizkieten elkarri, portu segurura iristea lortzen zuen lehenak entrega zitzaizkien. Ez dakigu Gomez de Espinosa haserretu egin zen Elkano abiatzen ikusi zuenean mendealdeko itsasbidea egitea erabakita, bera, bitartean, Trinidad ontziaren buru geratzen zela, nabigatu ezinda. Konponketak lanak luzerako ziren eta edozein unetan azal zitezkeen ontzi portugaldarrak. Gauzak horrela zeuden, nork bere patuaren zama hartu beharko zuen eta aukerak ondo erabiltzen saiatu⁴⁹².

Trinidad naoari gertatu zitzaiona Victoriari gertatuko zitzaion beldurrez, 60 kintal (2.760 kg) iltze atera zituzten ontziko bodegetatik eta lurrean utzi zituzten. Pigafettak,

beste behin, Elkano gutxietsi zuen, zama uztea erabaki kolektiboa izan zela esanez⁴⁹³.

Nabarmentzekoa da Magallanesez inoiz ez zuela izan munduari bira emateko asmorik. Kapitain portugaldarrak Moluketara iritsi nahi zuen espainiar hemisferiotik nabigatuz, eta itsasbide bera eginez itzultzeko asmoa zuen, bide berri bat irekiz. Baina Elkanok ere izan zituen bere zalantzak Afrikako itsasbidetik itzultzeko, erregeak portugaldarren lurretatik ez igarotzeko emandako agindua oso argia izan baitzen. Eta gainera, Elkanoren egoera legala nahikoa konplikatu zen atzerritarrei ontzia saldu zielako, eta horrek kezkatu egiten zuen.

Santo Tomas egun batean, abenduaren 21eko egunsentian hain juxtu, abiatzea erabaki zuten. Mundu erdia zeharkatu behar zuten Sevillara iristeko. Inoiz ez zuten entzun lau hilabete baino gehiagoan lurrik ukitu gabe nabigatu zitekeenik. Eguardira arte itxaron behar izan zuten Moluketan geratzea erabaki zuten espediziokideek idatzitako eskutitzak ekarri arte. Ontziak artilleria deskargatuz agurtu ziren. Bertan geratu zirenek atzetik jarraitu zieten txalupan ahal izan zuten bezain urruti, eta azkenean negarrez banatu ziren⁴⁹⁴.

Era horretan, Victoriak garai guztietako nabigazio-balentria ikaragarrienetako bat hasi zuen, Indiar ozeanoaren eta Atlantiar ozeanoaren zeharbidea Cabo Verdera arte, bakardadean eta geldialdirik gabe bost hila-

betetan, eta horri bi hilabete gehiago gehitu behar zaizkio Cabo Verdetik Sevillara. Etenik gabeko borroka izan zen hilabeteetan, zuloak ixten eta ponparekin kanpora botatzen; gizon haien indarrak eta erresistentzia mugara arte eramane ziren.

Zweig-ek honela dio:

“belaontzi xume eta astindu hura aberrira itzultzea, urtetan Lur erdiaren inguruan ibiliz egindako bidaia eta gero, nabigazioko balentria handietako bat da”⁴⁹⁵.

Victoriako bederatzi espediziokide euskaldunetatik, hiru gipuzkoarrak eta sei bizkaitarrak, bi gaixotuta hil ziren ozeano Indiarrean, Lorenzo de Iruña eta Juan de San felices, eta bat ozeano Atlantiarrean, Martin de Insaurrea. Bi Cabo Verden preso hartu zituzten 1522ko uztailan, Pedro de Tolosa eta Pedro de Chindarra, baino beranduago Sevillara heldu ziren. Lauk munduaren inguruko bira amaitu zuten Victorian.

Trinidad naoaren amaiera

Konponketak egin eta gero, Trinidad naoak mendebaldeko haizeak baliatu nahi izan zituen Panamara joateko iparraldeko itsasoetatik. 1522ko apirilaren 6an itsasora-

tu zen ozeano Barea zeharkatzeko. 54 gizon ziren, horietatik hiru euskaldunak.

42 gradu ko latitudera arte igo ziren aldeko haizeak aurkitzeko esperantzarekin. Guztietatik itsasbide egokiena zen, are gehiago, itsasbidea harrigarriki zuzena⁴⁹⁶ zen eta hamarkada batzuk geroago Urdanetak aurkitu zuenaren oso antzekoa. Baina latitude horretara iritsi zirenerako, hogeita hamar gizon gutxiago ziren, gosez eta eskorbutoaren ondorioz hil zirenak⁴⁹⁷; horien artean zegoen Juan de Aguirre bermeotarra, urriaren 5ean hil zena, eta Domingo de Yarza, handik bederatzia egunetara hil zena. Hilabetetan ekaitzak eta zoritxarra jasan eta gero, Moluketara itzultzea erabaki zuten.

Urri amaieran, Antonio de Brito kapitain portugaldarrak preso hartu zituen bizirik iraun zutenak, eta era guztietako nekeak jasanarazi zizkien⁴⁹⁸. 1523ko otsailaren 28an bizirik iraun zuten guztiak Banda irlara bidali ziren bi izan ezik; horietako bat Anton de Basozabal da, Bermeoko bikeztatzaile eta maisua, eta Britok bere zerbitzuak behar zituenenez, Ternaten geratu zen Maestre Antonio arotz genoarrarekin⁴⁹⁹. Berari buruz ditugun azken berriak dira, ondoren desagertutzat jo zen, eta beraz, Trinidad naoko espedizioko euskaldun bakar bat ere ez zen bizirik geratu.

Nao horretan bizirik iraun zutenenartetik, azkenean bost bakarrik itzuli ziren Sevillara 1527an, eta horiek ere munduari bira eman zioten. Haien artean Gonzalo

Gomez de Espinosa, Gines de Mafra eta Leon Pancaldo. Ekaitzek, gaixotasunak eta portugaldarrek emandako tratuak amaitu zuten gainontzekoen bizitzarekin.

Indiako ozeanoaren zeharkaldia

Neguko montzoia baliatuz, Victoria naoa Tidor-etik irten zen abenduaren 21ean, hegoalderantz. Baina urtarrilaren 10ean ekaitzak ezustean harrapatu zituen eta beren bizia arriskuan ikusi zuten; bizirik ateraz gero, Guiako ama birjinara erromesaldian joateko botoa egin zuten guztiek⁵⁰⁰.

Txopako haizea lagun, Mallua irlarantz (egun Moa irla izan daitekeena) nabigatu zuten, eta bertan bota zuten aingura 1522ko urtarrilaren hamaikan. Irla horretan, naoa karenatu zuten hamabost egunez. Victoriari lurrean egin zitzaizkion azken konponketak izan ziren. 1522ko urtarrilaren 25ean, Elkano eta bere gizonak Timor irlara (Indonesia) iritsi ziren, eta bertatik irten ziren otsailaren 13an, ozeano Barean sartuz.

Victoria naoa Timorretik bakarrik atera izanak bazituen zenbait baldintzatzaile Sevillara iristeko aukerak iluntzen zituenak. Hasteko, flota banatzeko hartutako erabakiak babesgabetasun handiagoko egoeran


uzten du, izan ere itsasoan bakarrik dagoen ontzi batek aukera gutxiago ditu ekaitz, harkaitz eta beste arrisku batzuetatik onik ateratzeko. Eta gainera, Victoria, hogeita bederatzi hilabetez nabigatzen ibili eta gero, egoera txarrean zegoen, Elkanok berak dioen bezala *“resolvimos.... partir con una sola nave, estando en tal estado, por causa de la broma que solo Dios lo sabe”*⁵⁰¹.

Azkenik, Tidoren naoak banatu zirenean, bost arotz eta bikeztatzaileetatik Ruxar arotz normandiarra bakarrik ontziratatu zen Victoria naoan. Beste lauak, Juan Garcia bikeztatzailea, Domingo de Yarza eta Maestre Antonio arotzak eta Anton de Basozabal kontramaisu eta bikeztatzailea, Trinidad naoan geratu ziren. Egoera horretan, Ruxar-i zerbait gertatuz gero, eta hala izan zen, Victoria oso egoera zailean gera zitekeen. Ez ditugu erabaki horren arrazoiak ezagutzen, baina deigarria da, bestek beste, Elkano eta Acurio izan zirelako Sevillan Domingo de Yarza eta Anton de Basozabal Concepcion naorako kontratatatu zituztenak. Eta gainera, ikusi dugu hiri horretan Elkano, Acurio eta Yartzak beren ondasunen gaineko ahalordeak eman zizkietela elkarri.

Timor eta Esperantza Oneko lurmuturraren arteko itsasbideak hiru hilabete eta astebete iraun zuen. Elkanok hego-ekialderantz nabigatu zuen 40° hegoaldeko latitudera iritsi arte, munduko nabigazio eremu zailenetako bat. Indiar ozeanoaren itsasbideak hiru ezaugarri nagusi ditu: geldialdirik

gabeko nabigazioa zen, intentsitate handiko haize eta korronteak zituen eta eskorbutoa azaldu zen.

Timor eta Cabo Verde artean igaro ziren bost hilabeteen artean ez zuten lurrik ukitu eta ezin izan zuten elikagai freskoekin hornitu edo ontziak lehorreratu konponketak egiteko. Ozeano Barean ez bezala, Indiar ozeanoan ez dago uharterik, eta Elkanor berak horrela zela egiaztatu ahal izan zuen, hegoaldeko itsasbidetik zeharkatu zuen lehenengo europarra izan baitzen. Lurrera jaistea eragozten dien beste faktore bat da portugaldarrek preso hartuko zituzten beldur zirela, eta horregatik horiek erabili ohi zituzten itsasbideak eta portuak saihestu zituzten. Mozambiketik egoera larria zen arren, botazioa egin eta gero ez lehorreratzeko eta nabigatzen jarraitzea erabaki zuten. Azkenik egiaztatu zuten porturatzeko aukera izan zezaketen uharte eta kostetan ez zegoela lehorreratzeko toki egokirik. Amsterdamen iritsi zirenean, Indiar ozeanoaren erdian,



42. *Irudia- Del Cano lurmuturra*
ozeano Bareko Amsterdam irlan

bertako itsaslabarrek ezinezkoa egin zuten bertan lehorreratzea. Irla horretan dago Del Cano lurmuturra; holandarrek izendatu zuten horrela Getariako itsasgizona bertatik igaro zeneko testigu mutu izan zelako. Geldialdirik gabeko nabigazio horretan beraz, konponketa guztiak itsasoan egin ziren, horrek zituen zailtasun eta ondorio guztiekin.

Indiar ozeano hegoaldeko itsasketa markatu zuen bigarren faktore bat izan zen aurkitu zituzten haize eta korronteak. 40°-ko hego latitudera eta Esperantza Oneko lurmuturrera gerturatu ziren neurrian, zeharkako nahiz aurrez aurreko haizeak eta

aurkako korronteak geroz eta indartsuagoak dira, eta itsasoa zakarragoa. “Berrogei orrolariak”⁵⁰² itsasketa oztopatzen zuten eta Esperantza Oneko lurmuturrera ez zirela inoiz helduko iruditzen zitzaienten, “lurmuturreko sindromea” deitu izan zaio horri.

Indiar ozeanoan beste bidaiari bat agertu zen Victorian: eskorbutoa. Timor-eko elikagai freskoak eman zizkieten bi hilabeteko grazia eta gero, apirilean gaixotasuna agertu zen, eta maiatzean, Esperantza Oneko lurmuturraren parean, lehenengo espediziokideak hiltzen hasi ziren. Indiar ozeanoaren bukaera eta Atlantiar ozeanoaren lehenengo erdialdearen artean, 15 europar eta 7 indigena hil ziren guztira.

Eskorbutoa gaixotasun berria zen Europan, Aurkikuntzen Garaiak ekarritako ondorenetako bat, eta berrehun urte baino gehiago behar izan zituzten sendabidea aurkitzeko⁵⁰³. Espedizioan hiru aldiz agertu zen⁵⁰⁴:

- Izurri erako lehenengo agerraldia ozeano Barearen zeharbidean gertatu zen, eta 19 hildako izan ziren, horietatik 15 Victoria naon, hiru Trinidad naon eta bat Concepcionen; hildakoen artean daude Ochote de Erandio eta Martin Barrena.
- Bigarren agerraldia Victoriaren itzulerako bidaiari gertatu zen, Indiar ozeanoaren eta Atlantikoaren itsas ibilaldian; armadako 15 gizon hil ziren,



43. Irudia- Itsas ibilaldi luze baten ondoren nao bati laguntza eskaintzen eskorbutoa tratatzeko. “El galeon de Manila” erakusketa. Madrilgo Ontzi Museoa

eta horri 10 indigenak gehitu behar zaizkio (zazpi beste iturri batzuen arabera). Hildakoen artean daude Lorenzo de Iruña, Juan de Sanfelices eta Martín de Insaurraga.

- Hirugarrena Trinidad naoareen itzulerako bidaia hutsalean gertatu zen eta 31 hildako izan ziren, horien artean Juan de Aguirre eta Domingo de Yarza. Hirugarren agerraldi horren atzera begirako diagnostikoa autopsia bidez baieztatu zen, itsaso zabalean eskorbutoa zuen gaixo bati egindako lehenengo autopsia ezaguna⁵⁰⁵.

Eskorbutoaren sintomek bat eta hiru hilabete artean behar izaten dituzte agertzeko, baina C bitaminan aberatsak diren elikagaiak hartuz gero, gaixoak oso azkar sendatzen dira. Hemorragiak 24 ordutan desagertzen dira, muskuluetakoa eta hezurretako minak desagertu egiten dira eta hortzoiak bi edo hiru egunetan sendatzen hasten dira. Ubeldu handiak ere hamar eta hamabi egun artean desagertzen dira eta anemia bi eta lau asteren artean sendatzen da⁵⁰⁶.

Martxoaren 23an Victoria naoa Esperantza Oneko lurmuturretik 500 legoa baino gehiagora zegoen artean. Hegoalderantz eginez nao portugaldarren itsasbideetatik urrundu ziren, baina mendealdeko haizeak altxatzen hasi ziren eta horrek itsasketa moteltzen zuen. Apirilaren 1ean lurmuturretik 400 legoatara zeuden⁵⁰⁷ eta aurkako haizea indartsu zebilen. Apirilaren 7an 40°-ko hego

latitudera iritsi ziren eta latitude horietan geratu ziren hilaren 15era arte. Xehetasun horrek garbi erakusten du zenbat urrundu zen Elkano portugaldarrek jarraitzen zuten itsasbidetik. 16tik 21era ekaitz gogor bati egin behar izan zioten aurre. Apirilaren 28an Esperantza Oneko lurmuturretik 175 legoatara zeuden⁵⁰⁸.

Victoria naoko eskifaikideek jasan zutena ez da esatekoa ere. Bero tropikalak ekuatorean zehar nabigatu eta hura gurutzatzean; euria eta hotz handia, Afrikatik gertu hego hemisferioko latitude ertainetara iritsi zirenean. Guztiek ezin izan zuten jasan elikadura txarra, tenperatura gogorak eta gehiegizko lana. Indiar ozeanoaren zeharbidia errazagoa egin zuten udako eta neguko montzoiek hego hemisferioan⁵⁰⁹.


Apirila amaitu eta maiatza hasi zen lurmuturretik 57 legoara nabigatuz. Maiatzaren 3an Agulhas lurmuturretik oso gertu zeuden, Esperantza Oneko lurmuturrera iristeko gutxi geratzen zen. Korronteak oso indartsuak ziren eta haizea aurrez aurrekoa. Maiatzaren 9an iritsi ziren Afrikako kostaldera, egoera ez zen ona. Ontziak ur sarbideak zituen, hotz handia egiten zuen eta, batez ere, elikagaiez kexatzen ziren, arroza baino ez baitzuten jateko, eta ura besterik ez edateko, haragi guztia usteldu egin zen gazitzeko gatzik ez zutelako. Hori dela eta, bereziki gaixo zeudenek, Mozambiken geratzea pentsatu zuten; baina tripulazio gehienak aurrera jarraitzea erabaki zuen⁵¹⁰.

Maiatzaren 13an, Moluketatik irten eta bost hilabetera, Sevillan Concepcion naoan ontziratu zen Lorenzo de Iruña, Soravillako (Andoain) marinel gipuzkoarra, hil egin zen eskorbutoagatik. Lau egunetara gaixotasun berarekin hil zen Juan de Sanfelices de Somorrostro, Victoriako itsasmutila espedizioa hasi zenetik.

Afrikaren hegoaldeko muturrean, hama-bi egun luzetan borrokatu zuten haize eta korronteekin, Infante ibiaren aurrean, behin eta berriz bolinara joanez, oso poliki aurrera eginez⁵¹¹. Pigafettak dio Esperantza Oneko lurmuturra, 34° eta erdiko hego latitudean kokatua, lurrean ezagutzen den lurmuturrik handiena eta arriskutsuena dela⁵¹².

Maiatzaren 16an, lurmuturraren parean zeudela, aurremasta eta belazurruna hautsi zien ekaitz gogorrari egin behar izan zioten aurre. Lurmuturrean aurrera egiteko Victoria ontziak ekaitzaren aurka egindako borroka deskribatzen du Artechek:

“La tormenta anuncia su amenaza el día 16 (de mayo). Los navegantes aferran las velas apresuradamente. Todas las escotillas son herméticamente cerradas. Una fría lividez invade el ámbito. La nao es lanzada de una a otra ola; tan pronto en lo alto de una montaña de espuma como en lo hondo de un abismo [...]. Una y otra vez la Victoria desaparece, pero emerge siempre con la quilla casi al aire, vertiendo a cada banda ríos de agua.... De pronto, un chasquido siniestro hacía la proa. El huracán ha roto el mástil y verga del trinquete”⁵¹³.



44. Irudia- Bi espedizionario euskaldun hil ziren Indiar ozeanoan eta bat Atlantiarrean

Ordezko aurremasta bat zuten zorionez eta behin-behinean erabili ahal izan zuten. Azkenik, maiatzaren 18ko gauean eguraldiak zertxobait hobera egin zuen eta mendealdeko korrontea intentsitatea galtzen hasi zen. Hilaren 19an, azkenean, lurmuturra igarotzea lortu zuten. Maiatzaren 22an, Albok une gogoangarri hura deskribatzen du bere egunerokoan, ohikoa duen lakonikotasunarekin⁵¹⁴. Pigafettak aldiz dramatismo handiagoarekin deskribatzen du:

“finalmente, con la ayuda de Dios, doblamos el terrible cabo, pero tuvimos que aproximarnos a él una distancia de cinco leguas, sin lo cual nunca lo hubiéramos pasado”⁵¹⁵.

Kronikagile bizantziarrak bi orri eskas eskaini zizkion Elkanoren balentria handiari. Baina Elkanok bakar-bakarrik nabigatu zuen bost hilabetez, geldialdirik egin gabe, eta beste bi hilabete eman zituen Cabo Verdetik Sanlucar-era joaten; horrek ia bikoiztu egiten du Magallanesek ozeano Barea zeharkatzeko behar izan zituen hiru hilabeteak.

Afrikako kostalde Atlantikoan gora

Zalantzarik gabe Atlantikoan sartzeak, ezagutzen zuten ozeanoa izanda, indar berriak eman zizkien espediziokideei. Baina

Esperantza Oneko lurmuturraren eta Cabo Verdeko uhartearen artean igaro zituzten zazpi asteak zailtasun berriak ekarri zizkion espedizioari. Lehen esan dugu Concepción naoari su eman ziotela hiru naoak eramateko nahikoa gizon ez zituztelako -110 gizon ziren hiru naoentzat, 36 eskifaidike ontziko-, eta Victorian ere eskifaikide kopurua jaisten ari zen pixkanaka eskorbutoa eta beste gaixotasun batzuegatik. Timor-etik 47 espediziokide europar irten ziren, eta Esperantza Oneko lurmuturrean berrogei baino ez ziren. Cabo Verdera iristean, 35 bakarrik geratzen ziren, naoa eramateko gutxiegi ziren, eta gainera, bakarren bat gaixo zegoen.

Elkanok labur kontatzen ditu bizitako une latzak, *“en cinco meses sin comer más que trigo y arroz y bebiendo solo agua, no tocamos en tierra alguna”⁵¹⁶*. Arroza ez zen Europako itsasgizonen plater gustukoena, baina ekialdeko herri askoren oinarritzko elikagaia zen eta ez zuten goserik pasatzen hargatik; ura berriz, izaki zibilizatu gehienok egunero hartzen dugun edaria izan arren, eta erabat beharrezkoa gainera, marinelek ardoa edaten zuten -besteak beste ura baino askoz hobeto mantentzen zelako upeletan, usteldu gabe-, eta ardorik ez zegoenean, bazirudien ez zegoela edateko beste ezer⁵¹⁷.

Elkanok dio goseak hil zirela (eta eskorbutoarenekin eta beste gaixotasun batzuen ondorioz) 22 gizon (hamabost europar eta zazpi indigena)⁵¹⁸. 1522ko ekainaren leian, Esperantza Oneko lurmuturra utzi

eta egun gutxitara, Sevillan Concepcion naoan ontziratu zen Martin de Insaurrea, Bermeoko itsasmutila, hil egin zen eskorbutoarekin; hiru hilabete baino ez zitzaizkion geratzen Sanlucar-era iritsi eta munduari bira emateko.

Magallanesez ez bezala, Elkanok bere gizonekin partekatu ohi zituen erabakiak. Hala egin zuen Mozambiken lehorreratu edo ez erabakitzeko garaian, edo lurmuturrean bizirik irauteko zama uztea komeni zen edo ez erabakitzean. Bietan botoa ezezkoa izan zen⁵¹⁹. Baina orain egoera okerragoa zen, naoan ur asko sartzen zen, marinela gutxi ziren eta gaixo zeuden, horregatik esklabu beltzak erosi nahi izan zituzten lagun ziezaieten⁵²⁰. Uztailaren batean lurralde gertukoenetik zazpi legoataraz zeuden. Beste behin, Elkanok tripulazioari galdetu zion Cabo Verden ainguratu edo ez, edo lehorrean egin. Boto gehienak Cabo Verdera joatearen aldekoak izan ziren⁵²¹.

Uztailaren 9an, bost hilabetez geldialdirik egin gabe nabigatu eta gero, Victoriak Ribeira Granderen (egun Cidade Vella) aurrean aingura bota zuen; beren eguneroen arabera asteazkena izan arren, portugaldarrek osteguna zela esan zieten, egun bat irabazi zuten beraz. Lehenengo aldiz jakin zuten mendebaldeantze joanez lurrari bira osoa ematen zaionean, hori gertatzen zela⁵²².

Bitan txalupa lurrera joan eta arroza ekarri zuten. Baina uztailaren 14an por-

tugaldarrak konturatu ziren Victoria ez zetorrela Amerikatik, esan zieten bezala, Moluketatik baizik, eta orduan preso hartu zituzten lehorreratutako hamahiru eskifaikideak. Eta gainera, lehorreratzeko erabili zuten txalupa txikia galdu zuten. Egoera horren aurrean, Elkano berehala irten zen hegoalderantz, bere atzetik irten ziren lau ontzi portugaldarrak harrapa ez zezaten.

Hamahiru eskifaikideak galtzea, horien artean arotz bakarra, eta baita txalupa txikia ere, kolpe bat gehiago izan zen espediziokideentzat. Hogeita hamabost eskifaikide gutxi baziren itsasontzia eta ura ateratzeko ponpa gobernatzeko, orain hogeita bi baino ez ziren. Ur sarbideak kanpotik konpontzen zituzten txalupa erabiliz, ezin zirelako leho-



45. Irudia- Cabo Verdetik Sanlucar-era



46. Irudia- Victoria San Vicente lurmuturrean. Guillermo González Aledo-ren lana. Ontzi museoa, Madril.

rreratu, baina txaluparik gabe aukera hori desagertu egin zen. Ura kanpora ateratzeko ponpa bakarrik geratzen zitzaien. Egoera nabarmen okertu zen.

Hamahiru presoan artean zeuden Pedro de Tolosa despentsaria eta Pedro de

Chindarza, morroi bermeotarra. Handik Lisboako kartzelara eramán zituzten eta bertatik gutun bat bidali zuten Sevillara, urriaren 10ean iritsi zena; gutunak preso zeudela zioen. Gutuna eramateagatik dukat bat (375 marb.) ordaindu zela jasota dago⁵²³. Erregeak egindako kudeaketei eskerrak

Sevillara itzultzea lortu zuten bost hilabete geroago⁵²⁴. 1523ko apirilaren 23an hiri horretan zeuden, Pedro de Tolosak Simon de Burgosen alde deklaratu baizuen Cabo Verden espainiarrak preso hartu zituztenean hark ez zuela zerikusirik izan ziurtatzeko⁵²⁵.

22 eskifaikideekin hiru txandak bete behar zituzten, oihalak jaso eta bildu, ur sarbideak ahal bezala konpondu, gabietara igo eta ura atera ponparekin. Victoriak 29 hilabete zeramatzan nabigatzen, hondoratu egiten zen eta beharrezkoa zen gau eta egun ponpak erabiltzea. Ez zegoen denerako jenderik.

Haize aliseoak zirela eta, ezin izan zuten Cabo Verdetik San Vicente lurmuturrera arte zuzenean joan, eta ondorioz, Azore uharteetara desbideratu behar izan zuten aldeko haizeak aurkitzeko. Cabo Verde eta Sanlucar artean igaro ziren ia bi hilabeteak bukaezinak izan ziren eta sufrimendu handi-koak. Ahalegin gorenaren garaia zen. Beste lau gizon hil ziren eskorbutoarekin. Elkanok modu dramatikoan kontatzen du egoera:

*“y así, con grandísimo trabajo de la bomba, bajo la sentina, que de día y de noche no hacíamos otra cosa que echar fuera el agua, estando tan extenuados como ningún hombre lo ha estado”*⁵²⁶.

Irailaren 4ean, azkenean, San Vicente lurmuturra ikusi zuten.

Etorrera

1522ko irailaren 6an, Victoria Sanlucar-era iritsi zen, hiru urtetan 14.460 legoa (80.000 km. inguru) baino gehiago egin eta gero, ia bi bira lurrari. Hamazortzi gizonek iraun zuten bizirik, eta horietatik lau euskaldunak ziren: Juan Sebastin Elkano, Juan de Acurio, Juan de Arratia eta Juan de Zubileta, gipuzkoar bat eta hiru bizkaitar.

Argitalpenaren hasieran esan dugun bezala, naoa iritsi bezain pronto jakinarazi zitzaion Sevillako Kontratazio Etxeari, eta Domingo de Ochandiano diruzaina egin zen egoeraren kargu.



47. Irudia- Espedizionarioen lehorreratzea Sevillan. Elias Salaverriaren lana, Gipuzkoako Foru Aldundikoa



48. Irudia- Juan Sebastian Elkanok kapitainaren gela
Victoria naoaren erreplikari

Kontrataturako gizonen laguntzarekin Victoriak Guadalquivir ibaian gora egin zuen Sevillara arte, eta 1522ko irailaren 8an iritsi zen, abiatu zenetik ia hiru urtera. Agindutakoa betetzeko garaia zen, eta horregatik joan ziren Victoriako Andra Mariaren elizara, Trianan, eta baita Antiguako Andra Mariaren aurrera ere, katedralean. Fernandez de Oviedok horrela kontatzen du: *“en camisa y descalzos, y con sendas hachas en las manos, fueron a dar gracias a Dios a la Iglesia Mayor, porque Nuestro Señor los avia traydo en salvamento hasta aquel punto”*⁵²⁷.

Stefan Zweig eleberrigileak eszena deskribatzen du: *“hamazortzi gizon ontzitik atera ziren, estropezuka, belauak tolesten zitzaizkiela, eta musu eman zioten sorterriko lurrari, eskuzabala eta sendoa ...”*⁵²⁸.

Martir de Angleria kronikagileak Victoriaren egoera penagarria deskribatzen du *“en aquella nave, con más agujeros que una criba llena de ellos, los dieciocho que trajo....”*⁵²⁹.

Iltzea ontzitik ateratzen hasi ziren, eta lan horretan bi euskaldun aritu ziren, Juan Vizcaino eta Domingo de Ibarrola. Lehenengoak soldata jaso zuen bost eguneko lanagatik, naoa ekartzen laguntzeagatik eta iltzea ontzitik ateratzegatik, guztira zazpi erreal eta erdi (255 marabedi). Domingo de Ibarrola marineleri 544 marabedi ordaindu zitzaizkion Victoriaren egindako lanagatik irailaren 7az geroztik, eta 1.787 marabedi naoko jendearen mantenu-gastuei zegozkienak (ogia, ardoa, haragia eta fruta); eta baita ere naoan hainbat lanetan zebiltzanen mantenuari zegokiona, besteak beste naoko sototik iltzea ateratzen ari zirenak, zakueta sartu eta pisatzen ari zirenak, harik eta sokateria eta artilleria lurrera eramaten amaitu zuten arte⁵³⁰.

Irailaren 10ean, asteazkena, hasi ziren pisatzen Victoriatik atera ziren 381 iltze-zakuak. Iltzearen pisu garbia (zaku eta soken pisua kenduta) 524 kintal (24.104 kg.) izan ziren⁵³¹. Beste espezie batzuen kaxak, zakuak eta zakutxoak ere deskargatu ziren, hala nola kanela, mazisa eta intxaur muskatua; eskifaikide batzuk ere beren kaxa eta zaku propioak zekartzaten, besteak beste Juan Sebastian Elkanok, Juan de Acuriok, Juan de Zubiletak eta Juan de Arratiak. Etxeko ofizialak arduratu ziren artilleriaz, munizioaz eta ontziaren hondakinez. Ochandiano arduratu zen Victoriako iltze zamaz, 530 kintal garbi (24.380 kg). Eta gainera, Juan Sebastian kapitainari hiru

zaku utzi zitzaizkion zeramatzan zenbait salgaientzat⁵³².

Irailaren 12an Ochandianok oihalak, tresnak, armak, artilleria eta naoko beste gai batzuk jaso zituen⁵³³. Egun horretan jaso ziren haize oihalen zerrendan, Victoria naotik geratzen zena kontatu zen, egoera penagarrian zegoen: bi txanberga (oihalaren handiagotzea) handi pusketan; sokazko bi aurrebela, bat zaharra eta bestea akastuna; gibel mastako txanberga zahar bat; bi gibel masta zahar, aurrebela akastunaren oihal handi bat; bi oihal handi zaharkitu; txanberga handi akastun bat; zibadera bat (brankako oihala) eta txanberga zahar baten apaindura⁵³⁴.

Elkanoren gutuna

Irailaren 6an Sanlucar-era iritsi zenean, Elkanok Victoria naoan idatzi zion gutuna erregeari⁵³⁵. Kontakizun laburra da, 700 hitzekoa, eta ez du bere buruaz hitz egiten, askok bizia galdu zuten eginkizun kolektibo batez ari da, eta hau kontatzen du⁵³⁶:

- Espedizioaren helburua bete dutela: espezieak, bakea eta uharte horietako errege eta jaun guztien adiskidetasuna ekartzea, beren sinadurekin.
- Jasan duten sufrimendua, “inoiz gizonak ezagutu duen akidura handiena ezagutuz”.

- Espedizioko kapitaina denez, bere pentsamendua Cabo Verden preso hartutako gizonentzat da: “*por tanto suplico a vuestra alta majestad que provea con el rey de Portugal la libertad de aquellos trece hombres, que tanto tiempo le han servido*”.

Eta garrantzitsuena uzten du bukaerarako:

“y más sabrá VM que aquello que más debemos estimar y tener es que hemos descubierto y dado la vuelta a toda la redondez del mundo, que yendo por el occidente hayamos regresado por oriente”.

Eta era horretan laburbiltzen du Victoriaren balentria errepikaezin hura, mundu erditik nabigatuz, geldialdirik gabeko itsas ibilaldian. Gizonek egindako ahalegina ez zen gutxi izan, baina ez zen gutxiago izan Juan Sebastian Elkano izeneko kapitain euskaldun bikain haren lidergoa, erabakitasuna eta gizonen nahiz itsasoaren ezagutza.



49. irudia- Victorian munduari bira eman zioten 18 gizonen oroigarri plaka Getarian

8. Kapitulu

ITZULERAREN ONDOREN

Acurio, Zubileta, Arratia, Tolosa, Chindarza eta Elkano


Erregeak Valladoliden hartu zituen Juan de Acurio, Juan de Zubileta eta Juan de Arratia, Elkanorekin egon eta gutxira. Victoria iritsi eta gero, Molukak zein herrialderenak ziren eztabaidatzen jarraitzen zuten Portugalak eta Espainiak. 1524ean Badajoz-Elvas Batzarra egin zen bi erreinuen artean gai horri irtenbidea emateko. Batzar horretan munduari bira eman zioten sei euskaldunetatik bostek parte hartu zuten, horietako lauk Victoria naoarekin eta bi beranduago iritsi zirenak. 1524ko maiatzaren 23ko deklarazioetan ageri ez den bakarrak Pedro de Chindarza morroi Bermeotarra da⁵³⁷.

Bi herrialdeetako adituek zenbait bilera egin eta gero, ez zuten akordiorik lortu.

1529an, Carlos I.ak Moluken gainean zituen ustezko eskubideak saldu zizkion Portugalgo erregeari 350.000 dukaten truke (131 milioi marabedi baino gehiago). Gaur egun badakigu Tordesillas-ko itunaren arabera, Molukak portugaldarrenak zirela.

Bizirik iraun zuten bost euskaldunetatik, ziurrenik Juan de Arratia izan zen, 1525ean, Moluketara egindako bigarren bidaian Elkanorekin ontziratu zen bakarra, San Lesmes karabelako marinel gisa⁵³⁸.

Erregearekin izandako elkarriketa eta gero, Elkanok hiru mesede garrantzitsu lortu zituen: urteko bostehun dukateko⁵³⁹ pentsioa bizi osorako (ez zuen inoiz kobratu), barkamena Saboiako merkatariei⁵⁴⁰ bere naoa saldu izanagatik, eta bi gizon armatu bere babeserako⁵⁴¹. Leguizamorekin hitz egin eta Badajoz-Elvaseko batzarrean deklaratu eta gero, Loaisaren espedizioan ontziratu zen; espedizioa Coruñatik abiatu zen 1525eko uztailaren 25ean.



50. *irudia- Lekukoen sinadurak, Juan Sebastian Elkanoren testamentuan*

Victoria naoaren amaiera

Muelas deituriko kaira iritsi eta gero, Victoria naoa Guadalquivirren ainguratua egon zen hilabete batzuetan, Diego Diazek, Cristobal de Haroren faktorea zen aldetik eta erregearen baimenarekin, enkantean jarri zuen arte, 1523ko otsailaren 16an, Sevillara iritsi eta bost hilabetera. Balizko erosle bakarra aurkeztu zen, Esteban Centurion genoarra, eta 150 dukat eskaini zituen ontziagatik. Bi egun geroago naoaren salmenta iragarri zen berriro, eta hiru erosle agertu ziren, Juan de Palma, Juan Cardenas eta Centurion, bere eskaintza 220 dukatera igo zuena.

Koroa ez zegoen ados eskainitako prezioarekin eta berriro ere enkantean jarri zuen; Centurion 250 dukat eskaintzera iritsi zen. Hilaren 26an itxi zen eragiketa eta, azkenean, genoarrak lortu zuen naoa 285 dukaten truke⁵⁴². Bi urte geroago, Centurion hil zenean, bere alaba Mariaren eskuetan geratu zen, artean adin txikikoa. Naoa Santo Domingora bidaia egiteko prestatu zen⁵⁴³. Santo Domingora egin zuen bigarren bidaian, itzuleran hondoratu egin zen eta eskifaikide guztiak hil ziren⁵⁴⁴.

Elkanoren heriotza

Victoria Sevillara iritsi eta lau urtera Elkanok ozeano Barearen erdian zegoen berriro. Espezien lurraldera Loaysak gidatutako espedizio berria erabateko porrota izan zen. Abiatu ziren zazpi ontzietatik bat bakarrik geratu zen. Elkanok bazekien eskorbutoarekin hiltzen ari zela. Testamentua idatzi zuen, bere izaera ezagutzeko interes handiko dokumentua. Azkenean, 1526ko abuztuaren 6an hil zen, horrela baieztatzen dute Elkanoren morroi Urdanetak⁵⁴⁵, begizko presentziala izan zena, eta beste autore batzuk⁵⁴⁶, nolanahi ere abuztuaren 4an hil zela ere esan izan da⁵⁴⁷.

Juan Sebastian Elkanoren testamentua⁵⁴⁸

Elkanoren testamentua balio handiko dokumentua da; ozeano Barean idatzia izan zen 1526ko uztailaren 26an eta Indietako Kontseiluko lehendakariak ireki zuen Sevillara iritsi zenean, idatzia izan eta hamar urtera⁵⁴⁹. Nuestra Señora de la Victoria naoan idatzia izan zen, baina ez zen munduari bira eman zion naoa, izen bereko beste bat bai-zik, eta “ekinozioko lerrotik gradu bat gora” aurkitzen zen.

Lekuko gisa sinatu zuten Martin Garcia de Carquizanok, Andres de Gorostiagak, Hernando de Guevarak, Andres de Urdanetak, Juanes de Zabalak, Martin de Uriartek eta Andres de Alechek. Guztiak euskaldunak ziren, eta horien artean getariar bat: Andres de Gorostiaga.

Testamentuaren hasieran Elkanok bere burua kapitain eta getariar gisa aurkezten du⁵⁵⁰. Idatzi zituen orrietan bere borondateak zehaztasunez aipatzen joan zen. Lehendabizi Getariako San Salvador elizan ospatu beharreko urtemuga eta hileta elizkizunak aipatzen ditu, bertan baitaude lurperatuta bere aita eta arbasoak.

Dohaintzak egin zizkien hainbat eliza eta ermitei, bereziki Gipuzkoakoak: 40 dukat (15.000 marb.) Itziargo Andra Mariari, 12 dukat (4.500 marb.) Getariako San Martin Elizari, 10 dukat (3.750 marb.) Sasiolako monasterioari (Deba), 6 dukat (2.250 marb.) Getariako Salvatore parroki-elizari, eta dukat bat (375 marb.) San Prudentzio, Magdalena, San Anton, San Pedro eta San Gregorioko elizei, guztiak Getariakoak; eta dukat bat (375 marb.) Arantzazuko Andra Mariari, Irantzuko Andra Mariari, Hondarribiako Guadalupeko Andra Mariari, Aizarnako Santa Engraziari eta Zarauzko San Pelaiori⁵⁵¹.

Gerora errealitatean zer gertatuko den aurreikusiz, Elkanok idatzita utzi zuen legatu guztiak erregeak zor zizkion diruekin or-

daindu behar zirela, eta ez zela horretarako beste ondasunik erabiliko. Era horretan, erregeak zor ziona ordaindu ezean, dohaintzarik ez zen egingo.

Bere seme Domingo izendatu zuen oinordeko bakar, eta bere ama (Juan Sebastianena) gozamendun izendatu zuen. Bere oinordekoa hilez gero (gertatu zen moduan) guztia bere ama Catalina del Puertorentzat izango zela adierazi zuen.

Bere amaz gain, beste hiru emakume eta bere alaba ere onuradunak dira. Lehenengoa Mari Hernandez de Hernialde da, bere seme Domingoren ama, eta urrezko ehun dukat (37.500 marabedi) utzi zizkion. Valladoliden Maria de Vidaurretarekin izan zuen alabak lau urte betetzean Getariara eramateko eskatu zuen, eta ezkontzeko ordua iristen zitzaionean urrezko 400 dukat (150.000 marabedi) emateko. Maria de Vidaurretari ere 40 dukat (15.000 marb.) utzi zizkion alaba hazteko eta barrena lasaitzeko. Azkenik, bere lehengusu Isabel del Puertori lau dukateko (1.500 marb.) zaia utzi zion.

Elkano hil eta hamar urtera, Elkanoren ama Catalina del Puertok eskatuta, informazioa biltzen hasi ziren, baina lekukoek ia ez zuten bi seme-alaben berririk, bata oinordeko unibertsala izendatua izan zena eta bestea berriz, ezkonsari baten eta 400 dukateko erresen onuraduna. Hori dela eta, bi haurrak heriotza goiztiarra izan zutela ondorioztatu da⁵⁵².

Bere anai, iloba eta adiskideek ere jaso zituzten ondareak, dirua, jantziak, elikagaiak eta beste ondasun batzuk.

1533an, Elkano hil eta zazpi urtera, bere ama Catalina del Puertok auzitan jarraitzen zuen Errege-ogasunarekin bere semeari zor zitzaizkion soldatengatik eta kobratu ez zituen kargu-sariengatik, kapitain graduari zegokiona, eta baita urteko 500 dukateko pentsioagatik ere. Eskaera Catalina andrea-ren aldekoa izan zen bi alditan, baina ez zitzaion ezer ordaindu, ez batean eta ezta bestean ere. Ziurrenik handik gutxira hil zen. 1567an beste senide batzuk diru haiek eskatzen jarraitzen zuten.

Rodrigo Sanchez de Gainza Elkanoren iloba eta testamentu-betearazleetakoa bat zen, eta 1587an Felipe II.aren garaian, ahalordea eman zion Francisco Gainzari, gortean bizi zena, enperadoreari emandako zerbitzuengatik bere osabari zor zitzaion guztia kobratzeko⁵⁵³.

9. Kapitulua

JUAN SEBASTIAN
ELKANO

Balentriaren oihartzunak itzaltzean, hausnarketa egiteko garaia da, agian pertsonalagoa, Elkanoren irudiari eta lehenengo zirkumnabigazioari egin zion ekarpenari buruz.

Elkanok bere burua kapitain eta getariar gisa ikusten du, eta horrela aurkezten da bere testamentuan. Juan Sebastian del Cano, Getariarra, jar zezakeen besterik gabe, baina ez zuen egin. Horrekin bi gauza nabarmentzen ditu: munduari bira eman zion naoko kapitaina zela eta Getariako bizilaguna zela, ez Getarian sortu edo jaioa bakarrik; badirudi garbi utzi nahi duela bizi osoa nabigatzen igaro zuen arren, bere jaioterrian egon zela beti.

Elkanoren ezaugarri garrantzitsuenetako bat ekintzailea izatea da; gaztea zela, beste erabaki askoren artean, gerrara joan zen mentura bila, Oran eta Aljer hartu zituztenean bera bertan zen, baita Italiako gerran

ere; merkatarri saboiar batzuei mailegua eskatu zien 200 upeleko naoa prestatzeko, munduari bira eman zion Victoria naoaren bikoitza baino gehiago, eta, Gaztelako administrazioak ez zionez ordaindu, naoa mailegu-emaileei eman zien, eta hori saldukeria-delitua zen. Oso gaztetatik erakutsi zuen besteengandik nabarmentzen zuten jakin-nahi eta grina.

Elkanok ez zuen amore ematen zailtasunen aurrean. Ezer gabe geratu eta bere ontzia mailegu-emaileei entregatu eta gero, Sevallara joan zen berriro hasteko asmoarekin. Bere lagun, senide eta ezagunekin harremanetan jarri zen eta Concepcion naoko maisua izatea lortu zuen, Magallanesen armadako naoetako bateko bigarren burua.

Zailtasunei aurre egiteko gaitasun hori erakusten digu baita ere Magallanesen aurkako San Juliango Matxinadan parte-hartze nabarmena izan eta gero, heriotzara zigortu zutenean beste berrogei espedizionarioekin batera, nahiz eta gero barkamena jaso eta marinel lanetan jarri zuten. Kateatua egon zen lanik gogorrenak eginez Patagoniako San Julianen egon ziren neguko bost hilabetetartean. Ia ziurtasun osoz kateari lotuta jarraitu zuen lanik gogorrenak eginez itsasartean eta ozeano Barearen zeharbidaian, Magallanes hil zen arte. Une horretan berreskuratu zuen maisu kargua, eta bost hilabete beranduago, 1521eko irailean, Victoria naoko kapitain izendatu zuten Gines de Mafrak dioen bezala eta gorago esan dugun moduan.



51. Irudia- Getaria herriaren ikuspegia

Elkanoren buruak argi pentsatzen zuen, gizon zuhur eta ordenatua zen. Bere testamentuan, adibidez, gai izan zen gerta zitekeena aurreikusteko, eta horregatik idatzita utzi zuen elizei egiten zizkien dohaintzak erregeak zor zion dirutik egin behar zirela, eta hori horrela ez zen bitartean, ez zela izango konpromiso horiek betetzeko obligaziorik. Era berean, bere ondasunak oinordekoen artean banatzeko garaian ere oso zehatza izan zela ikus daiteke testamentuan.



52. Irudia- Elkanori buruzko margolana, Ignacio Zuloagak egin, Gipuzkoako Foru Aldundikoa

Ordena hori garbi geratzen da, beste behin, Magallanes hil eta Carvallo kargutik kentzean, Elkano kapitain, diruzain eta salgai guztien kontrolatzaile izendatu baizuten, horretarako zituen gaitasun handiengatik. Harrez geroztik, berak deklaratu zuen moduan, irletako biztanleekin egindako trukeak kontulari eta diruzainaren liburuan idatzi ziren, eta berak dioenez, horrelakorik ez zen egiten ez Magallanesekin ezta Carvallorekin ere.

Baina Elkanoren ezaugarri bat nabarmendu beharko bagenu, hori lidergoa izango litzateke. Kapitain izendatu zutenean, egin zuen lehenengo gauzetako bat izan zen tripulazioari norabidearen berri ematea, argi esatea nora zihoazen ta zein zen espedizioaren helburua. Juan Sebastian berak dioen moduan Magallanes eta Carvallok ez zuten horren berri eman, eta hori izan zen, hain zuzen, Magallanesen aurkako matxinadaren arrazoietako bat.

Erabaki garrantzitsuak hartu behar zirenean bere gizonekin hitz egiten zuen kapitaina zen, eta horien iritzia zuzena zela uste zuenean, kontuan hartzen zuen. Bitan eskatu zien iritzia tripulazioko kideei: lehenengoan, Indiar ozeanoaren zeharkaldian, egoera geroz eta dramatikoagoa bihurtzen ari zen eskorbutoagatik, ontziko zuloengatik, hotza eta elikagai eskasiagatik, eta horregatik Mozambiken lurreratzea pentsatzen ari ziren. Proposamenaren inguruko botazioa egin zenean gehiengoak ez lurreratzea erabaki

zuen, eta Elkanok onartu egin zuen. Gauza bera gertatu zen handik gutxira Cabo Verden, baina orduan egoera benetan etsigarria zen eta gehiengoaren botoekin lurreratzea erabaki zen; orduan ere Elkanok erabakia onartu zuen. Elkanoren jarrerak ez du zerikusirik Magallanesen lidergo zakarrarekin, askoz zurrun eta autoritarioagoa.

Lidergo hori bereziki nabarmena egiten da Sanlucar-era iristean, bere eskifaikideekiko kezka agertu zuenean Carlos I.a erregeari idatzitako gutunean; bertan erregeari eskatzen dio Portugalgo erregeari idazteko Cabo Verden preso hartu zituzten hamahiru gizonak aske utzi zitzaizkien.

Laburbilduz, Elkanok lider moderno baten ezaugarri asko ditu: ekimena, grina, mente ordenatua, antolatze gaitasuna, ez du amore ematen zailtasunen aurrean, helburu garbiak jartzen ditu, bere lankideak inplikatzeko ditu eta entzun egiten die erabakiak hartu behar direnean, eta beraiekiko kezka azaltzen du.

Elkano eta Magallanes

Munduari bira eman zion espedizioan Elkanori eta Magallanesi dagozkien merezimenduen inguruko eztabaida itsas ibilaldia bera bezain zaharra da. Era guztietako iritziak daude eta hainbat autorek “Magallanesen

munduko birari” buruz hitz egiten dute, Elkano bera eta hark lortutako balentria gutxietsiz.

Magallanesek inoiz ez zuen pentsatu munduari bira ematea. Bere helburua Moluketara iristea zen, espezieak lortzea, berarentzat eta bere oinordekoentzat noblezia tituluak lortzea eta bi uharte gobernatzea. Aberastasunak eta ospea ez ziren lortzen munduari bira emanez, espezien irletan baizik. Are gehiago, Gaztelako administrazioak Magallanesi bidaiarako emandako kapitulazio eta jarraibideetan, ez beste inongo dokumentuetan, ez da zirkumnabigazioa aipatzen, ez helburu bezala ezta aukera bezala ere; aitzitik, Magallanesi argi jakinarazi zitzaion ez zuela Portugalgo eremuan sartu behar.

Egia da Elkanoren asmoa ere ez zela munduari bira ematea. Baina agintea hartu zuenean, egoera oso zaila zen eta irtenbide bat bilatu behar zuen. Garbi zuen espedizioaren helburua Moluketara iristea zela, naoak espeziekin betetzea, itzultzeko bidaia hastea eta itzulerako bidea asmatzea Sevillara iristeko.

Baina Colonen burutazioa ere ez zen Amerika aurkitzea. Bere helburua Moluketako aberastasunetara iristea zen, baina Amerikarekin “behaztopa” egin zuen eta inork ez dio kontinente hura aurkitu izanaren meritua kentzen.

Magallanes nabarmendu eta Elkanori garrantzia kendu eta bigarren mailako pertsonaia bihurtzeko jarrera horren atzean

hainbat arrazoi egon daitezke. Lehenengoa Magallanes bera izan daiteke, gizon ausarta, harroa, anbizio handikoa, antolatzaile ona eta estrategia bikaina. Moluketako armadan parte hartu aurreko urteetan Malacara iritsi zen, egungo Malaysian, eta hainbat ekintza belikotan parte hartu zuen, bere ospea handitu zutenak. Eta amaiera gisa, Magallanes bere helburua lortu nahian hil zen, bere ospea are gehiago handituz, heroi bihurtzeraino. Horregatik guztiagatik oso pertsonaia erakargarria bihurtu zen historialarientzat eta, bereziki, eleberrigileentzat. Eta gainera, espedizioa prestatzen zen bitartean izan ziren gatazken nahiz itsas ibilaldian zehar izan zirenen historia oso ondo dokumentatua dago, eta horrek Magallanes ardatz duen kontakizuna eraikitzea errazten du.

Elkano berriz gizon zuzena zen, Magallanesekin alderatuta, beste era bateko izaera eta lidergoa zituen. Agintzeko gaitasuna zuen, bere gizonak aitortua, praktikoa, eraginkorra eta saiataua zen. Helburuak proposatu eta horiek aurrera eramateko ahal zuen guztia egiten zuen. Eta munduari bira ematea lortu zuen. Ez zuen zerikusirik Magallanesekin, haren izaeran aurkitzen baitzen, neurri handi batean, bere porrotaren erroa. Artechek dioen moduan “Magallanesen etsairik handiena Magallanes bera zen”⁵⁵⁴.

Magallanes ezagunagoa izaten lagundu duen beste arrazoietakoa bat da Argentina eta Txileko Patagoniaren hegoaldera iristen lehenengoa izan zela, eta baita Filipina

eta Marihana uharteetara ere. Herrialde horiek guztiek Magallanesi aitortzen diote beren aurkikuntza, eta herrialde modernoak bihurtzeko jatorrian oso elementu garrantzitsua izan zela nabarmentzen dute. Txilen Magallanes izeneko eskualde bat dago, eta hego hemisferioko nebulosa bati ere bere izena jarri zioten.

Itzulerako bidaian Elkanok hondamenezko itsasoetan nabigatu zuen, eta bere ibilaldian zenbait uharte baino ez zituen aurkitu; horien artean Indiar ozeanoko uharte txiki bat, holandarrek berriro aurkitu zutena XVIII. mendean eta Amsterdam izenarekin bataiatu zutena, baina bere benetako aurkitzailearen omenez, uhartearen lurmuturretako bati del Cano lurmuturra jarri zioten.

Elkanoren aldean Magallanesen irudia handitzen duen beste faktore bat bada: Pigafetta. Kronikagile italiarrak asko miresten zuen kapitain portugaldarra, eta Elkanori ez zion barkatu Magallanesen aurkako maxinadan parte hartu izana; Elkanoren etsai bihurtuta behin bakarrik ere ez zuen aipatu bere kontakizunean. Espedizioari buruzko kronika garrantzitsuenean ageri ez denez, badirudi Elkano ez zela inoiz espedizio hartan izan. Horrek eragin erabakiorra izan zuen ondorengo egileetan.

Baina egunaren bukaeran, Elkanoren zein Magallanesen aldekoek ezin dute jarraitu baten eta bestearen meritua aurrez aurre jartzen. Bizitan ondo konpondu ez arren, Magallanes gabe Elkanok ez zion

munduari bira emango; eta Elkano gabe Magallanes historia liburuetako orrialdearen beheko aldeko oharra baino ez litzateke izango. Eta horregatik meritua biena da eta partekatu egin behar da. Magallanes ameslaria izan zen: espedizioa abian jarri zuen, Atlantikoa eta ozeano Barea elkartzen zituen lurmuturra aurkitu zuen, Ozeano Bare ezin zabalagoa zeharkatu zuen eta Filipinak aurkitu zituen. Elkanoren merezimendua da espedizioa bideratu izana une larri batean, Moluketara iritsiz eta, horrenbestez, espedizioaren helburu nagusia erdietsiz. Horrez gain, itzulerako bide egokia asmatu zuen eta historiako itsas balentria handienetakoa egin zuen Indiar ozeanoa eta Atlantikoa zeharkatzean, oso baldintza gogorretan eta sufrikario ikaragarriarekin; baina, batez ere, bere merezimendua da itzuli izana.

Elkanoren ekarpena

Victoria naoa Sevillara iritsi zenean, Elkanok bazekien munduari bira eman ziola; erregeari idatzitako gutunean dioen moduan *“mende baldetik irtenda ekialdetik itzuli ginen”*. Bazekien inoizko itsas ibilaldi handiena burutu zuela, merkataritzarako bide berri bat ireki zuela eta lurraren neurriak uste baino handiagoak zirela frogatu zuela. Agian ez zen hainbeste jabetu modu erabakiorrean eragin zuela planetaren lehenengo globalizazioan.

Baina susmatu ez zuena zen bere naotan espezetan aberastasun handia ekartzeaz gain, altxor ukiezin bat ere ekarri zuela: ezagutza eta ziurtasuna. Elkanok frogatu zuen munduaren amaieran ez zegoela itsasontziak amilarazten zituen ur-jauzirik, ez ontziak hondoratzen zituen itsas munstro erraldoirik; itsasontziak ekuatorera iristean ez zutela irakiten, eta ez zirela erretzen egiaztatu zuen, nahiz eta Portugalدارrek kontrakoa esan, baina Elkanok ez zuen alferrik gurutzatu lau aldiz. Lurbira osoan begi bakarreko edo hanka bakarreko gizonik ez zegoela erakutsi zuen, edo burua bularrean zuen gizonik, nahiz eta horrelakoak ohikoak izan garai hartako grabatuetan. Eta hori guztia Transilvano kronikagilearengandik jaso dugu, berak baitio Elkanok eta beste marinel batzuk kontatu zutenari eskerrak inork ez zuela sinistuko munstrorik zenik, asabek idatzi zuten moduan⁵⁵⁵.

Elkanok ekarritako ezagutza guztiak eta horien garrantziak nasaiki gainditzen dute lan hau. Ezagutza nahiz ziurtasun horiek eraitsi zituzten erdi aroko mitoak, ezjakintasun eta sineskeriatik sortuak, eta, era berean, Berpizkundeko gizakiari bultzada eman zioten, geldiezineko bidean aurrera zihoana gaur egun garena izatera iritsi arte. Hori da niretzako Elkanoren lorpen handia, merkataritza ekintza bat mundua ulertzeko modua eta gizateriaren pentsatzeko modua betirako aldatuko dituen espedizioa bihurtzea.

| ondorioak |

Munduari lehenengo bira eman zitzaio-
la 500 urte betetzean, gure begiradaren
aurrean ageri dira egun batean, batzuk
beharragatik eta beste batzuk ezagutzen ez
ditugun arrazoiengatik, munduaren amaie-
rara joateko espedizio batean ontziratu
ziren gizon haien arpegi zurbilak.

Ezezagunarekiko beldurra gaindituz,
ozeano ilunean barneratu eta bide berriak
ireki zituzten, berebiziko gauzak ikusi
zituzten. Ekuatoreko beroa jasan zuten,
tropikoetako euri ikaragarriak, hotza Antar-
tikara gerturatzen ziren heinean eta ekaitz
ikaragarriak. Itsasoan hilotz arrastoa uzten
joan ziren.

Zaila da ulertzea nola biziraun zuten
haietako batzuk. Victoriak ez zuen lurrik
zapaldu bost hilabetetan. Gosea pasa zuten,
gaixotasunak, lan lehergarriak egin zituzten
mastetan, ontzigainean, eta atsedetik gabe
ponpari eragiten ura ateratzeko; Elkanok
dioen moduan “inoiz gizonak ezagutu duen
akidura handiena ezagutuz”.

Beren borondate, irmotasun eta espiritu
menderakaitzagatik lortu zuten, gutxi ba-
tzuk, itzultzea.

Nazio, herrialde eta erkidego desber-
dinetakoak ziren. Horien artean zeuden
euskaldunak, eta beraientzat espedizio hura
mende batzuk lehenago hasi zen kate luze
baten katebegi bat gehiago zen, pobreziak
eta beharrak bultzatuta itsasora begira jarri
baiziren.

Marinelak, arotzak, bikeztatzaileak,
itsasmutilak, maisuak, bizarginak, garraiola-
riak eta merkatariak izan ziren. Egurra eta
burdina erabiltzen ikasi zuten. Kontinen-
tearen iparraldea eta Mediterranea elkartu
zituzten beren itsasontziekin. Garia eta ar-
tilea, burdina eta oihalak eraman eta ekarri
zituzten, eta horretarako ontzi gogorrak eta
teknologikoki aurreratuak garatu zituzten.
Horietako bat, Victoria naoa, lur bazterrera
iritsi zen.

Eta Getariako maisu Juan Sebastian
Elkanok egoera latz bati aurre egin zion
lurraren beste muturrean: etxera itzultzea.
Bere lidergoari eta itsasoari nahiz gizonei
buruz zuen ezagutzari eskerrak, lortu egin
zuen. Bost mende geroago, haren hitzak
durundi egiten dute oraindik gure belarrie-
tan: *“mende baldetik irtenda ekialdetik itzuli ginen”*.

| bidaiaren kronologia |

1519

Sevillatik irteera	Abuztuak 10
Sanlucar-etik irteera	Irailak 20
Tenerifera iritsiera	Irailak 26
Tenerifetik irteera	Urriak 2
Juan de Cartagenaren atxilotzea	Urria edo azaroa
Brasilera iritsiera (San Agustin lurmuturra)	Azaroak 29
Santa Luciara iritsiera (Rio de Janeiro)	Abenduak 13
Antonio Salomon-en exekutatzea	Abenduak 20
Rio de Janeirotik irteera	Abenduak 26

1520

Río de la Platara iritsiera, Montevideo (Uruguay)	Urtarrilak 10
Montevideotik irteera	Otsailak 2
<i>Sebastian de Olarteren heriotza labankadaz</i>	<i>Otsailak 3</i>
Aingura bota zuten zuloa konpontzeko eta Olarte lurperatzeko	Otsailak 4
San Julian portura iritsiera (Patagonia. Argentina)	Martxoak 31
San Juliango matxinada. Juan de Elorriaga maisuari sastakada eman zioten.	Apirilak 2
Gomez de Espinosak Mendoza hil zuen	Apirilak 2
Epaiketa matxinatuei, heriotza zigorra, Quesadaren exekuzioa	Apirilak 7
<i>Juan Sebastian Elkano marinela izatera degradatu zuten</i>	<i>Apirilak 7</i>
Santiago naoa Santa Cruz ibaira iritsi zen (Argentina)	Maiatzak 3
Santiago naoarene galera	Maiatzak 22
<i>Juan de Elorriagaren heriotza</i>	<i>Uztailak 15</i>
San Julian-etik irteera	Abuztuak 24
Juan de Cartagenak espedizioa utzi zuen San Julianen	Abuztuak 24
Santa Cruz ibaira iritsiera	Abuztuak 26
Santa Cruz ibaitik irteera	Urriak 18
<i>Martin de Garate itota hil zen</i>	<i>Abuztuak 31</i>
Magallanes itsasartera iritsiera	Urriak 21
<i>San Antonio naoarene desertzioa eta Sevillarantz irteera 11 euskaldunekin</i>	<i>Azaroak 8</i>
Magallanes itsasartetik irteera	Azaroak 28

1521

Tuamutu uharteetako San Pablo uhartera (Puka puka) iritsiera	Urtarrilak 24
Marrazoen uhartera iritsiera	Otsailak 4
Mariana uharteetara (Guam) (Lapurren uharteak) iritsiera	Martxoak 6
Filipinetara iritsiera (Samar Uharteak)	Martxoak 16
<i>Ochote de Erandioren heriotza eskorbutogatik</i>	<i>Martxoak 21</i>
Massawara iritsiera (Mindanaotik gertu)	Martxoak 28
Cebura iritsiera	Apirilak 7
<i>Martin Barrenaren heriotza eskorbutogatik</i>	<i>Apirilak 9</i>
Magallanesen heriotza	Apirilak 27
Cebuko oturuntza eta 24 espediziokideen heriotza	Maiatzak 1
<i>Juanes de Segura erail zuten oturuntzan</i>	<i>Maiatzak 1</i>
Concepcion naoa hil zen Boholen	Maiatzak 2
Carvallo Trinidad naoko kapitain aukeratu zuten, Gomez de Espinosa Victoriako kapitain, eta Elkano Victoriako maisu	<i>Maiatzak 2</i>
Trinidad naoarene iritsiera Sevilalara	Maiatzak 8
Bruneira iritsiera	Uztailak 8
Bruneitik irteera	Uztailak 29
<i>Domingo de Barrutia preso hartu zuten Brunein</i>	<i>Uztailak 21</i>
Carvallo kargutik kendu zuten Borneotik gertu. Elkano Victoriako kapitain	<i>Irailak 16</i>
<i>Pedro de Muguerteguiaren bat-bateko heriotza</i>	<i>Irailak 16</i>
Moluketara (Tidore Uharteak) iritsiera, egungo Indonesian	Azaroak 8
Trinidad eta Victoria naoen irteera. Trinidad naoarene hondoratzea	Abenduak 18
Victoriaren irteera Moluketatik	Abenduak 21

1522

Mallua uhartera iritsiera (15 egun bikeztatzen)	Urtarrilak 11
Timor-era iritsiera (Indonesia)	Urtarrilak 25
Timor-etik irteera	Otsailak 11
Amsterdam uhartera iritsiera	Martxoak 18
Trinidad naoaren irteera. 1527an bizirik iraun zuten hiru gizon iritsi ziren Sevillara.	Apirilak 6
<i>Lorenzo de Iruñaren heriotza, gaixotuta, Indiar ozeanoan</i>	<i>Maiatzak 13</i>
<i>Juan de Sanfelices-en heriotza, gaixotuta, Indiar ozeanoan</i>	<i>Maiatzak 17</i>
Aurremastaren haustura ekaitzagatik Esperantza Oneko lurmuturrean	Maiatzak 16
Esperantza Oneko lurmuturra pasatu zuten	Maiatzak 19
<i>Martín de Insaurragaren heriotza, gaixotuta, Atlantikoan</i>	<i>Ekainak 1</i>
Cabo Verdera iritsiera	Uztailak 9
<i>Pedro de Tolosa eta Pedro de Chindarza preso hartu zituzten Cabo Verden</i>	<i>Uztailak 14</i>
Cabo Verdetik irteera	Uztailak 14
Azore uharteetatik igaro ziren	Abuztuak 15
San Vicente lurmuturretik igaro ziren	Irailak 4
Sanlucar-era iritsiera	Irailak 6
Sevillara iritsiera	Irailak 8
<i>Juan de Aguirre eta Domingo de Yarzaren heriotza Trinidad naon</i>	<i>Urriak 5 eta 14</i>
<i>Anton de Basozabal preso hartu zuten portugaldarrek</i>	<i>1523ko otsailak 28</i>

| testuan txertatutako taulak |

1. Taula	Kontratazio Etxeko ofizialak 1503 eta 1525 artean eta Magallanes-Elkano espedizioaren garaian (1519-22)	43
2. Taula	Artietak Bilbon erositako armak	51
3. Taula	Bost naoak: jatorria, jabea eta kostua	54
4. Taula	Juan eta Rodrigo de Garayk hornitutako gaiak	57
5. Taula	Espezietako armadaren prestatze-lanetan ordaindutako soldatak (marb.)	58
6. Taula	Naoen prestaketa lanetan aritu ziren arotz euskaldunak	58
7. Taula	Naoen prestaketa lanetan aritu ziren euskal bikeztatzaileak	58
8. Taula	Ontzien prestaketa lanetan aritu ziren itsasgizon eta peoi euskaldunak	59
9. Taula	Armadaren guztizko kostua eta partida bakoitzarena	61
10. Taula	San Antonio ontziko artilleria eta infanteriako armak	62
11. Taula	Armamentuaren kostua guztira (marabeditan)	63
12. Taula	Espedizionarioak eta euskaldunak guztira	65
13. Taula	Espedizionarioen hileko soldatak	66
14. Taula	Espedizioko euskaldunen zerrenda, lanbideak, jatorria eta zein naotan itsasoratu ziren	67
15. Taula	Euskaldunen banaketa nao eta lanbidearen arabera	69
16. Taula	Euskal espedizionarioen jatorria eta heriotzaren data eta arrazoia	71
17. Taula	Espedizionarioen emazteak	72
18. Taula	Espedizioko arotz eta bikeztatzaile euskaldunak	87
19. Taula	San Antonio naoan Sevillara itzuli ziren espedizionario euskaldunak	104
20. Taula	Tidoren Victoria eta Trinidad naoetan ontziratu ziren euskaldunak eta hil zirenak	114

| neurrien baliokidetasunak |

Distantzia neurriak

Itsas legoa (17,5 graduko): 5.573 m
 Pigafettak aipatzen duen legoa lau itsas miliari dagokio
 Itsas milia= 1.852 m

Aleen neurriak

Anega 1 = 55,5 l = 41,5 kg
 Anega 1 = 4 lakari-laurden
 Anega 1 = 12 lakari (almute)
 Kahiza 1 = 12 anega

Pisua

Libra 1 = 16 ontza = 460 gr
 Arroa 1 = 25 libra = 11,5 kg
 Kintal 1 = 4 arroa = 100 libra = 46 kg
 Tona 1 = 20 kintal = 920 kg
 Bahar 1 = 4 kintal = 184 kg

Likidoen neurriak

Ardo arroa 1 = 8 azunbre = 16,14 litro
 Olio arroa 1 = 12,55 l.
 Azunbre 1 = 4 pinterdi = 2 l.
 Pinterdi 1 = 0,5 l.
 Upel 1 = 27,5 arroa = 443,5 l.
 Zahato 1: 532,2 l.

Txanponak

Urrezko pesoa edo zilarrezko peso gogorra = 450 marabedi (marb.)
 Dukat-a = 375 marb.
 Zilarrezko erreala = 34 marb.

| euskaldunen
aurkibide onomastikoa |

Orriak

Acurio, Juan	7, 13, 17, 22, 60, 61, 66, 67, 68, 69, 70, 71, 72, 73, 75, 76, 78, 79, 80, 81, 83, 84, 85, 86, 88, 114, 117, 124, 125, 129
Aguirre, Juan	58, 67, 69, 70, 71, 72, 80, 81, 114, 116, 119, 145
Aguirre, Martín	67, 69, 71, 82, 84, 104
Arratia, Juan	7, 17, 22, 67, 68, 69, 71, 79, 82, 83, 85, 86, 114, 124, 125, 129,
Artieta, Nicolás	6, 11, 47, 50, 51, 52, 53, 54, 55, 56, 61,
Barrena, Martín	67, 69, 71, 92, 93, 103, 106, 107, 118, 144,
Barrutia, Domingo	67, 70, 71, 80, 106, 109, 144,
Basozabal, Anton	58, 59, 66, 67, 69, 71, 72, 73, 78, 81, 87, 88, 90, 114, 116, 117, 145
Bilbao, Pedro	58, 59, 66, 68, 69, 71, 87, 91, 103, 104,
Chindarza, Pedro	7, 68, 69, 70, 71, 85, 87, 88, 114, 115, 123, 129, 145,
Elcano, Juan Sebastian*	
Elorriaga, Juan	59, 60, 66, 67, 68, 69, 71, 72, 73, 74, 88, 101, 102, 103, 143,
Erandio, Ochote	68, 69, 71, 82, 84, 106, 107, 118, 144,
Garate, Martín	67, 69, 71, 72, 87, 89, 103, 143,
Goitisoló, Martín	68, 69, 71, 87, 91, 104,
Heguibar, Juan	11, 17, 47, 61,
Insaurraga, Martín	68, 69, 70, 71, 72, 79, 82, 84, 114, 115, 119, 120, 122, 145,
Irun Iranzo, Juanes	67, 69, 71, 82, 85, 104,
Iruña, Lorenzo	67, 69, 71, 79, 82, 114, 115, 119, 120, 145,
Laredo, Pedro	68, 69, 71, 72, 82, 104,
López de Recalde, Juan	6, 9, 11, 39, 41, 43, 44, 45, 46, 47, 49, 50, 61, 104, 105,
Menchaca, Juan	67, 69, 71, 92, 104,
Muguertegui, Pedro	68, 69, 71, 82, 84, 106, 109, 144,
Ochandiano, Domingo	6, 9, 11, 17, 43, 45, 46, 47, 56, 61, 124, 125, 126,
Olabarrieta, Pedro	68, 69, 71, 92, 104,
Olarte, Sebastián	59, 66, 68, 69, 71, 82, 101, 103, 143,
Ortiz de Gopegui, Juan	67, 69, 71, 94, 101, 102, 104,
Orue, Juan	67, 69, 71, 82, 83, 104,
Sanfelices, Juan	67, 69, 71, 82, 84, 114, 115, 119, 120, 145,
Sautua, Pedro	58, 68, 69, 71, 72, 87, 89, 104,
Segura, Juanes	67, 69, 71, 72, 81, 104, 106, 107, 108, 144,
Tolosa, Pedro	7, 22, 68, 69, 70, 71, 79, 82, 83, 84, 86, 94, 107, 114, 115, 123, 124, 129, 145,
Ugarte, Lope	67, 69, 71, 81, 104,
Vizcaino, Juan	17, 125,
Yarza, Domingo	58, 66, 67, 69, 71, 75, 76, 78, 79, 80, 81, 87, 88, 114, 116, 117, 119, 145,
Zubileta, Juan	7, 17, 22, 67, 68, 69, 71, 79, 83, 85, 86, 114, 124, 125, 129,

*Ez da zerrenda honetan gehitu testuan askotan ageri delako.

| oharrak |

SARRERA

- 1 Elcano, Juan Sebastian y otros. *La primera vuelta al mundo*. Madril: Miraguano, 2012; Albo Francisco, *Magallanesen bidaiaren ibilbidea, San Agustin lurmuturretik, Brasilen, "Victoria" naoa Espainiara itzuli arte*, 67-110 orr.; Juan Sebastian Elkanok Enperadoreari idatzitako gutuna, *Magallanesen armadan egindako bidaiaren eta Victoria naoan burututako itzuleraren berri emanez*, 11-12 orr.; Mafra, Ginés de, *Relación*, 139-184 orr.; Fernando de Magallanesen bidaiak Sevillatik Moluketara 1519an, *Genoako pilotu batek idatzia*, 117-138 orr.; Pigafetta, Antonio. *Munduaren inguruko lehenengo bidaiak*, 185-325 orr.; 1519an Victoria naoan joan zen Duarte Barbosaren adiskide portugaldar baten kontakizuna, 111-116 orr.
- 2 Fernández de Oviedo, Gonzalo, *Historia General y Natural de las Indias*, bigarren zatiko lehenengo liburukia, Madril: Historiako Errege Akademiaren inprimategia, 1852, 15 orr.
- 3 *Galdeketa abentura eta gero (18-X-1522)*, Hemen: Colección Documentos para el V Centenario, 11. Dok. Jatorrizko dokumentuen transliterazioa Cristobal Bernalek egin. Sevilla: Iniciativa Ciudadana Sevilla 2019-2022, 2014 (Interneten eskuragarri web-orri honetan: <http://sevilla.2019-2022.org/publicaciones/#coleccion-documentos-para-el-v-centenario->), 11-12 orr.
- 4 Lucena, Manuel, *Juan Sebastián Elcano*, Bartzelona: Ariel, 2003, 48-49 orr.
- 5 Obregón, Mauricio. *La primera vuelta al mundo. Magallanes, Elcano y el libro perdido de la Nao Victoria*. Bogota: Plaza & Janés, 1984, 267-321 orr.
- 6 Fernández de Oviedo, G., Op. cit., 31 orr.
- 7 Barreda Aldámiz-Echeverría, Carlos. *Nova imago mundi. La imagen del mundo tras la vuelta al mundo*. Madril: Carlos Barreda Aldámiz-Echeverría argitaratzailea, 2002, 229 orr.
- 8 *Enperadoreak Juan Sebastian Elkanori emandako barkameneko errege zedula, 1523ko otsailak 13*, Hemen: Medina, JT., Colección de documentos inéditos, I. liburukia, 312 orr.
- 9 Fernando de Magallanesen eskakizunak osatutako informazioa. Hemen: Colección Documentos V. Centenario, 05 dok., Op. cit., 12-14 orr.
- 10 *Juan Sebastian Elkanoren testamentua, Victoria naoan idatzia, Jofre de Loaisa komendadorearen espedizioan, Hegoaldeko itsasoan, 1526ko uztailaren 26an* (Doc. Ined. Hist. de Esp.-ren I. liburukian argitaratua 252-270 orr.). 1526ko uztailak 26. Hemen: Medina, JT., Colección de documentos inéditos, II. liburukia, Op. cit., 93-108 orr.
- 11 Transilvano, Maximiliano, *Maximiliano Transilvanoren kontakizuna Moluka uharteak nola, zergatik eta noiz aurkitu ziren kontatuz; espezieen lurraldearen jaiotza eta horien konkista Espainiako koroaren aldetik*. Hemen: Elcano, J.S. y otros, Op. cit., 16-17 orr.
- 12 Mártir de Anglería, Pedro, *Décadas del Nuevo Mundo*, Madril: Polifemo, 1989.
- 13 Fernández de Oviedo, G., Op. cit.
- 14 Fernández de Navarrete, Martín. *XV. mende amaieratik espainiarrek itsasoz egin zituzten bidaiak eta aurrikuntzen bilduma. IV. Liburukia. Expediciones al Maluco: viaje de Magallanes y de Elcano*. Madril: Inprenta Nazionalea, 1837 (Interneten eskuragarri Google Books-en). Lan honetako interneteko erreferentzia guztiak 2018ko otsailean begiratu dira.

- 15 Medina, José Toribio, *Colección de documentos inéditos para la Historia de Chile desde el Viaje de Magallanes hasta la batalla de Maipo (1518-1818)*, I. eta II. Liburukiak, Txileko Santiago: Ercilla inprimategia, 1888 (Interneten eskuragarri Memoria Chilena-n); Medina, José Toribio, *El descubrimiento del océano Pacífico. Hernando de Magallanes y sus compañeros. Documentos*. Txileko Santiago: Elzeviriana inprimategia, 1920 (Internet Archive-n eskuragarri).
- 16 *Colección General de Documentos relativos a las Islas Filipinas existentes en el Archivo de Indias de Sevilla, I-V* liburukiak, Bartzelona: Filipinetako Tabako Konpainia Nagusia, 1918-1923 (Interneten eskuragarri Espainiako Liburutegi Nazionaleko Liburutegi Digital Hispanikoan).
- 17 Llorens Asensio, Vicente. *La primera vuelta al mundo, Relación documentada del viaje de Hernando de Magallanes – Juan Sebastián del Cano, 1519-1522*. Sevilla: Merkataritz Gidaren Inprimategia, 1903 (Interneten eskuragarri Memoria Chilena-n).
- 18 Pastells, Pablo y Bayle, Constantino, *El descubrimiento del Estrecho de Magallanes en conmemoración del cuarto centenario. Lehenengo zatia*, Madril: Sucesores de Rivadeneyra, 1920 (Internet Archive-n eskuragarri).
- 19 *Colección Documentos V Centenario*, Op. cit.
- 20 Arteché, José de, *Elcano*, Madril: Espasa Calpe, 1972.
- 21 Zweig, Stefan. *Magallanes, el hombre y su gesta*. Bartzelona: Juventud argitaletxea, 1945.
- 22 Mitchell, Mairin, *Elcano, the first circumnavigator*, London: Herder Publications, 1958.
- 23 Mitchell, Mairin, *La odisea de Acurio*, Bartzelona: Luis de Caralt, 1958.
- 24 Sola, Víctor María de, *Juan Sebastián Elcano*, Bilbo: Bizkaiko Aurrezki Kutxa, 1962.
- 25 Fernández Vial, Ignacio, Fernández Morente, Guadalupe. *La primera vuelta al mundo. La nao Victoria*. Sevilla: Muñoz Moya, 2001.
- 26 Barreda, C., Op. cit.
- 27 Lucena, M., Op. cit.
- 28 Núñez de la Fuente, José Manuel, *Diario de Magallanes*, Madril: Doce Calles, 2017
- 29 Comellas, José Luis, *La primera vuelta al mundo*, Madril: Rialp, 2012.
- 30 Blanco Núñez, José María, Contreras Fernández, Pedro, Madueño Galán, José María, Martínez Ruiz, Enrique. *Desvelando horizontes. La circunnavegación de Magallanes y Elcano*. Madril: Ontzi Museoa Fundazioa, 2016.
- 31 Almazán, Javier Angel, *Estudio clínico y epidemiológico de la primera circunnavegación a la tierra*, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa, 2015.
(https://repositorio.uam.es/xmlui/bitstream/handle/10486/667619/almazan_altuzarra_javier_angel.pdf?sequence=1)
- 32 Gallup-Díaz, Ignacio, *Conference "Great Voyages: Ferdinand Magellan, Our one true guide: the first circumnavigation of the globe"*. Penn Museum. University of Pennsylvania. Museum of Archaeology and Anthropology, (Interneten eskuragarri hemen: <https://www.penn.museum/collections/videos/video/88>)
- 33 Romero Tallafigo, Manuel. *El testamento del navegante Juan Sebastián de Elcano*. <https://www.youtube.com/watch?v=QgnVzdl-BVU&t=3508s>

1. Kapitulu. ESPEZIEN BILA

- 34 Hale, John R. *La Europa del Renacimiento 1480-1520*. Madril: Siglo Veintiuno, 1973, 15. Orr.
- 35 Bennassar, Bartolomé. *La expansión europea: Génesis y nacimiento de la economía mundial*. Hemen: De Carlos

- Boutet, Guiomar. *España y América: un océano de negocios. Quinto Centenario de la Casa de la Contratación, 1503-2003*. Sevilla: Bosgarren Mendeurreneko Estatu Elkarte, 2003, 26 orr.
- 36 Sánchez Sorondo, Gabriel. *Magallanes y Elcano, travesía al fin del mundo*. Madril: Nowtilus, 2006, 34. Orr.
- 37 Transilvano, M., Op. cit., Hemen: Elcano, J.S. y otros, Op. cit., 62 orr.
- 38 Bergreen, Laurence. *Magallanes. Hasta los confines de la tierra*. Bartzelona: Planeta, 2004, 380 orr.
- 39 Pigafetta, Antonio, *El primer viaje en torno al globo. Hemen: Elcano, J.S. y otros, Op. cit., 292. Orr.*
- 40 Marabedi bat egungo euroa baino zertxobait gehiago izango litzateke.
- 41 Fernández de Navarrete, M., *Colección de los Viages, IV. liburukia, Op. cit., 79. Orr.*
- 42 Victoria naoaren itzulera, harrera eta iltzea (IX-tik XI-ra - 1522). Hemen: *Documentos V Centenario bilduma, 13 dok., Op. cit., 9. Orr.*
- 43 Arteche, J., Op. cit., 172-173. orr.
- 44 Nao bateko upel kopuruak edo tonek bere edukiera adierazten dute. Nao baten edukiera upeletan neurtzen zen iparraldean eta tonetan Mediterraneoan. Hamar upel 12 tona ziren.
- 45 Bergreen, L. Op. cit., 29-30. Orr.
- 46 Comellas, J.L., Op. cit., 146. Orr.
- 47 Victoria naoaren itzulera, Op. cit., Hemen: *Colección Documentos V Centenario, 13. Dok., Op. cit., 18. Orr.*
- 48 Ibidem, 13. Orr.
- 49 Ibidem, 13. Orr.
- 50 Mafrá, Ginés de, *Relación de Gines de Mafrá, Hemen: Elcano, J.S. y otros, Op. cit., 181. Orr.*
- 51 Moluka uharteak aurkitzeko bidaiarako Magallanes eta Falerori erregeak emandako jarraibideak. (Sevillako Indietako Artxiboa, Moluketako paperak, 1. orri-sorta, 1529-tik 1547-ra), 1519ko maiatzak 8, Hemen: Fernández de Navarrete, M., *Colección de los Viages, IV. liburukia, Op. cit., 150-152. Orr.*
- 52 Fernández Vial, I., Op. cit., 277. Orr.
- 53 Victoria eta Concepcion naoetako kapitain, ofizial eta gainontzeko tripulazioari zor zaion soldataren kontakizuna; lehenengo naoa desegin egin zen, eta bigarrena galdu. Hemen: Medina, J.T., *El descubrimiento del océano Pacífico, Op. cit., 209. Orr.*
- 54 Transilvano, M, Op. cit., Hemen: Elcano, J.S. y otros, Op. cit., 23. Orr.
- 55 Erregearen azken aginduak irten baino lehen (1519ko martxoaren 30 eta uztailaren 27a bitartean). Hemen: *Documentos V Centenario bilduma, 09. Dok., Op. cit., 5. Orr.*
- 56 Magallanesen armadak izanzuen kostuaren kontakizuna, (Sevillako Indietako Artxiboa, Moluketako paperak, 1. Orri-sorta 1519-tik 1547-ra), Hemen: Fernández de Navarrete, M., *Colección de los Viages, IV. liburukia, Op. cit., 182. Orr.*
- 57 Victoria naoaren itzulera, Op. cit., Hemen: *Documentos V Centenario bilduma, 13. Dok., Op. cit., 15. Orr.*

2. Kapitulu. ONTZIGINTZA BIZKAIAN ETA GPUZKOAN

- 58 Arizaga, Beatriz, Bocacha, Michel, *El comercio marítimo de los puertos del País Vasco en el Golfo de Vizcaya a finales de la Edad Media, Itsas Memoria*. Euskal Herriko Itsas Gaietako Aldizkaria 4: 41-53 (2003); Child, Wendy R., *Commercial relations between the Basque Provinces and England in Later Middle Ages, c.1200-c.1500*, Itsas

- Memoria. *Euskal Herriko Itsas Gaietako Aldizkaria* 4: 55-64 (2003); Orella Unzué, José Luis, *Comerciantes vascos en Normandía, Flandes y La Hansa: 1452-1526, Itsas Memoria. Euskal Herriko Itsas Gaietako Aldizkaria* 4: 65-114 (2003); Ferrer i Mallol, Maria Teresa, *Los vascos en el Mediterráneo medieval. Los primeros tiempos, Itsas Memoria. Euskal Herriko Itsas Gaietako Aldizkaria* 4: 115-128 (2003);
- 59 García de Cortázar, Jose Angel, Alava, *Guipúzcoa y Vizcaya en los siglos XIII a XV: de los valles a las provincias. Eusko Ikask. Nazioarteko aldizkaria*. 45, 1, 2000, 224 orr.; Angulo Morales, Alberto, Porres Marijuan, Rosario, Lema Pueyo, José Angel, *Historia del País Vasco, Edad Moderna (Siglos XVI-XVIII)*, Donostia: Hiria Liburuak, 2004, 39-40 orr.
- 60 Urrutikoetxea Lizarraga, José, *El panorama demo-familiar de Euskal Herria (siglos XVI-XIX)*, Hemen: Agirreazkue-naga, Joseba (koord.). *Historia de Euskal Herria: historia general de los vascos*, Donostia: Lur, 2004, III. liburukia, 31. Orr.
- 61 Alberdi Lonbide, Xabier. Aragón Ruano, Alvaro. *La construcción naval en el País Vasco durante la Edad Media. Itsas Memoria. Euskal Herriko Itsas Gaietako Aldizkaria* 2: 13-28 (1998); Odriozola Oyarbide, Lourdes. *La construcción naval en Gipuzkoa. Itsas Memoria. Euskal Herriko Itsas Gaietako Aldizkaria* 2: 93-146 (1998); Rivera Medina, Ana María. *Paisaje naval, construcción y agentes sociales en Vizcaya: desde el medioevo a la modernidad. Itsas Memoria. Euskal Herriko Itsas Gaietako Aldizkaria* 2: 49-92 (1998); Casado Soto, José Luis. *Aproximación a la tipología naval cantábrica en la primera mitad del S XII. Itsas Memoria. Euskal Herriko Itsas Gaietako Aldizkaria* 2: 169-191 (1998); Casado Soto, José Luis. *El País Vasco y el mar. Desde los orígenes hasta el S. XVIII. Hemen: Itsas aurrean. El País Vasco y el mar a través de la historia. Untzi Museoa, Donostia, 1995, 15-77 orr.*
- 62 Arizaga, B., Bocacha, M., Op. cit., 50-51 orr.
- 63 Arteche, J., Op. cit., 20. Orr.
- 64 Caro Baroja, Julio, *Los Vascos*, Madril: Istmo, 1971, 195. Orr.
- 65 Ibañez, Maite, Torrecilla, Maria Jose, Zabala, Marta, Yañiz, Santi. *La industria del hierro. Bertan*, 16. Zenb. 2001, <http://bertan.gipuzkoakultura.net/es/16/es/6.php>.
- 66 Odriozola, L., Op. cit., 140. Orr.
- 67 García de Cortázar, J.A., Op. cit., 224. Orr.
- 68 Díez de Salazar, Luis Miguel, *Ferrerías en Guipúzcoa, 1. liburukia Donostia: Haranburu, 1983, 273. Orr.*
- 69 Ibidem, 385. Orr.
- 70 Barreda, C., Op. cit., 30-31 orr.
- 71 Díez de Salazar, LM., *Ferrerías en Guipúzcoa, Op. cit., 306. Orr.*
- 72 Pérez-Mallaína, Pablo Emilio, *Los hombres del océano. Vida cotidiana de los tripulantes de las flotas de Indias. Sigo XVI*. Sevilla: Sevilla 92 Erakusketa Unibertsalerako Estatu Elkartea, 1992, 79. Orr.
- 73 Díez de Salazar, LM., *Ferrerías en Guipúzcoa, Op. cit., 303. Orr.*
- 74 Lan honetako Victoriaren argazkiak Ignacio Fernandez Vial-ek Sevillako Expo 92-rako egin zuen naoaren erreplikarenak dira.. Victoria Naoa Fundazioa. Andaluziako Junta.
- 75 Alberdi, X, Aragón Ruano, A., *La construcción naval en el País Vasco, Op. cit., 15. Orr.*
- 76 Arraun-lema ontziaren alboetako bateko txopan jartzen zen arraun handi bat zen, eta ontziak eramatea ahalbidetzen zuen.
- 77 Alberdi, X, Aragón Ruano, A., *La construcción naval en el País Vasco, Op. cit., 24. Orr.*
- 78 Arraun-lema ontziaren alboetako bateko txopan jartzen zen arraun handi bat zen, eta ontziak eramatea ahalbidetzen zuen.
- 79 Haizeak jotzen duen norabidearen aurkakoan dagoen ontziaren aldea.

- 80 Alberdi, X, Aragón Ruano, A., *La construcción naval en el País Vasco*, *Op. cit.* 26-27 orr.
- 81 Ibidem, 26. Orr.
- 82 Ibidem, 29. Orr.
- 83 Casado, JL., *Aproximación a la tipología naval*, *Op. cit.*, 170. Orr.
- 84 Artiñano, Gervasio de, *Arquitectura naval española*, Madril: Barcelona Oliva de Vilanova, 1920, 67-68 orr.
- 85 Chaunu, Pierre, *Sevilla y América, siglos XVI y XVII*, Sevilla: Sevillako Unibertsitatea, 1983, 210-215 orr.
- 86 Casado, JL., *El País Vasco y el mar*, *Op. cit.*, 45. Orr.
- 87 Barreda, C., *Op. cit.*, 61. Orr.
- 88 Ibidem, 61-62 orr.
- 89 Ibidem, p. 33.
- 90 Casado, JL., *El País Vasco y el mar*, *Op. cit.*, 65. Orr.
- 91 Leku izenetan Euskal Herriko egungo toponimia ofizialaren irizpideak hartu ditut kontutan. Beste garai batzue-tako testuak errepikatzean leku izenak autoreak aipatzen dituen moduan utzi ditut.
- 92 Odriozola L., *Op. cit.*, 93. Orr.
- 93 Rivera, AM., *Op. cit.*, 50. Orr.
- 94 Ibidem, 51. Orr.
- 95 Caro Baroja, Julio. *Los vascos y el mar*. Donostia: Txertoa, 1981, 71. Orr.
- 96 Escalante de Mendoza, Juan, *Itinerario de Navegación de los mares y tierras occidentales, 1575. Citado en Guiard y Larrauri, T., Historia de la Noble Villa de Bilbao*, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1971, I. liburukia, 460. Orr.
- 97 Odriozola, L., *Op.cit.*, 135. Orr.
- 98 Sánchez Sorondo, G., *Op. cit.*, 19. Orr.
- 99 Agote, Xabier, *Nuestros barcos, Bertan*, 23. Zenb., 2009 <http://bertan.gipuzkoakultura.net/23/aste/9.php>
- 100 Fernández-Armesto, Felipe. *Los conquistadores del horizonte. Una historia global de la exploración*. Barcelona: Ariel, 2006, 215. Orr.
- 101 Bergreen, L., *Op. cit.*, 31. Orr.
- 102 Obregón, M., *Op. cit.* 33. Orr.
- 103 Almazán, JA., *Op. cit.*, 60. Orr.
- 104 Grenier, Robert, Bernier, Marc-André, *Aproximación al pecio de una nao ballenera del siglo XVI (Red Bay, Labrador)*. Unsain, José María, *La memoria sumergida. Arqueología y patrimonio subacuático vasco*, Untzi Museoa. Donostia: 2004, 165-191 orr.
- 105 *Fábricas de armas. La fabricación de armas en el siglo XVI. Auñamendi Eusko Entziklopedia*. <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/fabricas-de-armas/ar-75885-139393/>; Fernández Alvarez, Manuel. *Carlos V, el César y el Hombre*. Madril: Espasa Forum, 1999, 228-229 orr.
- 106 Díez de Salazar, LM., *Ferrerías en Guipúzcoa*, *Op. Cit.*, 286. Orr.
- 107 *Arma fabrikak. Arma fabrikazioa XVI. mendean*, *Op. cit.*
- 108 Ibidem.
- 109 Ibidem.

3. Kapituluua. EUSKALDUNAK SEVILLAKO KONTRATAZIO ETXEAN

- 110 Txueka Isasti, Fernando. *El Colegio de Pilotos Vizcainos de Cádiz. La otra historia marítima de los vascos: del Mare Nostrum al Pacífico. Itsas Memoria. Euskal Herriko Itsas Gaietako Aldizkaria*, 8, Untzi Museoa –Donostia, 2016, 601. Orr.
- 111 Ibidem, p. 598.
- 112 Caro Baroja, J. *Los vascos y el mar*, Op. cit., 38. Orr.
- 113 Barrio.
- 114 Pérez-Mallaína, PE., *Los hombres del océano*, Op. cit., 26. Orr.
- 115 García Fuentes, Lutgardo. *Los vascos en la Carrera de Indias en la Edad Moderna: una minoría dominante. Temas Americanistas*; 16 zenb., 2003, 33-34 orr.
- 116 Txueka Isasti, F., Op. cit., 597. Orr.
- 117 Ronquillo Rubio, Manuela. *Los vascos en Sevilla y su tierra durante los siglos XIII, XIV y XV: fundamentos de su éxito y su permanencia*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 2004, 380. Orr.
- 118 García Fuentes, L., Op. cit., 34-35 orr.
- 119 Ronquillo Rubio, Manuela. *Los vascos en Sevilla*, Op. cit., 380. Orr.
- 120 Horien artean bankari genoarrak nabarmentzen ziren, enpresa askoren finantzatzaileak Erdi Aroaz geroztik.
- 121 Domínguez Ortiz, Antonio. *Sevilla a comienzos del S XVI. Hemen: Acosta Rodríguez, Antonio, González Rodríguez, Adolfo, Vila Villar, Enriqueta. La Casa de Contratación y la Navegación entre España y Las Indias*. Sevilla: CSIC Argitalpenak, Sevillako Unibertsitatea, 2004, 12. Orr.
- 122 Azpiazu, José Antonio, *Los guipuzcoanos y Sevilla en la Alta Edad Moderna*, Itsas Memoria. Euskal Herriko Itsas Gaietako Aldizkaria 4: 208 (2003).
- 123 *Idazpenak eta Hitzarmenak Magallanes eta Falerorekin (22-III-1518)*. Hemen: Documentos V Centenario aldizkaria, 03 dok., Op. cit., 2-6 orr.
- 124 Gil, Juan, *El exilio portugués en Sevilla. De los Braganza a Magallanes*, Sevilla: Cajasol Fundazioa, 2009.
- 125 *Erregeak Kontratazio ofizialei idatzitako gutunean ondorengo esaten die, gure interesekoak ez diren beste gai batzuren artean....*, Hemen: Llorens Asensio, V., Op. cit., 140-142 orr.; *Aginduak Etxeari eta Hiriari, gatazkak eta gastuak*. Hemen: Documentos V Centenario bilduma, 06 dok., Op. cit., 2-3 orr.
- 126 Aram, Bethany. *La Contratación entre Sevilla y Tierra Firme, 1513-1531*. Hemen: Acosta Rodríguez A. y otros, Op. cit., 280. Orr.
- 127 Donoso Anes, Rafael. *El papel del tesorero en el desarrollo contable de la Casa de la Contratación*. Hemen: Acosta Rodríguez, A y otros, Op. cit., 69. Orr.
- 128 León Borja, István Szászdi. *La Casa de la Contratación de Sevilla y sus hermanas indianas*. Hemen: Acosta Rodríguez, A. y otros, Op. cit., 112. Orr.
- 129 *Presentación*. Hemen: Acosta Rodríguez, A. y otros, Op. cit., XX. orr.
- 130 Sanchez Sorondo, G., Op. cit., 32. Orr.
- 131 Sagarra Gamazo, Adelaida. *Burgos y el gobierno indiano: la clientela del Obispo Fonseca*. Burgos: Burgosko kutxa, 1998, 79-80 orr.
